

# Euskadiko Segurtasun Publikoko Plan Orokorra



*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



## AURKIBIDEA

1.	SARRERA .....	5
1.1.	AURKEZPENA .....	5
1.2.	EGITURA.....	6
2.	ARRISKUAK ETA MEHATXUAK EUSKADIN.....	7
2.1.	Epidemiak eta pandemiak .....	9
2.2.	Emakumeen aurkako indarkeria.....	10
2.3.	ARRISKU NATURALAK (MUTURREKO FENOMENO METEOROLOGIKOAK) .....	11
2.4.	Trafiko istripuak.....	13
2.5.	Zibersegurtasuna .....	15
2.6.	Antolatutako delitu bandak.....	16
2.7.	Drogen ekoizpena, trafikoa eta kontsumoa .....	17
2.8.	Islamismo erradikalari lotutako indarkeriazko ekintzak.....	18
2.9.	Biktima ugari eragiten dituzten istripu eta ezbeharrak.....	19
2.10.	Ekipo eta substantzia arriskutsuen jardura industrialarekin, garraioarekin eta/edo manipulazioarekin lotutako arriskuak.....	20
2.11.	Aisialdiari lotutako indarkeria .....	22
2.12.	Bideetako pilaketak .....	23
2.13.	Bizikidetza demokratikoaren aurkako mehatxuak .....	24
2.14.	Azpiegitura kritiko eta sentikorren babesa .....	24
2.15.	Gizakien salerosketa .....	25
2.16.	Jokoarekiko menPekotasuna .....	27
2.17.	Ingurumenaren narriadura.....	28
3.	SEGURTASUNAREN EGOERA EUSKADIN.....	30
3.1.	ESPARRU JURIDIKOA.....	30
3.2.	EAE-ko polizia .....	31
3.3.	LARRIALDIEI AURRE EGITEA.....	37
3.4.	BIDE SEGURTASUNA .....	42
3.5.	JOKO ETA IKUSKIZUNAK .....	48
3.6.	ERAKUNDE ARTEKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA .....	55
3.7.	ANALISI INTEGRATUA .....	60
4.	MISIOA, BISIOA, PRINTZIPIOAK ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK.....	63

4.1.	MISIOA.....	63
4.2.	BISIOA .....	63
4.3.	PRINTZIPIOAK .....	63
4.4.	ERRONKA ESTRATEGIKOAK.....	64
5.	EKINTZA PLANA .....	65
5.1.	ILDO ESTRATEGIKOAK.....	66
5.2.	I. ERRONKA. SEGURTASUN INTEGRALAREN EREDUA.....	72
5.3.	II. ERRONKA. GAITASUN BERRIAK ETA MEHATXU BERRIAK .....	77
5.4.	III. ERRONKA. HERRITARREN ESPEKTATIBAK ETA ESKAKIZUN GERO ETA HANDIAGOA .....	81
5.5.	IV. Erronka. TALDE PROFESIONAL NAHIKOA, EGONKORRA ETA GOGOBETEA.....	83
6.	INPAKTU ADIERAZLEAK.....	86
6.1.	Inpaktua Herritarren segurtasun pertzepzioan .....	86
6.2.	Inpaktua herritarren balorazioan .....	86
6.3.	Inpaktua benetako segurtasunean.....	86
7.	PLANAREN KUDEAKETA EREDUA.....	88
7.1.	Gobernantza .....	88
7.2.	Segimendua eta ebaluazioa.....	89
	ERANSKINAK .....	90
	I. ERANSKINA. ESPARRU JURIDIKOA .....	90
	ii. ERANSKINA. ERAKUNDE ARTEKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA .....	97
	III. ERANSKINA. Adierazleak.....	108

# 1. SARRERA

## 1.1. AURKEZPENA

Dokumentu honen bidez Euskadiko Segurtasun Publikoko 2020-2025 Plan Orokorra aurkezten da, hau da, 15/2012 Legea onartu ondoren egindako mota horretako bigarren plana, 11. artikuluan arautzen dena. 2014-2019 plana onartu zenetik sei urte igaro ondoren, eta plan hori 2017an XI. Legegintzaldia hastearekin batera berrikusita, plan berri hau egin da, euskal gizarteak gaur egun dituen arrisku eta mehatxuen, segurtasunaren arloan dituen bitarteko eta baliabideen eta datozen urteetarako erronka, ildo, ekimen eta ekintza berrien balorazio berria egin eta eguneratzeko.

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko 15/2012 Legeak segurtasun publikoaren antolaketa esparruaren ikuskera integral bat definitzen du, eta bertan artikulatzen dira administrazio publikoek baldintzak sustatzeko eta oztopoak kentzeko bideratutako xedapen, prozedura eta baliabideak, pertsonak beren eskubide eta askatasunak osoki baliatu ahal izateko eta bizikidetzak baketsuan, ongizatean eta kohesio sozialean bizi ahal izateko, haien eskubideak eta askatasunak, haien segurtasuna eta haien ondasunen eta ondare kolektiboaren segurtasuna nahita edo nahi gabe kaltetu litzaketen arriskuak ahal den neurrian murriztuz.

Segurtasun publikoaren sistemaren printzipio komunak artean daude, 15/2012 Legearen 3. artikulua arabera, arriskuak eta mehatxuak prebenitzea, herritarren beharrezkoak ezagutzeko eta zerbitzu publikoak beharrezko horietara egokitzea, bai eta arazoak identifikatzea, erantzuna planifikatzea eta emaitzak ebaluatzea ere. Legeak segurtasunaren helburuak, estrategiak eta jardute ildoak planifikatu beharra azpimarratzen du, eta, horretarako, lehenengo tituluko II. Kapituluak gai horri eskaintzen dio. Plangintza horren gailurrean kokatzen da, hain zuzen, Euskadiko Segurtasun Publikoko Plan Orokor hau (ESPPO).

Bestalde, Europar Batasunak duela gutxi aurkeztu du Segurtasunaren Batasunerako Estrategia, 2020-2025 aldia hartzen duena. Estrategia horren segurtasun arloko ikuspegiak gizarte osoa barne hartzen du, eta eraginkortasunez eta modu koordinatuan erantzun diezaike azkar aldatzen ari diren mehatxuei. Horretarako, Segurtasunaren Batasunaren ekosistema osoan arrisku digitalei eta fisikoei modu integratuan aurre egiteko lehentasun estrategikoak eta kasu kasuko ekintzak zehazten ditu eta EBk balio gehiago emango duen eremuetan zentratzen da.

Segurtasun eskaerak eboluzionatu egin dute eta areagotu egin dira gizartean. Esparru berri honetan, arrisku eta mehatxu berriek bidea ireki dute eta garrantzia hartu dute azken urteotan; horien artean, aipatzekoak dira pandemiak eta zibermehatxuak. Egiturazkoak diren beste arazo batzuk, hala nola indarkeria matxista, ez dira oraindik desagerrarazi gure gizartetik. Era berean, ezin dugu alde batera utzi aldaketa klimatikoa muturreko fenomeno meteorologikoen sorreran izaten ari den eta izan dezakeen eragina. Horien guztien aurkako borroka da Segurtasun Sailaren lehentasunetako bat, eta halaxe islatzen da ESPPOren eguneratze honetan.

Euskadiko Segurtasun Publikoko 2020-2025 Plan Orokorra **integralaren** ikuspegi batetik eraikitzen da, non Euskal Autonomia Erkidegoko segurtasunean inplikaturako erakunde guztien ekimenak biltzen diren eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak koordinaturako lana jasotzen den. Horrek zeharkako segurtasun politikak artikulatzen ditu, lerrotatuta, koordinatuta eta lehenetsita Euskadin segurtasun publiko **integralaren paradigma** berri bat planteatzeko, eraldaketa **digitalak** ahalbidetutako aldaketa sakon eta beharrezko bat.

ESPPOren definizioan eta garapenean, kontuan hartu dira Garapen Jasangarriko Helburuak, zeinak Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartu baitzituen eta Euskadi 2030 Agendan jasota baitaude. Era berean, planak eta planaren hedapenak emakumeen eta gizonen tratu eta aukera berdintasuna integratzen duten politikak garatzen lagundu behar dute, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedatutakoarekin bat etorritik.

## 1.2. EGITURA

Sarrera honetaz gain, dokumentuak kapitulu hauek jasotzen ditu:

- Bigarren kapituluak, EAEko segurtasunari bereziki eragiten dioten **arrisku eta mehatxuen** analisiaren emaitzak aurkezten dira. Horien artean, batetik, derrigorrez nahita egindakoak izan beharrik ez dutenak, eta, bestetik, nahita egindako ekintzetatik datozen mehatxuak, hala nola delituzko jarduerak, zeinak, beren izaeragatik, nahitako edo arduragabeko giza egite edo ez-egite bat eskatzen duten; izan ere, hori dela eta, arrisku antropikotzat edo, delitu informatikoen kasuan, teknologikotzat har daitezke. Kapituluak jasotzen dituen arriskuen artean, daukaten inpaktu potentzialagatik eta gertatzeko probabilitateagatik, honako hauek nabarmentzen dira: pandemiak eta epidemiak, emakumeen aurkako indarkeria, arrisku naturalak eta muturreko fenomeno meteorologikoak, trafiko istripuak, zibersegurtasuna, antolatutako delitu bandak edo drogen ekoizpena, trafikoa eta kontsumoa.
- Hirugarren kapituluak **EAEko segurtasunaren egungo egoeraren** deskribapen zabala egiten du. Ondoren, I. eranskinean zehatz-mehatz azaltzen den **arau esparruari** buruzko sarreraren ostean, kapituluak Euskadiko segurtasunaren egoera deskribatzen duten **adierazle** nagusiak aurkezten ditu lau arlo hauetan: polizia, larrialdiak, bide segurtasuna eta jokoa eta ikuskizunak. Ondoren, kapituluak EAEko segurtasunaren **koordinaziorako eta lankidetzarako** mekanismoak deskribatzen ditu, eta, amaitzeko, Euskadiko segurtasunaren **azterketa integratua** aurkezten du, non indar, ahultasun, aukera eta mehatxu nagusiak identifikatzen baitira.
- Laugarren kapituluak **Euskadiko segurtasunaren oinarri estrategikoak** ezartzen ditu, hau da, planaren misioa eta bisioa, bai eta planaren formulazioa eta ezarpena arautzen duten printzipioak ere, eta, azkenik, Euskadik segurtasunaren arloan dituen erronka estrategikoak identifikatzen ditu.
- Bosgarren kapituluak Euskadiko segurtasunaren egungo egoeratik abiatuta identifikatutako arriskuei erantzuteko definitzen den **ekintza plana** garatzen da. Horretarako, lehenik eta behin, erronka estrategiko bakoitzari aurre egiteko zehaztu diren jardute ildoak, ekimenak eta ekintzak aurkezten dira.
- Seigarren kapituluak **inpaktu adierazle** batzuk jasotzen ditu. Horien helburua da Ekintza Plana ebaluatzeko esparru bat ezartzea, benetako eta hautemandako segurtasunari dagokionez.
- Zazpigarren eta azken kapituluak planaren **kudeaketa eredua** aurkezten du, haren hedapena eta garapena ahalbidetzeko, bai eta haren segimendua eta ebaluazioa egiteko ere.

## 2. ARRISKUAK ETA MEHATXUAK EUSKADIN

Euskadiko Segurtasun Publikoko Plan Orokorra segurtasunaren ikuspegi integrala aurkeztu nahi du eta, arriskuen eta mehatxuen analisiaren emaitzetatik abiatuta, helburuak eta ekintza ildoak zehazten ditu. Kapitulu honen funtsa EAEko segurtasunari bereziki eragiten dioten arriskuak eta mehatxuak zehaztea da. Horien artean, batetik, derrigorrez nahita egindakoak izan beharrik ez dutenak, eta, bestetik, nahita egindako ekintzetatik datozen mehatxuak, hala nola delituzko jarduerak, zeinak, beren izaeragatik, nahitako edo arduragabeko giza egite edo ez-egite bat eskatzen duten; izan ere, hori dela eta, arrisku antropikotzat edo, delitu informatikoen kasuan, teknologikotzat har daitezke.

Planak jorratzen dituen arriskuak eta mehatxuak hiru motatan sailka daitezke, jatorriaren arabera:

- a) **Naturalak:** gizakiaren presentziak edo jarduerak zuzenean eragindakoak ez direnak, alegia, faktore geologikoen, klimatikoen zein biologikoen eragindakoak.
- b) **Antropikoak:** giza ekintzen edo jardueren ondoriozkoak.
- c) **Teknologikoak:** garapen teknologikotik eta teknologien erabilera esanguratsutik eratorritako arrisku antropikoak.

Euskadiko Babes Zibileko Planean –LABI– jasotako arriskuen analisia eta gure autonomia erkidegoan dagoen delinkuentziaren analisia kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoaren segurtasunean eragin handiena duten arriskuak eta mehatxuak identifikatu ahal dira, botere publikoen aldetik kontrol, arreta eta prebentzio handiagoa eskatzen dutelako, gertatzeko probabilitatea nahiz ondorioen larritasuna ahalik eta gehien murrizteko. Analisi horren arabera, hauek dira Euskadiko arrisku nagusiak:

**ARRISKUA**

	NATURALA	ANTROPIKOA	TEKNOLOGIKOA
Epidemiak eta pandemiak			
Emakumeen aurkako indarkeria			
Arrisku naturalak eta muturreko fenomeno meteorologikoak			
Trafiko istripuak			
Zibersegurtasuna			
Antolatutako delitu bandak			
Drogen ekoizpena, trafikoa eta kontsumoa			
Islamismo erradikalari lotutako indarkeriazko ekintzak			
Biktima ugari eragiten dituzten istripu eta ezbeharrak			
Ekipo eta substantzia arriskutsuen jarduera industrialarekin, garraioarekin eta/edo manipulazioarekin lotutako arriskuak			
Aisialdiari lotutako indarkeria			
Bideetako pilaketak			
Bizikidetza demokratikoaren aurkako mehatxuak			
Azpiegitura kritiko eta sentikorren babesa			
Gizakien salerosketa			
Jokoarekiko menpekotasuna			
Ingurumenaren narriadura			

Ondoren, 2014-2019 ESPPOn eta 2020-2025 ESPPOn jasotako mehatxuen eta arriskuen arteko elkarrekikotasuna erakusten da.

**2014-2019 ESPPO**

**2020-2025 ESPPO**

	Epidemiak eta pandemiak
Indarkeria sexista	Emakumeen aurkako indarkeria
Uholdeak	Arrisku naturalak eta muturreko fenomeno meteorologikoak
Elurra eta izotza	
Baso suteak	
Bide ezbeharrak	Trafiko istripuak
Zibermehatxuak	Zibersegurtasuna
Delinkuentzia	Antolatutako delitu bandak
	Drogen ekoizpena, trafikoa eta kontsumoa
	Aisialdiari lotutako indarkeria



	Gizakien salerosketa
Islamismo erradikala	Islamismo erradikalari lotutako indarkeriazko ekintzak
Pilaketa handiak	Biktima ugari eragiten dituzten istripu eta ezbeharrak
Arrisku kimikoa	Ekipo eta substantzia arriskutsuen jarduera industrialarekin, garraioarekin eta/edo manipulazioarekin lotutako arriskuak
Salgai arriskutsuen garraioa	
	Bideetako pilaketak
	Bizikidetza demokratikoaren aurkako mehatxuak eta kezka soziala.
Azpiegitura kritiko eta sentikorren berezko arriskuak	Azpiegitura kritiko eta sentikorren babesak
	Jokoarekiko menpekotasuna
	Ingurumenaren narriadura

## 2.1. EPIDEMIAK ETA PANDEMIAK

SARS-CoV-2 koronabirusak eragiten duen COVID-19 arnas sindrome akutu larriaren pandemia berriak bere gordintasun osoan erakutsi du mundu globalizatu honetan epidemiek eta pandemiak maila guztietan izan dezaketean indar suntsitzailea, eta horren ondorioz, horrelako mehatxuei lotutako kritikotasunaren balorazioa errotik aldatu behar izan da.

Hartutako urruntze sozialeko neurri erradikalak gorabehera, lehen agerraldiak (2020ko negua-udaberria), Euskadin, 2020ko ekainera arte (ekaina barne) 1.400 heriotza inguru eragin ditu baieztatutako 13.500 kutsatze kasuen artean. Eragina desberdina da adinaren arabera, eta hilgarritasuna askoz handiagoa da adinekoen artean. Data berean, Espainiako Estatuan 27.000 pertsona baino gehiago hil dira eta munduan 430.000 baino gehiago, kalkuluaren arabera. Epidemiek eragin handia izan du, halaber, osasun-sisteman; izan ere, baliabide guztiak erabili ditu mehatxu ustekabe eta ezezagun bati erantzuteko.

Urruntze sozialeko neurrien ondorioz, jarduera ekonomikoa oso nabarmen murriztu da; horren ondorioz, atzeraldi ekonomikoa gertatzen ari da, hain bizkorra, ezen ez baitu aurrekaririk. Eusko Jaurlaritzaren aurreikuspenen arabera, BPGa %8,7 jaitsiko da, eta Euskadin 68.000 lanpostu suntsituko dira 2020an. Espainiako Bankuaren arabera, BPGa %13,6raino uzkurtuko da Espainiako Estatuan, eta defizit publikoa %7tik %11ra bitartean igoko da 2020an.

Urruntze neurrien ondoriozko inpaktu sozialak hartu duen tamaina ere pentsaezina zen duela gutxi. Telelana nabarmen handitu da; hala ere, Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LANE) egindako txosten baten arabera, Espainiako Estatuan langileen %7k soilik egiten dute edo egiten zuten telelana. Argi dago enpresa handiak hobeto egokituta daudela. Konfinamenduak hezkuntza jarduera ere funtsezko eran aldatu du, eta ahal den neurrian online mantentzen ari da, baina ikastetxeek paradigma horretara egokitzeko duten gaitasuna oso desberdina da. Kultura eta kirol jarduera erabat geldiarazi da. Nazioarteko aditu eta *think-tank* ospetsuenetako askok inpaktu nabarmen eta iraunkorra aurreikusten dute, askoren iritziz estrukturala izango dena, gizartean, ekonomian eta munduko ordena geopolitikoan.

2017ko Segurtasun Nazionalaren Estrategiak epidemia eta pandemia arriskua identifikatzen zuen jadanik, azken hamarkadetan identifikatutako gaixotasun berrien eta horiei lotutako arrisku egoeren kopuruak gora

egin zuelako. 2020ko COVID-19aren pandemia baino lehen, gutxienez sei alerta sanitario global identifikatu ziren, eta guztiek ere eragin handia izan zuten nazio mailan: Arnas Sindrome Akutu Larria, a/H5N1 birusagatiko gripea, a/H1N1 birusagatiko gripearen pandemia, poliobirus basatiaren nazioarteko barreiatze berria, Ebola birusaren gaixotasuna Mendebaldeko Afrikan eta Zika birusaren infekzioa. Gaixotasun infekziosoei lotutako arrisku egoeren gehikuntza hori aldaketa global azkar baten eskutik etorri da, eta gizakiak bere ingurunearekin duen harremana aldatzen ari da hainbat arlotan: biztanleriari dagokionez (tamaina eta hauskortasuna), lurzoruaren erabilera eta okupazioa, mugikortasuna eta herritarren joan-etorriak, gatatzak, salgaien garraioa eta aldaketa klimatikoa.

Euskadi, Iberiar Penintsularen eta Afrikako iparraldearen eta Europako gainerako herrialdeen arteko komunikazio bide garrantzitsu baten igarobidea den aldetik, gaixotasun bektoreen hedapena gero eta gehiago bultzatzen duen klima eta kultura sozial batekin, zahartutako biztanleria batekin eta egoera geopolitiko polarizatuarekin, ez dago gaixotasun infekzioso naturalei nahiz nahita eragindakoei lotutako mehatxu eta erronketatik libre.

Arriskuak minimizatzeko eta biztanlerian izan dezaketen eragina murrizteko, funtsezkoa da biztanleek arrisku infekziosoekiko duten zaurgarritasuna murriztea, ahal denean (adibidez, txertoen bidez), arrisku infekziosoak hedatzeko probabilitatea murriztea (adibidez, mugetan salgaiak kontrolatuz eta ikuskatuz), bai eta gaixotasunak barnean transmititzeko probabilitatea murriztea ere (adibidez, prebentziorako eta osasuna sustatzeko programa onen edo saneamendu sistema onen bidez). Hala ere, COVID-19aren pandemiak agerian utzi duenez, arrisku horiek ezin dira erabat ezabatu. Beharrezkoa da, biztanleriaren zaurgarritasuna murrizteaz gain, osasun arloko mehatxu eta erronkei aurre egiteko prestaketa eta erantzun planak garatzea, bai generikoak, bai espezifikoak. Horretarako, sektore anitzeko hurbilketa bat egin behar da, non nazio mailan zein nazioartean inplikatur dauden administrazio guztiak ondo koordinatuko direla bermatuko baita.

## 2.2. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Emakumeen aurkako indarkeria da gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunaren eta botere harremanen adierazpen krudelena. Egiturazko indarkeria da, emakumeen bizitzaren eremu guztiak zeharkatzen dituena (eskola, lana, gizartea, politika, familia, etab.) eta giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen erabilera kaltetzen duena.

Indarkeria mota honek ondorio psikologiko handiak eragiten dizkie beti indarkeria jasaten duten emakume guztiei, baita haien seme-alabei ere. Baina, gainera, emakume asko indarkeria fisikoaren biktima dira, eta, kasu batzuetan, emakumeak hil ere egiten dituzte.

Emakumeen aurkako indarkeria da euskal herritarrek gehien kezkatzen dituen arazoaren artean bederatzigarrena, delinkuentziaren eta herritarren segurtasunik ezaren atzetik. Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2015ean egindako "Emakumeen aurkako indarkeria Euskadin: herritarren pertzepzioa eta iritziak" azterlanaren arabera, EAEko herritar gehienek (%77) uste dute emakumeen aurkako indarkeriak jarraitu egingo duela gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun egoera hor dagoen bitartean. Azken urteetan, gure ingurune hurbilean, emakumeen aurkako indarkeria kasu gehiagoren berri izan dugu. Herritarren %27k diote tratatu txarrak jasan dituen emakumeren baten kasua ezagutzen dutela beren familia ingurunean, lagunartean, auzoan eta abarretan; %28k, berriz, emakume bati tratatu txarrak eman dizkion gizonairekin bat ezagutzen dute. 2004an, indarkeria mota hau jasandako emakumeak ezagutzen zituztenen ehuneko %18koa zen.

Etxeko indarkeriaren/genero indarkeriaren biktimen kopurua egonkor mantendu da Euskadin 2014tik 2018ra bitartean, 5.600 pertsona ingururekin. Hala ere, 2019a izan zen, 2002tik, bikotekideak edo bikotekide ohiak hildako emakumerik gabeko lehen urtea Euskadin. 2002tik 2018ra bitartean, 46 emakume hil dituzte guztira gure autonomia erkidegoan. Espainian, aldiz, 55 emakume hil dira bikotekideen edo bikotekide ohien eskuetan 2019an, eta hori da 2015etik izandako hildako kopururik altuena. Kalkuluen arabera, 18 eta 74 urte bitarteko Europako emakumeen %7k indarkeria fisikoa jasan du noizbait, eta %2k sexu indarkeria. Dena dela, Oinarrizko Eskubideen Europako Agentziak (FRA) Europar Batasunean emakumeen aurkako indarkeriari buruz egindako azterlan batek ohartarazten duenez, indarkeriaren biktima diren emakume gehienek ez dute jasandakoa salatzen ez poliziaren aurrean, ez delitu mota horien biktimei laguntzeko erakundeen aurrean; honenbestez, indarkeriaren biktima diren emakume gehienek ez dute sistema judizialera edo beste zerbitzu batzuetara jotzen. Izan ere, 2018an Espainian izandako 47 hildakoetatik 14k (%29,8) baino ez zuten salatu erasotzailea.

Emakumeen aurkako indarkeriaren ondoriozko biktimizazioen datuen bilakaerak goranzko joera erakusten du azken urteotan. Zalantzarik gabe, igoera hori lotuta egon daiteke, neurri handi batean, indarkeria jasan duten gero eta emakume gehiagok erakundeetara laguntza eske joatea erabaki izanarekin.

2006az geroztik, Ertzaintzak etxeko indarkeriaren eta genero indarkeriaren kasuak artatzeko prozesu bat du, UNE-EN ISO 9001:2015 Arauaren arabera ziurtatua, eta askotan aintzat hartua izan dena. 2011z geroztik, Ertzaintzak babestutako emakume bat ere ez dute hil. Gaur egun, EBA proiektuaren bidez, Ertzaintza osora sistematika komun bat zabaltzeko lana egiten ari da. Kontua da arrisku horri ahalik eta erantzunik onena ematea, izan ere, seguruena, datozen urteetan ere mehatxu handia izango da.

### 2.3. ARRISKU NATURALAK (MUTURREKO FENOMENO METEOROLOGIKOAK)

Euskal Autonomia Erkidegoak, bere eraketa geografiko eta sozioekonomikoa dela eta, hein handiagoan edo txikiagoan jasaten ditu fenomeno naturalekin loturiko zenbait arrisku egoera, zeinak gure populazioan, ondasunetan, zerbitzuetan eta baita gure ingurunean bertan ere eragin aldakorra izan dezaketen.

Epidemiei eta pandemiei lotutako arriskuak espezifikoki aztertu ondoren, arrisku naturalen artean, gure lurraldeko klimatologiarekin zerikusia duten muturreko fenomeno meteorologikoetatik eratorritakoak nabarmenduko ditugu; aldaketa klimatikoaren eraginez maiztasunean, intentsitatean eta inpaktuan areagotu egin daitezkeela aurreikusten baitugu.

Aurre egin behar diegun arrisku naturalen eta muturreko fenomeno meteorologikoei lotutakoen artean, beharrezkotzat jotzen dugu honako hauek aipatzea:

- **Uholdeak:** gure autonomia erkidegoan dagoen **arrisku natural nagusia** da. Malda handiak eta kontzentrazio denbora nahiko txikiak dituzten arro hidrologikoek, euriak eta orografiak uholde arriskua dakarten gertakariak eragiten dituzte urtero.
- **Lur lerradurak:** uholdeen arrazoi berberen eraginez.
- **Haize gogorrak:** kalteak eta/edo kontrako ondorioak ondasun eta azpiegituretan, bai eta pertsonen bizian ere, gerta daitezkeen haize indartsuen edo oso indartsuen ondorioz.
- **Elurteak eta muturreko temperatura baxuak:** herritarrengan sortzen dituzten afekzioak nabarmen handitzen dira temperatura baxu horiekin batera prezipitazioak badaude, zeinak, jakina, elurrezkoak izango baitira. Inpaktu negatibo nagusietako bat mugikortasun arazoak dira, baina oso garrantzitsua

izanik ere, ez da bakarra, herritarren osasunerako arazoak ere izaten dira-eta, beste egitura eta azpiegitura batzuei kalteak eragiteaz gain.

- **Muturreko temperatura altuek pertsonengan duten eragina:** bero boladek pertsonen osasunean eragiten dituzten ondorio kaltegarriez ari gara (kalanbreak, deshidratazioa, intsolazioa, bero kolpea, etab.). Adineko pertsonak, haur oso txikiak eta gaixo kronikoak dira zaugarrienak.
- **Lehortea:** prezipitazio eskasiaren ondoriozko afekzioak (lehorte meteorologikoa), dagoen eskaera hornitzeko behar diren baliabide hidriko nahikorik ez izatea (lehorte hidrologikoa) eragin dezaketenak.
- **Baso suteak:** Euskal Autonomia Erkidegoaren zati handi bateko baldintza klimatikoek ez dute su naturalik gertarazten, eta, beraz, zuhaitz espezieak ez daude horretara egokituta. Pertsonen jardunak –nahita zein zabarkeriaz– eragiten dituen suteak bortitzagoak eta sarriagoak badira ere, sute horiek gertatzeko aukerak lotura zuzena du ingurumenaren lehortasun baldintzekin eta material erregaiaren ugaritasunarekin.
- **Arrisku sismikoa:** EAEn nahiz gure lurraldean eragina izan dezaketen eremu mugakideetan gertatutako lurrikaren edo gertaera sismikoen ondoriozko kalteak.

Egia da multzo honetan identifikatutako fenomeno natural batzuk oso noizbehinkakoak eta apartekoak direla (adibidez, gertaera sismikoak), baina meteorologia kaltegarriarekin lotutako gertaera naturalen kasuan, EAEn baditugu horrelako fenomenoak gertatzeko maiztasuna nahiko handia dela egiaztatzen duten ikerketak eta datu historikoak, eta uholdeak, haize indartsuak eta prezipitazio handiak gertatzen dira ia urtero, irismen eta intentsitate handiagoarekin edo txikiagoarekin.

Kontuan izan behar da, gainera, arrisku horiek eragin ditzaketen fenomeno meteorologikoen tipologia, larritasuna edo jazoera aldaketa klimatikoaren eraginpean egon daitezkeela. Ildo horretan, Europako Ingurumen Agentziak egindako proiektio klimatikoaren arabera, arrisku horietako gehienek maiztasuna eta larritasuna handitu egingo dira datozen hamarkadetan Europa osoan, eta Euskadi ez da salbuespena izango.

Identifikatutako arrisku natural desberdinen ondorioak, kostu materialei dagokienez, aldakorrak izan daitezke, eta oso garrantzitsuak izan daitezke ekonomiari dagokionez eta ondasunei, jabetzei eta inguruneari berari eragindako ondorioei dagokienez. Adibide gisa eta oro har, EAEn kalkulatu da uholdeek eragindako batez besteko kaltea 91 milioi euro ingurukoa dela urtean (2015eko datua). Iturria: EAEko uholde arriskuaren aurreko Larrialdi Plan Berezia). Kalte horien erdiek, gutxi gorabehera, eraikinei eragiten diete, baita etxebizitzetara, ekipamenduetara eta industria instalazioetara ere. Gainerako kalte materialak ibilgailuekin, komunikazio bideekin eta garbiketara kostuekin eta elkartutako larrialdi zerbitzuekin lotuta daude.

Giza bizitzetara dagokienez, identifikatutako arrisku gehienek datu historikoak aztertzean pentsa genezake biktimak gertatzeko aukera faktore intzidental hutsekin lotuta egon zitekeela, baina faktore horien ondorioz inpaktu handiko gertaera natural handi bat gertatzeko aukera beti hor egoteak edo faktore horiei lotuta oinarritzeko hilkortasuna handitzeko aukera ere hor izateak (kasu batzuetan %10erainoko igoera) arrisku tipologia honen inpaktu potentziala modu esanguratsuan baloratzera garamatza.

Aurrekoaz gain, egia bada ere arrisku naturalak ez direla agertzen Euskadiko herritarren kezka nagusien artean, halakorik gertatuko balitz, herritar batzuen artean nolabaiteko alarma soziala eta informazio eskaera sor litezke.

Arrisku horiei aurre egiteko asmoz, Euskadiko Babes Zibileko Planaren barruan (LABI), larrialdi plan, protokolo eta taktika operatibo batzuk landu dira, arrisku bakoitzera egokitutako prebentzio eta zuzenketa neurriak ezartzeko, bai eta beharrezko bitartekoak eta tartean dauden erakundeak identifikatzeko ere; gainera,

larrialdietan erakundeon artean modu koordinatuan jarduteko sistematikak eta abar landu dira, eta hainbat erakunde eta agentziarekin (URA, foru aldundiak, partzuergoak...) aktiboki kolaboratzen da arrisku potentzialen zaintzaren eta aurreikuspenaren arloan (adibidez, ibaien eta prezipitazioen zaintzaren arloan).

Garatzen ari den lan ildo gisa, LAEMZ lanean hasi da espero diren inpaktuak kategorizatzeke eta arrisku horietako batzuk aztertzeke, horiei aurre egin ahal izateko. Hala, eraginkortasun handiagoa lortu nahi da larrialdi eta gertaera desberdinetarako aurreikusitako neurrien hedapenean. Ildo horretan, beharrezkoa da datuak lantzen eta adierazleak, arrisku faktoreak eta abar definitzen jarraitzea, espero diren inpaktu horiek zehaztu ahal izateko eta, ondorioz, kasu bakoitzean egiten den arrisku ebaluazioaren arabera egin beharreko jarduerak zehazteko.

## 2.4. TRAFIKO ISTRIPUAK

Zirkulazio istripuak gizarte modernoaren osasun publikoko arazoetako bat dira gaur egun, eta Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, gero eta garrantzi handiagoa izango dute etorkizunean.

OMEren arabera, trafiko istripuek 1,35 milioi pertsona baino gehiago hiltzen dituzte urtero munduan (3.700 pertsona egunean), eta horietatik %90 baino gehiago diru sarrera txikiko eta ertaineko herrialdeetan gertatzen dira. Trafiko istripuak dira 5 eta 29 urte bitarteko haurren eta gazteen heriotza kausa nagusia. Proiekzioen arabera, 2020 eta 2030 bitartean mundu osoko trafiko istripuek 500 milioi heriotza eta lesio eragingo dituzte. Istripuok osatzen duten epidemia eta krisi hori prebenitu egin daiteke, eta, horretarako, konpromiso politiko esanguratsuagoa eta ekintza gehiago beharko dira, maila guztietan, hurrengo hamarkadan.

Arrisku honen tamaina hain da handia maila globalean, ezen Nazio Batuen Erakundeak onartutako **Garapen Jasangarriari buruzko 2030 Agendaren** Garapen Iraunkorrerako Helburuen (GIH) artean ere aurreikusten baitira bide segurtasunaren arloko jarduketak. GIHak betetzea transbertsala den arren, 3.6a (2020rako, munduko zirkulazio istripuek eragindako heriotzen eta lesioen kopurua erdira jaistea) eta 11.2a dira (2020tik 2030era bitartean, guztientzat seguruak, eskuragarriak, irisgarriak eta jasangarriak diren garraio sistemak erabiltzeko aukera ematea eta bide segurtasuna hobetzea, bereziki garraio publikoa zabalduz, arreta berezia jarritz zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen, emakumeen, haurren, desgaitasunen bat duten pertsonen eta adineko pertsonen beharrezan) bide segurtasunari zuzenean eragiten dioten helburuak eta helmugak.

Euskadin, 2019an, 51 zirkulazio istripu hilgarri gertatu dira guztira (Ertzaintzak 41 erregistratu ditu eta udaltzainek 10); ondorioz, 51 pertsona hil dira (41, Ertzaintzak erregistratutako istripuetan, eta 10, udaltzainek erregistratutakoetan) berehala edo lehen 24 orduak igaro aurretik. Guztira, iaz baino hamabi zirkulazio istripu hilgarri gehiago izan dira 2019an, eta bederatzi pertsona gehiago hil dira. EAEn biktimak eragin dituzten istripuen %70ean hiru faktore biltzen dira: distrakzioak, alkoholaren eta/edo drogen kontsumoa eta abiadura desegokia. Ildo horretan, garrantzitsua da 2019ko istripu tasari buruzko zenbait datu kontuan hartzea:

- Hildakoen %71 gidariak dira (%44 motorren gidariak, %53 turismoenak edo beste ibilgailu batzuenak eta %3 bizikletarenak), %4 bidaiariak (denak ere automobileko bidaiariak) eta gainerako %25 oinezkoak (hamahiru pertsona lau gurgpileko ibilgailuek harrapatuta).
- Hildako 51 pertsonetatik %58,82 (30), kolektibo zaurgarrietakoak dira. 2019an 16 motor gidari, txirringidulari bat eta 13 oinezko hil ziren. 2018ko datuekin alderatuta, 8 pertsona gehiago hil dira.
- Hildakoen %86 gizonak dira, eta gainerako %14 emakumeak. Desoreka hori are nabarmenagoa da gidarien artean: %90 turismoetan, eta motorretan hildakoen %100 gizonak dira. Bidaiariak kontuan hartzen baditugu, orekatuta dago, %50 gizonak baitira, eta %50 emakumeak. Harrapatutako pertsonen ehunekoetan, antzera: %62 gizonak dira eta %38 emakumeak.

- 2019an hildako pertsonen tipologiari dagokionez, 2018an hildakoen tipologiarekin alderatuta, gidarien (+6) eta oinezkoen (+6) pisuak gora egin du, nahiz eta bidaiariena txikitu egin den (-3).
- Euskadin, zirkulazio istripuak dira 30 urtera arteko lehen heriotza kausa, 40 urtera arteko hirugarrena eta 50 urtera arteko hamargarrena.

Euskadin, Bide Segurtasunerako eta Mugikortasun Seguru eta Jasangarrirako 2015-2020 Plan Estrategikoak (2020 BSMSJPE) jarduera-ildoak ezarri ditu, Euskadik mugikortasun seguru eta jasangarriaren bidetik aurrera egin dezan. Zirkulazioaren kudeaketaren eta bide segurtasunaren arloko 5 helburu estrategiko eta 21 helmuga zehaztuta, plan hau helburu argi batekin definitu zen: EAEko errepideetako istripu tasa are gehiago murrizten jarraitzea, azken urteotan euskal gizartean bide segurtasunaren eta mugikortasun seguru eta jasangarriaren arloan gertatzen ari den aldaketa kultural progresiboa sendotuz.

Aldaketa hori beheranzko joera orokor bat finkatzen hasi da Euskadin, istripu tasari dagokionez. Mende hasieran gure kale eta errepideetan 200 pertsona baino gehiago hiltzen ziren; gaur egun, berriz, 50 pertsona inguru hiltzen dira. Hala ere, joera hori gorabehera, argi dago oraindik bide luzea dagoela egiteko erantzukizun partekatuko zeregin honetan. Izan ere, azken urteotan egonkortu egin da istripu tasaren murrizketa.

Bestalde, teknologia berriek hiriarteko trafikoaren kudeaketa aurreratua bultzatu dute, eta, aldi berean, hiri mugikortasunean aldaketak eragin dituzte, oinezkoen joan-etorrietarako soluzio berriak agertu baitira oinezkoen/ibilgailu motordunen banaketa tradizionala hausten duten ibilgailu eredu berrien laguntzarekin. Ibilgailu horiek, MPI izenekoak (Mugikortasun Pertsonaleko Ibilgailuak: patinete elektrikoak, segway-a, hoverboard-a), kasu batzuetan, pertsonen baino masa handiagoa dute, oinezkoek baino abiadura handiagoan mugitzen dira, eta arrisku egoerak sortzen dituzte hiri espazioa gainerako erabiltzaileekin partekatzen dutenez gero. Errealitate berri horrek kudeaketa eta kontrol jarduera berriak eskatzen ditu.

## 2.5. ZIBERSEGURTASUNA

EAEn, 2013tik 2019ra bitartean, delitu informatikoeak %283 egin dute gora, eta 2019an, guztira, 14.311 delitu erregistratu dira. Horietatik %93 iruzurrak dira (13.298). Delituen rankingeko bigarren lekuan "nortasunaren usurpazioak" daude (delitu desberdinak biltzeko modu generikoa): 295 kasu; bai eta mehatxuak eta derrigortzeak ere, 293 gertakarirekin. Horietako bakoitza %2 baino ez da.

Enpresei zuzendutako delitu jarduera nagusiak *Business Email Compromise* delakoari lotutakoak izan dira (batzuek "gizakia ingurunean" esaten diote); hau da, biktima baten posta kontuan sartzea eta fakturak aldatzea, fakturok delitugileen titulartasuneko kontuetan ordain daitezten. Hor dago, baita ere, CEO faltsuaren iruzurra, non enpresaren arduradun baten identitatea ordezkatzan duten menpeko batek dirua delinkuentzia sareari transferitzea lortzeko. Eta, azkenik, *Ransomware* delakoa; teknika hori honetan datza: ordenagailuen edukia zifratzean, ordenagailuok erabilezin bihurtzean eta, berreskuratzeko, *bitcoin*-etan ordaintzea eskatzean. *Emotet* delakoak garrantzi berezia izan du bere ezaugarri berritzaileengatik; izan ere, biktimaren disko gogorra zifratzeaz gain, alde aurretik erabiltzaileen posta elektronikoak eta helbide agenda atera eta delitugileei birbidaltzen zizkien. Kanpaina honen helburu nagusiak erakunde publikoak izan dira.

Europa mailan egindako lege aldaketaren ondorioz, banku erakundeek faktore bikoitzeko autentifikazio neurriak hartu zituzten. Horren ondorioz, mekanika komisibo berri bat sortu da: telefono baten *SIM* txartela bikoiztea, gaizkileek transferentzia bat egiten dutenean bankuak baimen kode bat bidal dezan delitugilearen –eta ez biktimaren– esku dagoen txartel berrira. Aldez aurretik bankuko kredentzialak eskuratu behar izan dituzte.

Bai estatuko bai nazioarteko analistek ondo haztaturik dituzten delituak, hala nola estatu erasoak eta eskala handiko zibererasoak, ez dira gure gizartean islatzen, ez direlako gertatzen edo ez direlako detektatzen.

Hedabideetan garrantzi handia izaten ari den jarduera bat "eragin ekintzena" da. Ekintza horien bidez, kanpoko eragileak beren interesekin bateragarriak diren giro jakin batzuk sortzen saiatzen dira, *fake news*-ak erabiliz eta horiek sare sozialetako *bot*-en bidez hedatuz. Ekintza horiek intentsitate berezia dute hauteskunde prozesuak hurbiltzen direnean.

Euskadiko gizarte industrialak duen beste arrisku bat ekoizpena digitalizatzeko prozesua da; izan ere, isolatuta egoteko diseinatutako fabrikazio sareak Internetera agertzea ahalbidetzen du prozesu horrek. Digitalizazio hori behar bezala egiten ez bada, enpresa horien esposizioa arriskutsua izan daiteke behar bezala funtzionatzeko, erasoan aurrean zaugarri bihurtzen baitira.

Eusko Jaurlaritzak, egoera berri horrekin sentibera izanik, *Basque Cyber Security Centre*-a sortu zuen. 2018ko uztailaren 18an inauguratu zen ofizialki, eta denbora errekorrean lortu zuen *FIRST*-era atxikitzea (munduko CERT nagusiak biltzen dituen erakundea da, baldintza zorrotzak bete behar dira bertan sartzeko; zentroak bikaintasunez gainditu zituen baldintza horiek).

Azkenik, *IoT* gailuak agertu dira (Gauzen Internet), eta horri esker, gailu asko eta asko konektatu dira Internetera eta elkarrekin erlazionatu ahal izan dira. Horrek esan nahi du erabiltzaileei buruzko informazioaren joan-etorri izugarria dabilela, eta, informazio hori behar bezala babesten ez bada, gure intimitateari buruzko datu asko eskura daitezkeela. Hor dago, esaterako, web batekin konektatzen diren pultsometroen kasua. Bertan, ibilbideak, pultsazioak, datu medikoak eta abar biltegitratzen dira, eta horietara sartzeko nahikoa da erabiltzailea eta pasahitza izatea.



Prebentzioari dagokionez, onartzen da estamentu guztietatik egin beharko litzatekeen ekintza nagusia arrisku teknologikoen inguruan gizartea kontzientziatzea eta prestatzea izan beharko litzatekeela. Kasu gehienetan, erabiltzaileek berek ahalbidetzen dituzte erasoak. Neurri teknologikoak lagungarriak dira, baina alferrikakoak erabiltzaileen parte hartzerik gabe.

Bestalde, ikerketari dagokionez, legeak arintzen saiatu beharko litzateke, delinkuentziaren aurka eraginkorrago jardun ahal izateko, polizien eta epaileen arteko lankidetzaz sustatuz.

Eta, azkenik, ikertutako gaizkileak anonimotasunetik ateratzea ahalbidetuko duten tresnak garatzea, batez ere ezkutuan egoten laguntzen dieten teknologiak erabiltzen dituztenean, hala nola *Deep* eta *Dark Web*-a darabiltenean.

## 2.6. ANTOLATUTAKO DELITU BANDAK

Talde kriminal bat halakotzat jotzeko, delituak behin eta berriz egiten dituzten bi pertsona baino gehiago elkartzea besterik ez da behar.

Datu estatistikoaren arabera, delinkuentzia egitura horrek eragin handiagoa izan lezake EAEn. Estatuko eta nazioarteko erakunde kriminalak osatzen dituzten delitu taldeek maiz bisitatu gaituzten arren, haien presentzia behin-behinekoa da, eta gaizkile horiek oso gutxitan finkatzen dira gure lurraldean. Hala ere, talde horietako kide batzuk, normalean herri handietan bizi direnak, laguntzaile logistiko eta erakundeko beste kide batzuentzako informazio hornitzaile gisa jarduten dute.

Halako taldeen ekintzek gehien jotzen duten eremua ondarearen aurkako delituen eremua da, eta iritzi publikoarentzat bereziki kezagarriak dira bizilekuen barruan egiten direnak, aldaera guztiekin. Urtean milaka salaketa egin dira EAEn halako gertakariengatik.

Hala, esan dezakegu etxebizitzetan egindako lapurreta gehienak talde kriminal ibiltariak egiten dituztela.

Gaur egun sekulako kasu piloak duen beste delitu mota bat "besarkada solidarioa" da, poliziek "lapurreta maitagarria" eta bestelako izenez izendatzen dutena. Lapurreta mota hori adineko pertsonen babesgabatasunaz baliatzen da bitxiak eta dirua ebastea.

Industrialdeetako enpresak edo biltegiak helburu dituzten indarrezko lapurretak etengabeak izan dira azken hamarkadetan, eta, normalean, denetariko talde antolatuek egin dituzte. Hala, sofistikazio tekniko handiagoko lapurretak dauzkagu, kutxa gotorrak helburu, talde kriminal antolatuek eginda, kasu askotan kobrea edo txatarra bilatzen dutenak. Besterik badirudi ere, askotan bigarren lapurreta mota horrek eragiten ditu kalte handienak industrian, zuzenean eragiten baitie ekoizpen prozesuei.

Era berean, esanguratsuak dira enpresetan lapurketak egiten dituzten talde kriminal ibiltari espezializatuek. EAera etortzen dira eta lapurreta gauzez egiten dute, ondoren beren bizilekura itzultzeko. Aldez aurreko plangintza eta helburuen hautaketa duten delituak dira, eta normalean zulozileak eta kutxa gotorrak irekitzeko espezialistek egiten dituzte.

Esan daiteke indarkeriaz edo larderiez egindako lapurretak ez direla nabarmenen artean ageri, ez kuantitatiboki ez kualitatiboki, are gehiago estatuko edo Europako beste lurralde batzuekin alderatuz gero.



Zalantzarik gabe, kriminalitate antolatuaren panorama berri bat azaleratzen ari da honako hauen babesean: egituren eta metodoen dibertsifikazioa; talde ibiltarien ugaritzea; teknologia berrien erabilera geldiezin; negozio eredu kriminal berriak; mehatxu hibridoak; aldaketa demografikoak; migrazio fluxu irregularrak eragiten dituzten nazioarteko desoreka ekonomiko, politiko eta sozialak; gatazka armatuak; pobrezia eta bestelako egoerak. Azken batean, krimen antolatuaren transnazionalitatea eta delinkuentzia larria gero eta faktore nabarmenagoa da. Mehatxu horren aurka modu eraginkorrean borrokatzeak intelijentzia trukea eta koordinazio operatiboa maila guztietan areagotzen jarraitzea eskatzen du, hala Estatuan nola nazioartean.

Delinkuentzia antolatuaren aurrean, honako hauek dira polizia zerbitzuek dituzten erronkak:

1. Erakundeen arteko lankidetzaren areagotzea, bai nazioan, bai nazioartean.
2. Espezializazioa-profesionalizazioa. Baliabide teknologiko erabilgarriak.
3. Zerbitzu integralak, Intelijentziaren eta ikerketa operatiboen arteko harremana hobetzeko.
4. Neurri penalak eta administratiboak egokitzea.

Bestalde, EAEko urteko delituen zenbaketan eragin nabarmenik ez duen arren, droga trafikorekin lotutako delituetan, antolatutako taldeen indarkeriazko jardura ere hor dago. Intzidente batzuetan benetako suzko armak erabili dira; halakoetan zaurituak eta inplikaturako pertsonen desagerpenak izan dira, eta orain arte ezin izan da zehaztu benetan zer gertatu den. Gehienetan, taldeek bai EAetik kanpoko drogak ekartzen dituzte, bai beste delitugile talde batzuei droga lapurtzen diete, eta, ondorioz, haien arteko indarkeria areagotzen dute.

## 2.7. DROGEN EKOIZPENA, TRAFIKOA ETA KONTSUMOA

Debekatutako substantzien ekoizpena eta trafikoa dira jazarri beharreko delituak. Hala ere, drogaren kontsumoa osasun publikoko arazo bat da, eta hainbat arlotatik landu behar da, segurtasun arloaz gain: osasuna, zerbitzu sozialak, hezkuntza, kultura, gazteria, kirola, laneko osasuna, eta beste asko, Adikzioei buruzko Euskadiko VII. Planean jasotzen den bezala.

Euskadin kalamuaren kontsumoa Europako altuenen artean dago oraindik, eta egoera horrek bereziki kezkatzen ditu izurri horren hedapenarekin zerikusia duten erakunde guztiak. Legez kanpoko beste droga batzuen kasuan, badirudi finkatu egin dela kontsumoen prebalentziaren beherazko joera 2004tik. Zehazki, kokainaren, estasiaren eta LSDaren kontsumoaren prebalentzia %80 - %90 jaitsi da azken aldian. Aldiz, kalamu bidezko tratamenduak garrantzi erlatiboa handitu du: 2008an tratamendu eskaeraren %8 zen, eta 2015ean, berriz, %19.

Kalamuaren kontsumoaren kaltegabetasunari eta zigorgabetasunari buruzko pertzepzio gero eta hedatuagoak bat egin du kontsumitzaile talde eta elkarteek bultzatzen duten dinamikarekin, zeinak, aukera gisa, modu arduratsuan kontsumitzeko eskubidea aitortzea aldarrikatzen duten, indarrean dagoen legeriarekin talka eginez.

Ertzaintzak Plan Estrategiko bat egin du drogen arloan, "Osasuna Segurtasunez Eraikiz" izeneko, eta Jarraipen Batzorde Egonkor bat sortu da, osasun publikoaren ikuspegiarekin eta honako gai hauei buruzko orientazio transbertsalarekin: legez kanpoko drogekiko tolerantzia soziala txikitzea, legez kanpoko drogen eskuragarritasuna mugatzea, indarrean dagoen araudia eraginkortasunez betetzea bultzatzea.

Plan honen ardatzak honako alderdi hauetan kokatzen dira:

- **Prebenitu:** diagnostikoa-prestakuntza-hedapena-gauzapena.
- **Jazarri:** marihuana landaketak zigortzeko, ikertzeko eta eraisteko prozedura aplikatzea.
- **Eragin:** planaren segimendua - emaitzen neurketa - koordinazioa eta lankidetzeta.

Legez kanpoko substantziak gure erkidegoan sartzeko bideak aldatu egiten dira droga motaren arabera, eta urteetan zehar EAE xede duten hainbat leku detektatu dira, jatorria Espainiako Estatuan nahiz atzerrian dutenak. Ondoko taulan, EAEn droga sartzeko aurkitu diren jatorri eremuak eta bideak adierazten dira:

#### DROGA MOTA

KOKAINA

HEROINA

SINTETIKOAK (SPEEDA, ANFETAMINA, ETAB.)

MARIHUANA

#### JATORRIA

KOLONBIA, SAHARAZ HEGOALDEKO HERRIALDEAK, PERU, MADRIL, GALIZIA

HOLANDA (HERBEHEREAK), BELGIKA, MADRIL

HOLANDA (HERBEHEREAK), BELGIKA, MADRIL

EAE (BERTAKO LANDAKETAK)

Debekatutako substantzien garraibide erabilienetako bat errepede bidezkoa da; horri dagokionez, EAEn zehar joan-etorri handia detektatu izan da urteetan. Zirkulazio gehiena Europarantz egiten da, nahiz eta Europatik estatuko gainerako lekuetara ere egiten den. Horretarako, bide nagusiak erabiltzen dira, hala nola AP8a edo N-1a, eta horrek kontrola zailtzen du, oso zirkulazio handia baita.

Itsas garraioa da delinkuentzia antolatua gehien erabiltzen dituen sarbideen arteko beste bat: Pasaiaiko portua eta Santurtziko portua.

Substantzien ekoizpenari dagokionez, *indoor* eta *outdoor* (kanpoan) marihuana landaketek nabarmen egin dute gora, bai bertako kontsumorako, bai Erresuma Batura, Irlandara, Eskoziara eta Herbehereetara esportatzeko.

## 2.8. ISLAMISMO ERRADIKALARI LOTUTAKO INDARKERIAZKO EKINTZAK

Islamismo erradikala eta terrorismo islamista erronka bat dira estatuentzat, Europak dituen eskubide eta askatasun askori desafio egiten dien eredu bat proposatzen –eta, ahal dutenean, inposatzen– baitute. Baina fenomeno hori, globaltasun gisa, ezin da mugatu bere jarraitzaileen zati txiki batek egiten dituen indarkeriazko ekintzetara. Egia da ekintza horiek oihartzun mediatiko handia dutela eta, batzuetan, hildakoak eragiten dituztela, baina islamismo erradikalaren irismenak jarduketa espektro handiagoa hartzen duen proiektio bat du.

Izan ere, mehatxu honen benetako garrantzia proposamen erlijioso baztertzaille batetik sortzen da, legimitate islamikoa beretzat bakarrik hartzen duena, erlijioaren praktika tradizionala zokoratuz eta praktikatzen dutenak kondenatuz. Musulmanei jasanarazten zaien hertsadura multibektoriala da, eta herrialde islamiar intoleranteen babesa du, herrialde horiek proselitismoa darabilte–eta beren ideiak zabaltzeko; gainera, herrialde islamiar moderatuen babesa ere hor dago, izan ere, horien azken helburua zera da: beren migranteak ez txertatzea joaten diren lekuetako gizarteetan, eta horrela, beren menpekoen gainean daukaten kontrolari eustea.

Mehatxu honen arriskua sendoagoa bihurtzen da eta handitu egiten da liskarra pizten duten zirkunstantziak gertatzen direnean, hala nola etorkinen bazterketa soziala eta islamofobia; hala, indartu egiten da islamiarrak ez diren gizarteetan integratzeko oztopoak jartzen dituzten eragileen narratiba. Testuinguru horretan, atentatu islamistek "bonba katalizatzaile" gisa jarduten dute martxan dauden prozesu sozialetan, integrazioa oztopatuz eta nahi ez diren muturreko erreakzioak eta erreakzio islamofoboak sortuz; ondorioz, narratiba erradikal hori elikatu besterik ez da egiten, musulman asko egoera bereziki zaugarrietan kokatuz.

Islamismo erradikalaren estrategia ulertu ondoren, Segurtasun Sailak politika aktiboen aldeko apustu irmoa egin zuen, haren ondorioak neutralizatzeko. Horren ondorioz, 2015ean, Ertzaintzak **Islamismo Erradikalaren aurkako Plan Estrategiko** bat bultzatu zuen. Plan horrek delituaren ikerketaren eta inteligentziaren alorrean jada lantzen ari ziren ekimenak biltzen, zabaltzen eta kohesionatzen zituen, erradikalizazio prozesu posibleak detektatzeko eta neutralizatzeko. Plan horren barruan, prebentzio ekintzak lehenetsi eta sustatu ziren, komunitate islamikoekin etengabe hitz egitea, bakarrik dauden adingabe atzerritarrekin lan egitea eta kolektibo musulmanaren arazoak detektatzea eta artatzea helburu, arazo horiek arriskutsuak izan baino lehen.

Segurtasun Sailaren ekimen hori eredu izan zen 2017an Eusko Jaurlaritzak sailen arteko lan mahai bat osa zezan, muturreko islamismoaren fenomenoari begirada transbertsalarekin heltzeko. Horren emaitza izan zen 2018an **Eusko Jaurlaritzak euskal komunitate islamiarrarekin batera bizikidetzatza sustatzeko jarduerak programa** argitaratu izana. Programa horretatik sortu zen **ADOS Aholku Batzordea**, euskal komunitate islamikoaren ordezkariak eta Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat erakundetako kideek osatua, Segurtasun Saila barne. Batzorde horrek komunitate islamikoak barne hartzen dituzten planak garatu ditu, bai Islama babesten duen esparru juridikoa gauzatzeko, bai haien erlijioa Euskadiko alor soziokulturalean behar bezala txertatzeko.

## 2.9. BIKTIMA UGARI ERAGITEN DITUZTEN ISTRIPU ETA EZBEHARRAK

Biktima Anitzeko Gertakariak (BAG) honela definitzen ditugu: kaltetutako pertsonen kopuru handia eragiten duten gertakariak, zonaldearen (eskualdea edo osasun eremua) asistentzia gaitasuna gairiditu ez, baina hasieran asistentzia premien, logistika premien, antolaketa premien eta normalean operatiboak diren baliabideen artean desproporzioa dakartenak (kuantitatiboa eta/edo kualitatiboa).

Halako gertakarien artean sartzen dira ibilgailu ugariaren arteko istripuak eta/edo istripua izan duten autobus, tren, itsasontzi eta aireontziak, non kaltetu ugari izan diren: hildakoak, zaurituak eta/edo harrapatuta geratu direnak.

Aipatu berri ditugun BAG horiez gain, pertsonen pilaketa handiei loturiko arriskuak ere sartu ditugu atal honetan. Jakin badakigu arrisku mota honek ez duela zerikusirik garraio bideetako istripuekin, baina halakoren bat gertatzen denetik aurrera antzeko inpaktuak gerta daitezke biktimen eta eragindako pertsonen kopuruari dagokionez, eta kasu bakoitzean gauzatu beharreko jarduerak antzekoak izan daitezkeenez, taldekatze hori planteatu dugu.

Halako istripuei buruzko datu historikoei erreparatuz gero, gertatzeko probabilitatea oso-oso txikia da. Bestalde, jende pilaketekin lotutako arriskuei dagokienez, aurreikus dezakegu datozen urteetan gero eta ekitaldi handi gehiago antolatuko direla gure lurraldean, eta pertsona ugari bilduko dituzten azpiegiturak erabiliko direla.

Nolanahi ere, arrisku horiek kontuan izan behar ditugu, inpaktu handiak izan ditzaketelako, batez ere holako gertakari potentzial baten biktimekin erlaziorik baten izateagatik kaltetutako giza bizitza eta pertsonengatik, bai

eta mota honetako ekitaldiek gizarte osoan sortzen duten alarmagatik ere. Bestalde, kontuan hartu behar dira, gainera, istripuari berari lotutako kalte ekonomikoak eta materialak, bai eta biktimak eta kaltetuak erreskatatzeko eta artatzeko beharrezkoak diren ahaleginak ere, desgaitasunen bat duten biktimei dagokienez bereziki.

Biktima anitzeko gertakari bat gertatzeko aukerak berekin dakar larrialdien arloan hainbat erakundek modu koordinatuan jardutea eta honako hauetara bideratutako bitartekoak eta baliabideak erabiltzea:

- Biktimak erreskatatu eta artatzea
- Gertakariaren ondorioak arintzea
- Biktimekin zerikusia duten pertsonen (senideei) arreta eta informazioa ematea
- Hedabideei eta, oro har, herritarrei informazioa ematea, halako gertakariak izaten duten eragin sozial handia dela eta.

Gaur egun, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza istripu aeronautikoa gertatzeko arriskuari aurre egiteko plana prestatzen ari da. Plan horren helburuen artean, biktimentzako eta senideentzako arreta psikosoziala modu egokian landu beharra jasotzen da; horrek eskatzen du psikologia zerbitzuekin eta zerbitzu sozialekin koordinatzea, kontuan harturik Zuzendaritza horretako teknikariei dagokiela biktimei eta senideei arreta ematea. Plan honetan definitutako operatibak biktima anitzeko beste gertakari batzuetara estrapolatzeko modukoak izango lirarteke, aparteko gertakari bortitzak barne.

Pertsonen pilaketekin zerikusia duten arriskuei buruz hartu beharreko neurriak dagokienez, aplikatzekoa den araudiak ezartzen du pilaketa horiek sortzen dituzten ekitaldien titularrek *ad hoc* planak zehaztu behar dituztela, publikoak zein pribatuak izan. Alor horretan, gaur egun plan horiek kontrolatu eta onartu egiten dira, eta horiei buruzko informazioa LAEMZen sistemetan integratzea da landu beharreko alderdi bat, kudeaketa eraginkorragoa izan dadin.

## 2.10. EKIPU ETA SUBSTANTZIA ARRISKUTSUEN JARDUERA INDUSTRIALAREKIN, GARRAIOAREKIN ETA/EDO MANIPULAZIOAREKIN LOTUTAKO ARRISKUAK

Industria garrantzi handiko jarduera ekonomikoa da EAEn, izan ere, hainbat gune geografikotan daude presente pertsonen bizitzarako eta ongizaterako, haien ondasunetarako eta jarduera horiek kokatuta dauden ingurunerako arrisku teknologikoak dakartzaten ekoizpen prozesuak. Arrisku teknologiko horiek askotarikoak izan daitezke, eta aipatzekoak dira erabilitako produktuen nolakotasunarekin edo ekoizpen prozesuen ondorioekin zerikusia duten arriskuak, bai eta bereziki arriskutsuak diren ekipo eta materialak behar bezala ez erabiltzearekin, manipulatzerekin edo kentzearekin lotutakoak ere.

Aurrekoaz gain, gure lurraldea komunikazio ardatz garrantzitsua da iberiar penintsularen eta Europaren arteko ardatz atlantikoan. Horrek esan nahi du karga asko garraiatzen direla gure errepide eta trenbide sareetan, bai eta itsasotik ere. Hori hala, nabarmentzekoa da, istripu kasuetan izan dezaketen inpaktuengatik, arriskutsutzat jotzen diren substantzia kimikoak garraiatzea edo erregai gisa erabiltzea.

Hori guztia kontuan hartuta, aintzat hartzekoak dira jarduera horiekin zerikusia duten zenbait segurtasun arrisku:

- **Seveso Zuzentzarauaren menpe dauden industrietako arriskuak:** istripu larriei lotutako arriskuak dira, eta beren jardueran Europako zuzentzari horren menpe dauden substantzia arriskutsuak erabiltzen, fabrikatzen eta biltegitratzen dituzten enpresetan izaten dira, baldin eta tartean gizakien osasunean, ondasunetan eta ingurumenean ondorio potentzialak izan ditzaketen substantzia arriskutsuak badaude.
- Salgai arriskutsuak errepidez eta trenbidez garraiatzean izandako istripuak, garraiatzen den zama kaltetu dezaketenak.
- **Itsas kutsadura:** isurketak eragin ditzaketen istripuen ondorioz; portu eta/edo industria instalazioetan izandako istripuzko kutsaduraren ondorioz; itsas jatorriko kutsadura fokuen ondorioz (salgaiak garraiatzeagatik edo petrolio erauzketagatik), etab.
- **Arrisku erradiologikoa:** pertsonen osasunari/bizitzari edo instalazio erradioaktiboekin eta/edo material erradioaktiboaren presentziarekin lotutako ondasun eta zerbitzuei eragin diezaieketen gertakariak jazotzeko aukera.

Egia bada ere, historikoari erreparatuta, halako istripuak gertatzeko probabilitatea txikia edo oso txikia dela, gerta litezkeen inpaktuak hain dira askotarikoak eta larriak, ezen arrisku horiek garrantzitsutzat hartu behar ditugun.

Atal honetan nabarmentzekoa da Seveso enpresetan izandako istripuekin lotutako biktima zuzenen eta kaltetutako pertsonen potentzialtasuna (handia definizioz), baina egia da jardueraren eta prebentzio neurrien arauketa zorrotza, larrialdi planak eta inplikaturako erakundeen kontrol lana inpaktu horiek murriztera bideratuta daudela.

Aipatzekoak dira, hala berean, gertakari horiek kostu ekonomikoetan izan ditzaketen inpaktuak (eragindako azpiegiturretan edo arreta emateko, arintzeko eta leheneratzeko jarduerekin zerikusia dutenetan), istripuaren ingurunean izan ditzaketen ondorioak, eta halako gertakariak herritarren artean sortzen duten alarma soziala eta informazio eskaera.

Arrisku horiei aurre egiteko, LAEMZek hainbat plan espezifiko eta kontrol eta segimendu jarduera egin ditu. Hona hemen:

- **Salgai arriskutsuen errepideko eta trenbideko garraioan istripuak gertatzeko arriskuari aurre egiteko** Babes Zibileko Oinarrizko Gidalerroari jarraituz, Larrialdi Plan Berezi bat egin zen gai horiek lantzeko.
- Bestalde, administrazioak **Seveso zuzentzaruari loturik dauden enpresen** kanpo planak kontrolatzen ditu. Urtero kontrol kanpainak egiten dira, baina mahai simulazioak maizago egin beharra identifikatzen da.
- **Iturri erradiologikoei lotutako arriskuari** dagokionez, Euskadik mota horretako materialak eta ekipoak dituzten instalazioen edo enpresen zerrenda eguneratuak ditu. 2015ean, EAEko arrisku erradiologikoari aurre egiteko Larrialdi Plan Berezia onartu zen. Plan horretan, arrisku egoera desberdinak identifikatu eta kategorizatu ziren, eta kasu bakoitzean beharrezkoak diren prebentzio, zuzenketa eta informazio neurriak ezarri ziren, bai eta inplikaturako erakundeen artean jarduteko eta koordinatzeko jarraibideak ere.
- Azkenik, Sailak egindako eta 2019an argitaratutako Itsasertza Planak prozedura operatibo bat ezartzen du, eta, bertan, prebentzio, komunikazio, zaintza eta jardute neurriak jasotzen dira, **itsasoko kutsadura** arriskuari aurre egiteko beharrezkoak direnak.

## 2.11. AISIALDIARI LOTUTAKO INDARKERIA

Ertzaintzaren datuetatik abiatuta, EAEko lesioen eta Indarkeria eta Beldurra erabiliz egindako Lapurreten (IBL) %50 gutxi gorabehera, asteburuetan gertatzen dira; horien artean, nabarmentzekoa da lesioen %60 aisialdiarekin lotutako inguruneetara lotuta daudela, bai eta IBLen %75 ere.

EAEan aisialdiarekin lotutako indarkeriatik eratorritako bat sexu indarkeria da. Ildo horretan, sexu askatasunaren aurkako delituak eta, zehazkiago, sexu erasoak ia etengabe hazi dira, asteburuetan eta aisialdiko testuinguruetan batez bestekoa baino ehuneko handiagoan hazi ere. Hala, premiazkoa da indarkeria mota horren izaera estruktural eta sistemikoa desagerraraztea.

### ADINGABE ARAU HAUSLEAK ETA GAZTE TALDEAK (GABTB – Gazte Antolatu eta Biolentoen Talde Berriak)

Adingabeen delitu jarduna, 2019an aisialdiarekin lotuta zegoena, ekintza guztien %5 da. Delitu mota nagusiak ebasketak, lesioak, kalteak eta IBLak izan dira, zeinak ekintza guztien %3 eta %9 bitarteko tartean dauden; beraz, eragin mugatua daukate.

Gazteen –horietako asko adingabeak– gaizkile taldeetako (GABTB) kideek aisialdian egindako ekintzak, berez, talde horiek egindako legez kontrako ekintza guztien %19 dira. Ekintza horien artean, honako hauek nabarmentzen dira: lesioak (%22,7), istiluak (%21,4), mehatxuak (%14,4) eta IBLak (%9,4).

Bizkaiko Lurralde Historikoan biltzen dira halako gertakari gehienak, eta Bilbon eta Erandion kokatutako aisia establezimendu batzuetan (Bilbon, Fever eta Living, adibidez; eta Alma Sonora Erandion) erregistratu dira indarkeriazko gertakari gehien. Era berean, udalerrri eta auzoetan ospatzen diren herriko jaietan, batez ere udan, gazte talde biolentoei eragindako istilu bortitz ugari gertatu dira.

Legez kontrako gertakariak, gehienetan, ostiraletik igandera bitartean izan dira, batez ere goizaldean, une horretan biktimak zaurgarriagoak izaten baitira. Biktimen profila hau izaten da: gazte talde aurkarietako kideak edo halako gazte taldeekin inolako loturarik ez daukaten adingabeak.

Ertzaintzak gazte delituen aurka ezarritako esku hartze ildoak bi ardatz estrategikotan oinarritzen dira:

- Adingabeen Prozesurako Talde bat sortzea, horiekin lotutako arazo guztiak modu integralean lantzeko, bai biktimei dagokienez, bai biktimgileei dagokienez.
- EAEko Gazte Antolatu eta Biolentoen Talde Berrien aurkako Ekintza Plana. Honako helburu hauek ditu:
  - GABTBak identifikatzea/detektatzea eta diagnostiko bat egitea.
  - Delitu fenomeno honi buruzko informazioa Ertzaintza osoari helaraztea.
  - Hezkuntza eta familia alorretan sentsibilizatzea.
  - Arlo judizialean informatzea.
  - Arlo sozialean kontzientziatzea.
  - Arlo instituzionalean komunikatzea.
  - GABTBei leku publikoen erabilera eskusiboa eragozteko.
  - Segurtasun publikoa bermatzea, delitu tasa eta alarma soziala murriztea.

## KIROL IKUSKIZUNEI LOTUTAKO INDARKERIA

EAEko kirol ikuskizunei lotutako indarkeria futbolera mugatzen da bereziki, batez ere Europako lehiaketen esparrura, betiere ezkerreko eta eskuineko muturren arteko ideologia kontuek hauspotuta. EAEn, futbol taldeetako zale biolentoek ezker muturreko ideologia daukate. Eskuin muturreko zale biolentoen talde antolatua –nazi-faxistak– dituzten nazioarteko taldeekin jokaturako partidetan izan dira istiluak. Noizbehinka, Estatuko lehiaketetan parte hartzen duten taldeetako zaleen artean dauden eta antzeko ideologia daukaten talde biolentoek ere istiluak eragin dituzte.

Gaur egun, euskal talde nagusietako zale biolentoen artean sintonia dagoela ikusten da, eta 2020-2025 aldian hala jarraitzea aurreikusten da. Talde horiek mehatxu orokor bat dira ideologikoki antagonikoak diren beste zale batzuekin talka egiten dutelako, poliziaren aurka indarkeriaz jotzen dutelako, kirol partidetan parte hartzen duten herritarrei istilu horiek eragiten dizkieten ondorioengatik, bai eta zenbait jokabide antisozialengatik ere; horien artean, leku eta barruti publikoetan drogak kontsumitzea eta eragiten duten etsaitasun eta tentsio giroa.

## 2.12. BIDEETAKO PILAKETAK

Bide pilaketen fenomenoek giza bizitzetan duten zuzeneko inpaktua, berez, baxua da; izan ere, horien ondorioz ez da izaten hildakorik edo zauriturik. Hala ere, bide pilaketek inpaktu ekonomikoak (berandutzeak eta denbora galerak), sozialak (istripuak) eta ingurumenekoak (kutsadura akustikoa eta ingurumen kutsadura handitzea) eragiten dituzte.

Euskal errepide sareko zenbait puntutan arrisku horren maiztasuna oso handia izaten da. Puntu kritiko batzuetan, pilaketak egunero gertatzen dira, arrazoi sozioekonomikoengatik puntako orduetan sareko enbor bideetan ibiltzen den trafiko bolumena dela eta. Batzuetan, zirkulazioaren murrizketa espezifikoek eragiten dituzte auto ilarak, eta, oso une tasatuetan, oporretako operazio bereziek.

Trafiko Zuzendaritzak azterlanak egin ditu halako intzidentzia baten eragin ekonomikoa eta jarduera protokolizatu batek dakarren aurrezpena kuantifikatu nahian. Zehazki, Trafiko Zuzendaritzak tresna bat garatu du Euskadiko errepide sareko trafiko pilaketen ondorioz galdutako orduak zenbatzeko eta monetizatzeke. *Geotrafic* izeneko simulazio tresna horrek denbora errealean ematen du Euskadiko errepide sare nagusiko trafikoaren egoera eta pilaketa maila.

2018an, 3 milioi ordu galdu ziren trafiko pilaketen ondorioz. Egunean 8.200 ordu, ibilgailu arin eta astunentzako "ereduzko" ordu tarifak aplikatuta, urtean 45 milioi euro inguruko kostua dakartenak.

Halaber, 2015-2020 aldirako Bide Segurtasuneko eta Mugikortasun Seguru eta Jasangarriko Plan Estrategikoaren helburuetan aurreikusten da hiriarteko bideetan arintasuna hobetzeko jarduketak planifikatu, gidatu eta koordinatzea, batez ere hiri bideetarako eta herrigune handietarako sarbideetan, bai eta bide zati eta guner arriskutsuetan, trafiko dentsitate handikoetan eta zeharbideetan ere.



## 2.13. BIZIKIDETZA DEMOKRATIKOAREN AURKAKO MEHATXUAK

Bide demokratikoetatik kanpo proiektu soziopolitikoak ezartzeko adierazpen biolentoak oztopo dira Euskadiren aurrerapen sozial eta ekonomikorako.

Adierazleek erakusten dutenez, terrorismoa eta motibazio politikoko indarkeria ez daude gaur egun euskal herritarren kezka nagusien artean. Hala ere, Euskadin oso ideologia desberdineko pertsonak eta taldeak daude, eta pertsona eta talde horiek ez dute baztertzen beren helburuak lortzeko indarkeria erabiltzea. Hori dela eta, komeni da pertsona eta talde horiek kontuan hartzea, segurtasunerako mehatxu izan daitezkeela eta.

Kolektibo horiek 2020-2025 aldian garatzen duten praxiak zehaztuko du arrisku fokua horrek planaren indarraldian izan dezakeen larritasun zehatza.

Epe labur eta ertainerako agertokian ez da aurreikusten ekintza terroristak gauzatzeko prest egongo den erakunderik sortuko denik. Euskadin antagonismo biolentoaren adierazle nagusia izan den taldeak (ETA) duela urte batzuk utzi zion bere jardunari, jarduerara itzuliko dela baztertzeko moduan utzi ere.

Hala ere, ezin da baztertu bizikidetza demokratikoa indarkeriaz mehatxatuta egoteko posibilitatea, indarrean dagoen esparru juridiko-politiko eta instituzionalarekin eta esparru horretatik eratortzen diren inizatibekin konfrontazio ireki, zuzen eta irmoa planteatzen duten kolektiboetako baten bidez. Itxuraz loturarik gabea eta askotarikoa den antolara batetik abiatuz, *estatus quo*-a indarkeriaz hausteko ideia partekatzen dutenek porrot instituzional gogor bat eragiteko ekintzak susta litzakete, prozedura demokratikoak alde batera utzita.

Gainera, aldaketa biolentoaren kosmobisio hori partekatzen duten talde eta erakundeek, sarritan, zenbait mugimendu sozial parasitatzen dituzte, eta mugimendu horiek eramaten dituzte sistemaren aurkako borroka irekiaren eta demokratikoki onartutako erakunde esparruarekiko haustura faktikoaren jarreretara eta dinamiketara. Ildo horretan, ezin da baztertu maila batean edo bestean indarkeria erabiltzeari utzi ez dioten taldeek beren estrategietarako aprobetxatu nahi izatea koronabirusaren krisiaren ondoren baldintza ekonomiko globaletan gerta daitekeen okertzea.

Arrisku potentzialtzat hartu beharko lirateke, halaber, eskuin mutur deitzen zaion horretan sar daitezkeen pertsonak eta erakundeak; izan ere, instituzioak errotoik zalantzan jartzearena eta indarkeria baliabide estrategiko posible gisa erabiltzearena presente egoten baitira espazio ideologiko eta sozial hori elikatzen duen diskurtsoan. EAEn, halako taldeen jarduera oso txikia da, eta ez dira ikusten esparru demokratikoa urratzeko eta bizikidetza aldatzeko gaitasuna izango duten talde biolentoak –armatuak edo ez armatuak– eratzeko beharrezkoak diren elementu objektiboak. Hala ere, eskuin muturrak nazioartean duen bilakaera ikusita, ez da mehatxu gisa baztertu behar, hala badagokio, horiek uztartzeko mekanismo egokiak ezartzeko.

## 2.14. AZPIEGITURA KRITIKO ETA SENTIKORREN BABESA

Azpiegitura kritikoen babesak garapen handia izan du arauen eta antolaketaren arloan eta arlo operatiboan, eta hori xedatuta dago 8/2011 Legean, 704/2011 Errege Dekretuan eta hura garatzen duten beste arau batzuetan; halatan, segurtasun arloko betebeharrak ezartzen zaizkie operadore kritiko gisa sailkatutako enpresa, erakunde eta instituzioei, azpiegitura kritiko deiturikoak batzuetan komunikazio teknologien bidez sustatzen diren mehatxuetatik eta terrorismo ekintzetatik prebenitzeko eta babesteko.



Segurtasun Sailak Estatuko hainbat koordinazio-organotan parte hartzen du, esaterako Azpiegitura Kritikoak Babesteko Batzorde Nazionalan eta Azpiegitura Kritikoak Babesteko sailen arteko lan-taldean; eta Ertzaintzak esku hartzen du babeseko berariazko planen eta laguntza operatiboko Planen ezarpenean, segurtasun alerta baten aurrean erantzuteko beharrezkoak baitira.

Aurrekoaz gain, Euskadin badaude azpiegitura batzuk kritikotzat jotzen ez direnak eta, beraz, aurreko araudiaren menpe ez daudenak, baina Euskadiko herritarrei funtsezko zerbitzuak ematen dizkietenak. Horregatik, Eusko Jaurlaritzak beharrezkotzat jotzen du azpiegitura horien babesa eta Euskadiko herritarrei eskaintzen dizkieten zerbitzuen jarraitutasuna eta erresilientzia bermatzeko mekanismoak antolatzea.

Prebentzioaz eta babesaz gain, azpiegiturei egin dakizkiekeen eraso fisikoen aurrean, gaur egun garrantzi berezia hartzen du alor logiko eta digitaleko mehatxuen zein erasoen prebentzioak eta babesak. Agertoki horren aurrean, Eusko Jaurlaritzak Basque Cybersecurity Centre (BCSC) delakoa abiarazi zuen 2017ko irailean, gure industriaren lehiarako eta berrikuntzarako gaitasuna proban jartzen duen eta gure herritarren eskubideak mehatxatzen dituen testuinguru berrian gobernu arduratsu bat gauzatzen laguntzeko konpromiso gisa. BCSCk erronka horri ematen dion erantzuna zera da: Euskadiko esparru publikoan eta pribatuan zibersegurtasunaren kultura areagotzea. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak ezartzen duenez, Ertzaintza BCSCko kide aktiboa da, eta haren antolaketa egiturarekin bat egiten du, bi loturaren bidez.

BCSCk, zeinak Euskadin bakarrik diharduen, CSIRT gisa garatzen du bere jarduera nagusia, eta, gainera, beste jarduera batzuetan ere badihardu, esaterako, azpiegitura kritikoaren eta sentikorren babesa hobetzeko lanean. Ertzaintzak zibersegurtasunari dagokionean daukan funtsezko lanetako bat zibergertakarien ikerketa izaten da. BCSCrekin harreman zuzena duenez gero, intzidenteon komunikazioak eta ebidentzien bilketak ohiko kasuetan baino askoz azkarragoak izan behar dute nahitaez; gainera, BCSCko langileen laguntza izatean, arrakasta tasa handitu egingo da, logikoa denez.

## 2.15. GIZAKIEN SALEROSKETA

Gizakien salerosketa, nazioarteko eta estatuko erakundeek jasotzen duten bezala, pertsonen oinarritzko eskubideen urraketa handienetako bat da, bereziki sexu esplotazioa helburu duen gizaki salerosketaz ari garenean.

Salerosketa oso lotuta dago krimen antolatuekin, eta onura ekonomiko gehien ematen duen delitu tipologia bihurtu da, armen eta substantzia estupefazianteen trafikoarekin batera.

Erakunde kriminal horiek mehatxua dira segurtasunarentzat; izan ere, gehienak transnazionalak dira, oso opakua dira eta egitura malguago eta moldagarriago baterantz eboluzionatzen dute; hori dela eta, zaila izaten da talde horiek detektatzea eta jazartzea.

Erakunde kriminal horiek dibertsifikatu egin dute beren jarduera kriminala, sare horien beste atal bat gehiago bihurtuta, eta substantzia estupefazianteen trafikoarekin, migratzaileen legez kontrako trafikoarekin, dokumentu faltsutzeekin, berme sozialen sistemai egindako iruzurrekin, zergak saihestearrekin, kapitalak zuritzearekin eta abarrekin lotutako delituak detektatu dira.

Gizakien salerosketari estuki lotuta daude munduko eremu zabaletan pairatzen ari diren pobrezia, gerrak, klima aldaketa, eta abar. Horiek guztiek inoiz ikusi gabeko migrazio korronteak sortzen dituzte, eta badirudi aipatutako erakunde kriminalek baliatu egiten dituztela migrazio horiek.

Europar, eta, beraz, EAEn, detektatutako salerosketa kasuak prostituzio inguruneetako sexu esplotazioarekin lotuta daude; biktimaren profila emakume atzerritar batena da, eta jatorriko eremu geografiko gehienak Latinoamerika (Brasil, Venezuela eta Paraguai nabarmentzen dira), Ekialdeko Europa (Errumania eta Bulgaria), Saharaz hegoaldeko Afrika (Nigeria, Ginea, Boli Kosta) eta Asia (batez ere Txina) dira. Horren erakusgarri, 2018an salerosketaren biktima gisa identifikatutako 17 emakumeen kasua, Emakunderen urteko txostenaren arabera.

Dena den, biktimei arreta ematen eta emakumeen salerosketa desagerrarazten diharduten segurtasun operadore eta eragile sozial guztiek duten arazorik handiena da izozmendiaren punta baino ez dela ikusten eta, gehienetan, estimazioekin lan egiten dela. Ildo horretan, gero eta garrantzi handiagoa dauka arriskuan dauden emakumeak identifikatzeak, salerosketa kasu posibleak detektatu eta esku hartze goiztiarrak ezarri ahal izateko edo, hala badagokio, zaurgarritasun handiko egoeran dauden emakumeei lagundu ahal izateko.

Erronka horri aurre egiteko, sexu esplotazioa helburu duen gizaki salerosketaren aurkako plan estrategikoa ezarri zuen Ertzaintzak 2016an, hiru ardatzen gainean (PREBENITU, BABESTU eta JAZARRI), EAEn salerosketa sareen ezarpena minimizatzeko, biktima posibleak detektatzeko eta babesteko, eta egileak epailearen esku jartzeko.

Hona hemen aipatutako ardatz bakoitzaren helburuak:

- PREBENTZIOA

- Inteligentziako zereginak indartzea, joeren aurreikuspen- eta EAeko prostituzioaren egoeraren (salerosketaren biktimen azken helmuga) azterketa-lan estrategikoak garatzea ahalbidetuko dutenak, gauzatu beharreko ekintzak gidatu eta/edo aldatu ahal izateko.
- Detekzio goiztiarreko lana indartzea, prostituzioa gauzatzen den lekuetako jarduera monitorizatuz (salerosketaren biktimen azken helburua).
- Izurri honen aurkako borrokan parte hartzen duten eragile guztien prestakuntza bultzatzea.
- Komunikazioaren teknologia berrien erabilerari buruzko prestakuntza sustatzea, tresna egokiak emanez, sarean eskuragarri dauden informazioak monitorizatu ahal izateko.
- Delitu honen konplexutasunak, biktimak identifikatzeak eta erakunde kriminal oso espezializatuak eta nazioz haraindikoak ikertzeak dakartzaten zailtasun bereziek ahalegin berezia eskatzen dute delitu horietara bideratutako polizia agenteen espezializazioan.
- Beste polizia kidego batzuekin lankidetzan aritzea. Delitu honek eta delitu honekin lotutako erakunde kriminalek izaera transnazional nabarmena dute, mugikortasun handikoa; beraz, beharrezkoa da poliziek nazioartean lankidetzan jardutea, eta ezinbestekoa da informazioa eta datu baseak trukatzeko, biktimen eta salerosleen segimendu eraginkorra egin ahal izateko.

- BABESA

- Salerosketaren aurkako borrokan zerikusia duten eta inplikaturik dauden eragile publiko eta pribatu guztiekin (erakundeak eta GKEak) lankidetzan indartzea.
- Helburua da kasu posibleak garaiz detektatzeko informazioa trukatzeko ahalbidetuko duen benetako lankidetzan lantzea, bai eta baterako ekintzen garapenean parte hartzea ere; izan

ere, salerosketaren aurkako borroka erronka komunitario bat da, non eragile bakoitzak, bere funtzioetatik, bere ikuspegia ematen baitu izurri hori desagerrarazteko.

- Ertzaintzako agenteek salerosketaren biktimei tratamendu integrala emateko prestakuntza jasotzea, eta alderdi hori arrisku edo zaurgarritasun egoeran dauden emakumeengana ere hedatzea, zerbitzu espezifikotara bideratu arte lehen laguntza eman ahal bazaie.

- JAZARPENA

- Delitu hauen ikerketan espezializatutako taldeak indartzea, prestakuntzaren, giza baliabideen eta baliabide teknologikoen bidez.
- Beste polizia kidego batzuekiko lankidetzaren indartzea, baterako ikerketak egitea.

## 2.16. JOKOAREKIKO MENPEKOTASUNA

Jokoarekiko menpekotasuna, ludopatia edo joko patologikoa –horrela ere esaten zaio– menpekotasun nahasmendu bat da, eta zorizko jokoari dagokionez kontrolik gabeko jokabidea izatea du ezaugarri. Ludopatia edo joko patologikoa bizitzako hainbat alderdiri (pertsonala, familiara, lanekoa, soziala eta ekonomikoa) eragiten dien arazo psikologikotzat hartzen da. Pertsonak bere burua kontrolatzeko gaitasuna galtzen du, eta zaila egiten zaio zera esatea: "ez", eta ez da gai jokatzeko gogoari edo bulkadari eusteko.

Jokoarekiko edo ludopatiarekiko menpekotasunaren arrisku faktoreez eta babesaz ari garenean, nortasun ezaugarriari, egoera jakin bati edo etorkizunean jokatzeko edo arazoak sortzeko probabilitatea areagotu dezakeen testuinguru sozial bati buruz ari gara. Hala, joko aretoen ugartze handia edo gehiegizkoa arrisku faktorea izan daiteke, dibertsiorako eta diru erraza eskuratzeko iturri bakartzat hartzen badira. Euskadiko Adikzioei buruzko 2017ko Inkestak jasotzen duen bezala, menpekotasun jokabideen ezaugarri komun eta nagusi bat egindako jardueraren gaineko kontrola galtzea da, zeinak ondorio larriak izan ditzakeen eragindako pertsonen eguneroko bizitzan eta pertsonon ingurunean.

EAEko herritarren pertzepzio sozialari eta joko ohiturei buruzko inkestaren emaitzen arabera, EAEko biztanleen ia erdiek uste dute asko jokatzela; EAEko biztanleen bi herenek jokoari buruzko pertzepzio txarra edo oso txarra dute; EAEko herritar gehienek ez dute uste jokoa gizartearentzat ona denik; herritar gehienek uste dute jokoak ondorio larriak izan ditzakeela eta menpekotasuna sor dezakeela; eta herritarren %70en ustez, etorkizunean areagotu egingo dira jokoarekin lotutako arazoak.

Euskadiko adikzioei buruzko 2017ko inkestak jasotzen duenez, oso txikia da jokoaren praktika areagotu duten jokalarien proportzioa, aurreko urtearekin alderatuta. Bakarrik %2,8k adierazi dute aurreko urtean baino gehiago jokatzela dutela gaur egun. Beste muturrean, emakumeen %8,2k eta gizonen %16,0k adierazi dute gutxiago jokatzela aurreko urtearekin alderatuta. Kanadako gehiegizko jokoaren indizean oinarrituz, Euskadiko biztanleen %26,3 –400.000 pertsona baino gehixeago– jokalaria aktibotzat har daitezke, gutxienez astean behin ausazko jokoetan ibiltzen direlako eta/edo urtean zehar gutxienez 500 euro gastatzen dutelako halako jokoetan. Jokalari aktibo guztien artean, %10ek baino gutxiagok (%9,8) –biztanleriaren %2,5 eta, termino absolutuetan, 42.000 pertsona baino gehixeago– izango luke arriskuren bat; gainerako %90,3ak, berriz, ez luke inolako arriskurik izango jokoari dagokionez. Indize hori oinarri hartuta, emandako erantzunen arabera 3.000 pertsona baino zertxobait gehiago jo daitezke gehiegizko jokalaritzat edo jokalari problematikotzat, hau da, biztanleria osoaren %0,2 baino zertxobait gehiago eta jokalari aktiboen %0,8.

Euskadiko adikzioei buruzko 2017ko inkestaren arabera, bilakaera datuek erakusten dute 2012tik 2017ra bitartean nahiko egonkor mantendu dela jokoarekiko arrisku jokabideak dauzkaten pertsonen proportzioa.

Hala ere, joko problematikoaren prebalentzia, hau da, arrisku ertaina duten jokalarien eta gehiegizko jokalaritzat har daitezkeen pertsonen prebalentzia, biztanleriaren %0,39tik (6.508 pertsona) %0,64ra (10.573 pertsona) pasatu da bost urtean.

Joko arduratsua sustatzeko eta joko problematikoa prebenitzeko ekintza plana hedatzea da, zalantzarik gabe, arrisku horri aurre egiteko tresna nagusia. Plan horrek helburu hauek jasotzen ditu, prebentzioaren ikuspegitik:

1. Jokoaren arriskuei buruz kontzientziatzea eta sensibilizatzea, batez ere EAEko nerabe eta gazteei zuzenduta.
2. Adingabeek eta joko debekatuta dutenek jokatzeko hastea ekiditea.

Hona hemen egin diren jardueretako batzuk:

- Segurtasun Saileko Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak joko arduratsuko praktika egokien 6 eskuliburu egin ditu ostalaritzako langileei, joko aretoei, bingoei, makinaren enpresa operadoreei, apustu etxeei eta kasinoei zuzenduta.
- Segurtasun Saileko Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak joko arduratsuari eta adingabeei zuzendutako joko debekuari buruzko kartelak eta liburuxkak egin eta banatu ditu, bai joko aretoetan bai ikastetxeetan.
- Segurtasuneko sailburuordearen jarraibidea, 2017ko azaroaren 13koa, adingabeek jokoan parte hartzeari buruzkoa, Ertzaintzari eta udaltzaingoei zuzendua.
- 2018an, urriaren 16ko 147/2018 Dekretua onartu zen, Segurtasun Sailari atxikitako Jokoaren Euskal Behatokia sortu eta arautzen duena, eta, ondoren, bere eginkizunak betez, honako txosten hauek egin zituen:
  - o "Jokoaren panorama ekonomikoa eta enpresa arlokoa", EAEko jokoaren industriaren ikuspegi ekonomiko eta enpresa arlokoa xeheki aurkezteko helburua duena.
  - o "Pertzepzio soziala eta joko ohiturak", EAEko pertzepzio sozialari eta joko ohiturei buruz bildutako informazioa aurkeztea helburu duena. Zehazkiago, bi sexuetako eta hiru lurralde historikoetako 1.214 pertsonari 2019ko uztailan egindako telefono bidezko inkestaren emaitzak aurkezten dira (beste estatistika iturri garrantzitsu batzuekin batera), 18 urtetik gorako euskal biztanleei zuzendua; orobat, Eusko Jaurlaritzaren ikuskaritza lanari eta Autodebekatuen Erregistroari buruzko datuak ere aurkezten dira.
  - o "Joko arduratsua sustatzeko eta joko problematikoa prebenitzeko ekintza plana". Horren helburua da jokoaren erabilera desegokia saihesteko eta gehiegizko jokoak eragindako arriskuak eta kalteak murrizteko ekintza plan bat diseinatzea. Horrekin guztiarekin, jokoaren plangintza berria landuko da.

## 2.17. INGURUMENAREN NARRIADURA

Europar Batasuneko araudiak, gure ingurumen arauen ehuneko laurogeita hamar ingururen jatorria denak, funtsezko bultzada ematen die ingurumen arloan diharduten zerbitzu publikoei. Kezka horren ondorioz eta Konstituzioan ingurumenaz gozatzeko eskubidea eta hura gordetzeko betebeharra onartzearen ondorioz (Espainiako Konstituzioaren 45. artikuluan xedatua), 1995eko Zigor Kode berriak eta 2010 eta 2015eko erreformek ingurumena eta baliabide naturalak sartzeko dituzte babes penala merezi duten ondasun juridiko gisa.

Tradizioz, Zigor Kodeak oso ezaugarri zedarrituekin definitu izan du zer diren delitu jokabideak. Hala ere, orain ingurumen delitu deitutako kasua daukagu eta dena da konplexuagoa eta arautuago dago; beraz, delitu gisa tipifikatutako ekintzak definitzeko, beharrezkoa da administrazio izaerako beste lege xedapen batzuetara jotzea edo haietan oinarritzea. Legegileak tipo penala eraikitzeo teknika legegilea erabili du, "arau penal zuriaren" bidez.

Hainbat eta hainbat ikerketak berresten dute ingurumenaren narriadurak pertsonen bizi kalitatean eta bizitzan duen inpaktua. Hala ere, zaila da inpaktu hori kuantifikatzea eta delitu zehatzekin lotzea. Aldaketa klimatikoa da euskal herritarrek gehien kezkatzen dituen arazoaren artean hamargarrena, delinkuentziaren eta herritarren segurtasunik ezaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren atzetik. Oraindik ere herritarren kezka nagusietako bat ez bada ere, faktore hori aurreko inkestetan ez agertzeak eta komunikabideetan eta eztabaida publikoan gero eta presentzia handiagoa izateak pentsarazten dute ingurumenarekiko sentsibilitateak hazten jarraituko duela datozen urteetan, eta arlo horretako delituek alarma sozial handiagoa sortuko dutela.

Ingurumen delitu izan daitezkeen jokabideekin loturiko polizia jarduerak arazo ugari ditu, figura horien konfigurazio juridikotik eratorritakoak; izan ere, horiek zehazterakoan, administrazio arau ugarik eragiten dute, eta gure ezagutzak ezin ditu arau horiek guztiak barne hartu. Gainera, arau hauste bat eta bestea (penala edo administratiboa) bereiztea eragin dezakeen narriaduraren larritasunaren arabera izango da, eta alderdi hori, nolahi ere, judizialki baino ezin izango da zehaztu, peritu txosten batzuen ondoren.

Hori guztia dela eta, ahalegin izugarria egin behar da Ertzaintzaren maila desberdinei (zentrala, lurraldekoa eta tokikoa) delitu tipologia horiei buruzko prestakuntza emateko, ingurumen arloko polizia integralaren zeregina modu proaktiboan garatzen saiatzeko. Horretarako, oinarritzko ezagutza izan behar da, gutxienez gai izateko kriminalitate zantzuak identifikatzeko, gertakariak ikertzeko behar diren eginbideak burutzeko, frogabideak ziurtatzeko eta egilea identifikatu ondoren agintaritzak judizialari jakinarazteko.

Gaur egun, alde nabarmena dago EAEn Ertzaintzak detektatutako kriminalitate zantzuak agertzen dituzten gertakarien eta horretarako izapidetutako eginbideen artean, eta seguruenik haiek izango dira Ertzaintzarentzat denbora luzez ezkutuan egon den errealitate baten icebergaren punta. Beharbada, ingurumen delituetara bideratutako intelijentzia polizialak (analisi, informazioa lortzea, etab.) errealitatetik askoz hurbilago dagoen ikuspegi bat eman dezake, bai arazoaren eta helburuen profilak identifikatzeko, bai ingurumen izaerako zigor arloko lege kontrako delituak minimizatzerako bideratutako intelijentzia produktuek egiteko (prebentzio alertak, etab.).

Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiarekin (2002-2020) bat etorritik, Ingurumena Ikuskatzeko eta Kontrolatzeko 2019-2026 Planaren ikuspegi zera da: Euskadin ingurune garbia eta osasungarria mantentzen laguntzea, bai eta airearen, uraren, lurzoruen eta hondakinen kudeaketaren kalitatea hobetzen laguntzea ere, haien balorizazioa sustatuz, EAEn egiten diren jarduerak kontrolatuz eta zainduz, eta ingurumen araudia betearaziz, objektibotasunez eta independentziaz jarduten duten pertsonen laguntzarekin.

## 3. SEGURTASUNAREN EGOERA EUSKADIN

Kapitulu honek EAEko gaur egungo segurtasunaren egoeraren deskribapen zabala egiten du. Arau esparruari buruzko sarrera bat egin eta gero (ondoren, I. eranskinean garatzen da zehatz-mehatz), lau eremu hauetako segurtasun adierazle nagusiak aurkezten ditu: polizia, larrialdiak, bide segurtasuna eta jokia eta ikuskizunak. Ondoren, EAEko segurtasunaren koordinaziorako eta lankidetzarako mekanismoak deskribatzen ditu, eta, azkenik, Euskadiko segurtasunaren azterketa integratua aurkezten du, non indar, ahulezia, aukera eta mehatxu nagusiak identifikatzen diren.

### 3.1. ESPARRU JURIDIKOA

Segurtasun publikoaren esparru juridikoak hainbat xedapen eta arau biltzen ditu, bai autonomikoak, bai estatukoak eta baita Europakoak ere, pertsonen eta ondasunen segurtasunean maila batean edo bestean eragiten dutenak, eta honako alderdi hauek barne hartzen dituztenak: herritarren segurtasuna babestea, segurtasun pribatua, babes zibila eta larrialdien kudeaketa, azpiegitura kritikoaren babesa, trafikoa eta bide segurtasuna, jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak edo ausazko jokoak.

Une bakoitzean indarrean dauden araudi sektorialak segurtasunaren arloko politika publikoak arautzen dituztenak dira, eta segurtasunaren plangintza modu koherentean kokatzen dute beren artean, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko ekainaren 28ko 15/2012 Legean aurreikusitako mekanismo integratzaileei esker, lege hori baita, arlo horretan, ordenamendu juridiko autonomikoaren gailurra.

I. eranskinean, indarrean dauden lege xedapenen zerrenda ez oso xehatu bat ageri da, plan hau zer lege testuingurutan kokatzen den identifikatzeko. Hala ere, hona hemen Euskadiko segurtasuna arautzen duten arau nagusiak:

- 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa. BOE, 1995eko azaroaren 24koa, Zigor Kodearena eta araudi osagarriarena.
- 4/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, herritarren segurtasuna babesteari buruzkoa.
- 2/1986 Lege Organikoa, martxoaren 13koa, Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzkoa.
- 15/2012 Legea, ekainaren 28koa, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzekoa.
- 7/2019 Legea, ekainaren 27koa, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legea bosgarrenez aldatzen duena.
- 5/2014 Legea, apirilaren 4koa, Segurtasun Pribatuari buruzkoa.
- 8/2011 Legea, apirilaren 28koa, azpiegitura kritikoak babesteko neurriak ezartzen dituena.
- 17/2015 Legea, uztailaren 9koa, Babes Zibileko Sistema Nazionalarena.
- 1/2017 Legegintzako Dekretua, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 18/1989 Legea, uztailaren 25ekoa, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Oinarriak arautzen dituena (178. BOEa; hutsen zuzenketa, 75. BOEa, martxoaren 28koa) eta haren aldaketak.
- 87/2001 DEKRETUA, maiatzaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoan hiriarteko trafikoa kudeatzeko sistema arautzen duena eta Euskadiko Trafikoa Kudeatzeko Zentroa sortzen duena, eta haren ondorengo aldaketak.

- 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jendaurreko ikuskizun eta jolas jarduera guztiak arautzen dituena.
- 4/1991 Legea, azaroaren 8koa, Euskal Autonomia Erkidegoan joko arautzen duena. (EHAA, azaroaren 25ekoa, 237. zk.), barne merkatuko zerbitzuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentaraura egokitzeko zenbait lege aldatzen dituen apirilaren 23ko 7/2012 Legearen bidez aldatua. (Apirilaren 30eko EHAA, 84. zk.).

## 3.2. EAE-KO POLIZIA

### 3.2.1. DELINKUENTZIA DATUAK

2019an 117.795 arau hauste penalen berri izan zuen EAeko Poliziak (Ertzaintza eta 25.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietako udaltzaingoak), 2018an baino %2,61 gehiago. Horrela, mila biztanleko kriminalitate tasa 53,35ekoa izan zen. Azken hirurtekoan tasa hori etengabe hazi bada ere, Ertzaintza herritarren konfiantza handiena duten erakundeen hirugarren tokian dago, soilik "enpresa txikien" eta "Unibertsitatearen" atzetik. Gainera, herritarrek Polizia Autonomikoari buruz egindako balorazioak, esaterako, laguntzeko prestasunari, profesionaltasunari, hurbiltasunari eta adeitasunari dagokienez, 7,5etik gorako puntuazioa lortu du 10etik. Balorazio horiek poliziak berak adierazitako hurbiltasun, konfiantza, konpromiso eta talde baloreei dagozkie.


Ertzaintzak, polizia integrala den aldetik, hurbileko polizia, kohesio soziala, prebentzio aktiboa, inklusioa eta halako kontzeptuak biltzen eta defendatzen ditu. Eboluzioan dagoen polizia eredu bat da, segurtasun estrategia berrien diseinuarekin bat datorrena, non delituaren prebentzioaren kontzeptuak berebiziko garrantzia hartzen duen. Zentzu ebolutibo horretan, Ertzaintzak urrats bat eman du BAIETZ polizia tresna analitiko berria diseinatu eta ezartzeko. Tresna horrek proaktibotasunean oinarritutako egungo eredu errazten du, eta gerta daitezkeen agertokiak gainean lan egiten du, horiek gertatu aurretik.

Arau hauste penalak	<b>+%2,61</b>
Kriminalitate tasa (1.000 biztanleko)	<b>53,35</b>
Erruztatutako pertsonak	<b>+%1,95</b>

Delinkuentziaren joerak gorantz egien jarraitzen duen arren (%2,61eko igoera), nabarmentzekoa da 2018koa baino igoera apalagoa izan dela, 2018an igoera %6,34koa izan baitzen.

2019an, EAeko Poliziak ezagututako delituen %77 ondarearen eta ordena sozioekonomikoaren aurkakoak izan ziren. Baina, gainera, ebasketek (%35), iruzurrek (%15) eta kalteek (%10) arau hauste guztien %59 hartu zuten. Multzo horri gauzetan indarra erabiliz egindako lapurretak gehitzen bazaizkio, ehunekoak gora egiten du delitu guztien %72raino.





Ertzaintzak eta 25.000 biztanletik gorako udalerrietako udaltzaingoek ezagututako delituak.

Adierazitako prebentzio eredu polizialarekin, ekintza plan estrategikoen funtsezko eginkizuna dute. Ekintza plan horiek dinamikoak eta malguak izan behar dute, urtez urte EAEn diharduten talde antolatu ibiltarien errealitate eta *modus operandi* berri eta askotarikoen araberakoak. Eta plan horien eraginkortasuna epe ertainean baloratu behar da, berehalako emaitza optimoak lortzea konplexua baita.

### 2019

Ebatzitako giza hilketak	%100	
Etxeko indarkeriaren / genero indarkeriaren ondorioz hildakoak	0	
Sexu erasoko delituengatik atxilotutakoak	+ 28	▲
Enpresetan egindako lapurretak	- %15,6	▼
Giza hilketak	+ 5	▲
Etxeko indarkeriaren / Genero indarkeriaren biktimak	+%7,9	▲
Sexu erasoko delituak	+ 23	▲
Etxeetan egindako lapurretak	+%12,5	▲

### ERTZAINZAK ETA UDALTZAINEK EZAGUTUTAKO ARAU HAUSTE PENALAK \*

ARAU HAUSTE MOTA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
<b>Giza hilketa eta bere formak</b>	<b>5</b>	<b>34</b>	<b>20</b>	<b>59</b>
Dolozko giza hilketa / hilketa burutua (EB)	1	4	6	11
Dolozko giza hilketa / hilketa saiakuntza (EB)	1	19	9	29



Giza hilketarekin loturiko beste arau hauste batzuk eta horien formak	3	11	5	19
<b>Lesioak</b>	<b>1.142</b>	<b>4.523</b>	<b>2.312</b>	<b>7.977</b>
Tratu txarrak familian	338	1.075	563	1.976
Lesioak	745	3.004	1.506	5.255
Lesioekin loturiko beste arau hauste batzuk	59	444	243	746
<b>Tortura eta integritatearen kontrakoak</b>	<b>583</b>	<b>1.837</b>	<b>873</b>	<b>3.293</b>
Ohiko tratu txarrak familia barruan	571	1.750	822	3.143
Torturarekin eta integritatearen kontrakoekin loturiko beste arau hauste batzuk	12	87	51	150
<b>Sexu askatasunaren kontra (EB)</b>	<b>106</b>	<b>381</b>	<b>237</b>	<b>724</b>
Sexu erasoa	18	127	71	216
Sexu askatasunaren aurkako beste arau hauste batzuk	88	254	166	508
<b>Ondarearen eta ordena sozioekonomikoaren kontra</b>	<b>15.192</b>	<b>52.306</b>	<b>23.406</b>	<b>90.904</b>
Ebasketa (EB)	7.305	24.317	9.197	40.819
Gauzetan indarra erabiliz egindako lapurreta	1.992	8.723	4.817	15.532
Gauzetan indarra erabiliz egindako lapurreta etxebizitzan (EB) (1)	720	3.530	1.350	5.600
Gauzetan indarra erabiliz egindako lapurreta etxean	438	2.355	953	3.746
Indarra erabiliz egindako lapurreta etxebizitzako beste gela/eranskin batzuetan	282	1.173	397	1.852
Enpresetan indarra erabiliz egindako lapurreta	100	241	269	610
Indarra erabiliz egindako lapurreta dendetan eta beste leku itxi batzuetan	421	1.729	1.383	3.533
Gauzetan indarra erabiliz egindako lapurreta beste leku batzuetan	751	3.223	1.815	5.789
Indarkeria edo larderia erabiliz egindako lapurreta (EB)	344	1.785	429	2.558
Kalteak	2.083	6.341	2.843	11.267
Ibilgailu motordunen lapurreta (EB)	89	593	423	1.105
Iruzurra	3.160	9.299	4.947	17.406
Ondarearen kontrako beste arau hauste batzuk	219	1.248	750	2.217
<b>Segurtasun kolektiboaren kontra</b>	<b>719</b>	<b>2.188</b>	<b>1.632</b>	<b>4.539</b>
Osasun publikoa: droga trafikoa (EB)	148	264	160	572
Alkoholaren, drogen eta abarren eraginpean gidatzea.	349	1.105	983	2.437
Segurtasun kolektiboaren kontrako beste arau hauste batzuk	222	819	489	1.530
<b>Beste arau hauste penal batzuk</b>	<b>1.618</b>	<b>5.589</b>	<b>3.092</b>	<b>10.299</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>19.365</b>	<b>66.858</b>	<b>31.572</b>	<b>117.795</b>
<b>MILA BIZTANLEKO TASA</b>	<b>58,41</b>	<b>58,00</b>	<b>43,63</b>	<b>53,35</b>

\* 25.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan.

Europar Batasunak (EB), bere estatistika bulegoaren bidez (EUROSTAT), herrialde desberdinetako polizia kidegoek ezagutzen dituzten arau hauste penalei buruzko informazioa biltzeko, oinarrizko tipologia komun batzuk ezarri ditu, eta horiek EB siglekin adierazten dira.

Segurtasun Pribatuari buruzko apirilaren 4ko 5/2014 Legean tipifikatutako arau hausteei buruzko zehapen prozeduretan honako hauek sartzen dira: segurtasun pribatuko jarduerak egiten dituzten enpresen

jokabideak, halako eginkizunak betetzen dituzten langileenak, zerbitzu horien erabiltzaileenak eta arlo horretako prestakuntza zentroenak.

Era berean, Herritarren Segurtasuna Babesteko martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoan tipifikatutakoen artean (HSBLO) honako hauekin lotutako arau hausteak sartzen dira: drogak edukitzea eta kontsumitzea, armak edukitzea eta erabiltzea, agintaritzaren agenteekiko desobedientziak eta errespetu faltak, desordenak, biltzeko eskubidea erabiltzea, etab. Lege honen esparruan, zehapen prozeduren ia bi herenak drogak edukitzearekin eta kontsumitzearekin (%47) eta armak edukitzearekin eta erabiltzearekin (%15) lotutako arau hauste larriei dagozkie. Gainerakoetatik, arreta merezi dute HSBLOa indarrean jarri arte arau hauste penalak ziren eta aurreko urtearekin alderatuta handitu egin diren bi arau haustek: agintaritzaren agenteei desobeditzeagatik arau hauste larriak (%13) eta Segurtasun Indar eta Kidegoetako kideei errespetu eta begirune falta arinak (%18). 2019an hasitako espedienteen %25 udaltzainen txostenetatik zetozen.

Bestalde, nabarmentzekoa da ostatu jarduerak egiten dituztenei ikuskapenak egitearen eta, hala badagokio, zehapenak jartzearen ondorioz, adibidez, 2017tik 2019ra arte, %40 baino gehiago igo direla ostatu hartu dutenek Ertzaintzari egindako jakinarazpenak.

Azkenik, esanguratsua da herritarren segurtasunari loturiko arau hausteengatik zigortutakoen %29k eta segurtasun pribatuarekin loturiko arau hausteengatik zigortutakoen %50ek legez xedatutako murrizketekin ordaindu dituztela isunak. Ehuneko horrek nabarmen egin du gora segurtasun pribatuko prozeduretan, iaz %32koa izan baitzen.

SPLaren arau hausteengatik hasitako espedienteak	<b>46</b>
Expedientes incoados por infracciones de la LSP	
<hr/>	
HSBLOaren arau hausteengatik hasitako espedienteak	<b>5.715</b>
Expedientes incoados por infracciones de la LOPSC	


HSBLOREN ARAU-HAUSTEENGATIK 2019. URTEAN HASITAKO ESPEDIENTEAK

	ART.	EXP.
DESOBEDIENTZIAK, ERRESISTENTZIAK / Desobediencias o resistencia la autoridad	36.6	<b>732</b>
FUNTZIOAK OZTOPATZEA / Obstrucción de funciones	36.4	<b>32</b>
ERRESPETUA GALTZEA ETA BEGIRUNERIK EZ IZATEA / Falta respeto o consideración	37.4	<b>995</b>
SEXU ASKATASUNAREN AURKA ETA ERAKUSPEN EGINTZA LIZUNA / Contra la libertad sexual y exhibición obscena	37.5	<b>12</b>
DESORDENA LARRIAK / Desórdenes graves		<b>136</b>
Ekitaldi publikoetan / En actos públicos	36.1	2
Kale edo establezimenduetan / En vías o establecimientos	36.3	134
ONDASUNAK KALTETU EDO HONDATZEA / Daños o deslucimiento de bienes	37.13	<b>75</b>
BILERA / Reunión		<b>41</b>
Garapen nahasmendua / Perturbación desarrollo	36.8	3
9/83 LO ez betetzea / Incumplimiento LO 9/83	37.1	38
DROGAK / Drogas		<b>2.671</b>
Kontsumitzea edo edukitzea / Consumo o tenencia	36.16	2.664
Landatzea eta haztea / Plantación y cultivo ilícitos	36.18	4
Kontsumoa eta trafikoa onartzea /Tolerancia del consumo y tráfico en establecimientos públicos	36.19	3
ALKOHOLDUN EDARIAK KONTSUMITZEA / Consumo alcohol	37.17	<b>3</b>
DEBEKATUTAKO ARMAK, ARAUTUAK, LEHERGAILUAK ETA PIROTEKNIA GAIK / Armas prohibidas y reglamentadas, explosivos y artículos pirotécnicos	36.10/36.12	<b>866</b>
ARRISKUTSUAK DIREN OBJETUAK ERAKUSTEA / Exhibición objetos peligrosos	37.2	<b>1</b>
ANIMALIA KALTEGARRIAK EDO ABANDONATUAK / Animales dañinos o abandonados	37.16	<b>12</b>
HIGIEZINAK EDO BIDE PUBLIKOAK OKUPATZEA / Ocupación inmuebles o vía pública	37.7	<b>17</b>
DOKUMENTUEN ERREGISTROAK / Registros documentales		<b>95</b>
Ez egitea edo ez komunikatzea / Carencia o no comunicación	36.20	85
Irregularitasunak agiriak betetzean eta komunikatzean / Irregularidades en la cumplimentación y en la comunicación	37.9	10
LARRIALDIKO ZERBITZUAK OZTOPATZEA / Obstaculización de servicios de emergencia	36.5	<b>1</b>
UNIFORMEAK MODU BIDEGABEAN ETA PUBLIKOAN ERABILTZEA / Uso público e indebido de uniformes	36.14	<b>2</b>
AGIRIAK ESKURATZEKO DATU FALTSUAK ALEGATZEA / Alegar datos falsos para documentación	36.21	<b>4</b>
ARGI SORTAK IGORTZEA / Proyección de haces de luz	37.6	<b>1</b>
AGIRI PERTSONALAK ESKURATZEKO LEGEZKO BETEBEHARRA EZ BETETZEA / No obtener la documentación personal obligatoria	37.10	<b>3</b>
ERAIKINAK BAIMENIK GABE ESKALATZEA / escalamiento de edificios sin autorización	37.14	<b>5</b>
AXOLAGABEKERIA DOKUMENTAZIO PERTSONALAREN ZAINZAN / Negligencia en custodia de documentación personal	37.11	<b>4</b>
SEGURTASUN PERIMETROAK KENTZEA / Remoción de perímetros de seguridad	37.15	<b>7</b>
<b>HSBLO-AREN ARAU HAUSTEENGATIK 2019AN HASITAKO ESPEDIENTEAK / EXPEDIENTES INCOADOS POR INFRACCIONES DE LA LOPSC</b>		<b>5.715</b>

### 3.2.2. HERRITARREN PERTZEPZIOA



Delinkuentziaren eta segurtasun ezaren pertzepzioa (%). Iturria: Deustobarometro Soziala, 2019ko negua. Euskal herritarrek kezkatzen dituzten hiru arazo nagusiei buruz galdetzen da.



Herritarren balorazioa Ertzaintzari buruz. Iturria: Euskadiko segurtasun publikoaren pertzepzioari eta biktimizazioari buruzko bi urtean behingo inkesta, 2019ko abendua.


### 3.3. LARRIALDIEI AURRE EGITEA

#### 3.3.1. SOS DEIAK - EUSKADIKO LARRIALDIAK KOORDINATZEKO ZENTROA

SOS Deiak - Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak, 112 telefono zenbakiaren bitartez, 807.305 dei jaso zituen 2019an, eta 207.665 gertakari kudeatu zituen.


Kudeatutako gertakari gehienak honako hauekin lotuta zeuden: larrialdi medikoak (%25,55), bide publikoko arriskuen detekzioa (%22,07), pertsonen istripuak (%15,80), zirkulazio istripuak (%10,90) eta herritarren segurtasuna (%7,47).

### KUDEATUTAKO GERTAKARIAK INCIDENTES GESTIONADOS



Erantzundako deiei dagokienez, Bizkaian 431.905 izan ziren, Gipuzkoan 261.675 eta Araban 113.725.

### ERANTZUNDAKO DEIAK LLAMADAS ATENDIDAS



Era berean, SOS Deiaken aplikazioak, aldi berean, 20.310 deskarga erregistratu zituen; ondorioz, 270 gertakari kudeatu ziren. eCall sistemak, berriz, 32 larrialdi dei sortu zituen.

### 3.3.2. ABISU, ALERTA ETA ALARMA METEOROLOGIKOAK

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzarentzat (LAEMZ), abisuen, alerten eta alarmen sistema funtsezko tresna da meteorologia kaltegarriak eragin ditzakeen mehatxuak eta kalte pertsonal eta materialak minimizatzeke.

2019an, Segurtasun Sailak 265 abisu hori eta 38 alerta laranja aktibatu zituen; alarma gorririk ez. Garrantzitsua da aipatzea egun berean hainbat abisu hori egon daitezkeela, baita hainbat fenomenorekin lotutako hainbat alerta laranja ere.

### 2019AN EMANDAKO ABISUAK

	ABISU HORIAK	ALERTA LARANJAK	ALARMA GORRIAK	GUZTIRA
<b>PREZIPITAZIOAK</b>				
Iraunkorrek	19	4	0	<b>23</b>
Biziak	19	2	0	<b>21</b>
<b>ELURTEAK</b>	<b>25</b>	<b>3</b>	<b>0</b>	<b>28</b>
<b>HAIZEA</b>				
Esposiziopeko eremuak	35	4	0	<b>39</b>
Esposiziopean ez dauden eremuak	12	1	0	<b>13</b>
<b>ITSASOA/KOSTALDEA</b>				
Olatu-nabigazio altuera	56	12	0	<b>68</b>
Galernak	5	0	0	<b>5</b>
Inpaktua kostaldean	41	5	0	<b>46</b>
<b>TENPERATURAK</b>				
Izozteak	21	0	0	<b>21</b>
Altu iraunkorrek	10	1	0	<b>11</b>
Altu muturrekoak	11	6	0	<b>17</b>
<b>BASO SUTEAK</b>	<b>11</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>11</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>265</b>	<b>38</b>	<b>0</b>	<b>303</b>

#### ABISUAK NAHIERAN

Martxoaren 21ean, Munduko Meteorologia Egunaren ospakizunaren harira, Segurtasun Sailak "Abisuak nahieran" izeneko zerbitzu berria ezagutarazi zuen. Tresna hori babes zibilarekin lotuta dago, eta nahi duenari meteorologia kaltegarriaren inguruko iragarpenen datu zehatzak mezu elektronikoen bidez eskaintzen dizkio, doan.

Ordura arte, Segurtasun Sailak aktibatutako meteorologia kaltegarriaren ondoriozko abisuak prebentzio lanetan parte hartzen zuten erakunde eta organismoei helarazten zitzaizkien, SMS eta mezu elektronikoen bidez. Izan ere, 2019an bakarrik, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak (LAEMZ) 100.599 SMS eta 448.964 mezu elektronikoen bidali zituen.

"Abisuak nahieran" izeneko zerbitzu berriari esker, edozein pertsonak jaso ditzake abisu horiek bere posta elektronikoa. Horretarako, 112 Larrialdien webgunean ([www.euskadi.eus/112](http://www.euskadi.eus/112)) alta eman beharko du, EAEko zein eremu geografiko nahi duen eta zer fenomeno kaltegarri interesatzen zaizkion aukeratu ondoren.

#### ALDERANTZIZKO 112

Europar Batasuneko 2010/2274 (INI) ebazpenaren espirituarekin bat etorritik, zeinean kideei eskatzen baitzaie "alderantzizko 112 sistema" bat ezartzeko, hau da, larrialdi larri eta berehalakoetan edo espero direnetan, herritarrak ohartarazteko sistema bat ezartzeko, Segurtasun Sailak funtzionalitate bat garatu du 112 SOS Deiak aplikazioaren barruan, herritarrek beren segurtasuna hobetzeko autobabes ekintzak garatzeko behar dituzten alerta goiztiarrak jaso ditzaten.

GERTAKARI METEOROLOGIKO AIPAGARRIAK

EAEn meteorologia kaltegarriko hainbat gertakari izan dira 2019an. Hona hemen aipagarrienak:

- Urtarrilaren 23tik 24ra bitartean, urteko lehen itsas denboralea izan zen, eta, gainera, prezipitazio ugari eta biziak eta haize bortitzak izan ziren. Gertakariak  $90 \text{ l/m}^2$  inguruko metaketak utzi zituen 24 orduan estazio batzuetan (Cerroja:  $92.5 \text{ l/m}^2$ ), eta haize bolada urakanatuak haizeguneetan (Oiz:  $132.5 \text{ km/h}$ ).
- Aldi berean, elur kota 500-600 metrora jaitsi zen Arabako ekialdean eta Gipuzkoako barnealdeko bailaretan; barnealdeko mendietan, berriz, oso lodiera handiak pilatu ziren.
- Otsailaren 2an bigarren elur denborale bat izan zen. Erkidegoko zenbait puntutan, kota 300 metroko altueran kokatu zen, eta 5-10 cm inguruko lodierak izan ziren ekialdeko lautadako eta uren banalerroko zenbait gunetan.
- Maiatzaren 18an eta 19an uholdeak izan ziren Oiartzun, Urumea eta Bidasoa ibaien arroetan, eta soilik 24 orduan  $120 \text{ l/m}^2$  baino gehiago izan ziren zenbait eremutan (Eskas:  $162.2 \text{ l/m}^2$ ). Metaketa horien ondorioz, gainezkatze puntualak erregistratu ziren Jaizubia errekan eta Bidasoaren arroan. Gainera, euriaren intentsitateak berak zenbait luizi eragin zituen.
- Ekainak muturreko fenomenoak izan zituen. Ekainaren hasieran zenbait estaziotan izozteak erregistratu baziren ere, 27an eta 28an ohi ez bezalako tenperatura altuak izan ziren, eta zenbait urtarotan efemerideak izan ziren.

EFEMERIDE ABSOLUTUEN TAULA

ESTAZIOA	EFEMERIDE BERRIAREN		AURREKO EFEMERIDE ABSOLUTUA	
	GEHIENEO T	T	T	Hila / Urtea
Moreda	42.6		38.4	2016/07
Paganos	40.5		39.1	2012/08
Zanbrana	41.3		41.2	2012/08
Zugaztieta	39.8		37.4	2016/08

- Uztailaren 23an eta 24an tenperatura altuak izan ziren nagusi. Izan ere, minimoak  $20^\circ\text{C}$ -tik gora geratu ziren leku askotan, eta maximoak errekorreko balioetara iritsi ziren uztailean barnealdeko estazio askotan, baita Donostialdean ere, non  $40^\circ\text{C}$ -tik gorakoak izan baitziren.
- 2019ko azaroa erregistroak daudenetik izan den azarorik euritsuena izan zen, batez ere kostaldean, Durangaldean eta Arabako Lautadan, hiru euskal hiriburuak barne. Donostian eta inguruetan urteko hileko prezipitaziorik altuena izan zen.
- Azkenik, abenduaren 9tik 23ra bitartean, itsas eta haize denboraleak nagusitu ziren, hasiera batean zonako fluxuak baldintzatuta, eta, ondoren, depresio atlantiko sakonen segida batek baldintzatuta. Baliorik esanguratsuenak  $160 \text{ km/h}$  ingurukoak izan ziren Matxitxakon, 12an eta 22an.



### 3.3.3. BABES ZIBILEKO JARDUKETA ETA GERTAKARI GARRANTZITSUENAK

2019an, LAEMZk hainbat kasuistikarekin lotutako zenbait gertakari garrantzitsutan esku hartu zuen. Hona hemen garrantzitsuenak:

- Urtarrilaren 7an, 5 pertsona intoxikatu ziren Mungiako (Bizkaia) Bostlan enpresan 300 kilo zirkonio erretzearen ondorioz.
- Bi egun geroago, urtarrilaren 9an, Errezilgo Ernio mendian (Gipuzkoa) abioneta bat erori zen, Portugaletik Hondarribirantz zihoala. Bi tripulatzaileak, ingelesak, berehala hil ziren.
- Martxoaren 3an, baso sute bat izan zen Muskiz inguruan (Bizkaia); horren ondorioz, zenbait eraikin hustu behar izan zituzten; gainera, mozketak izan ziren A-8 autobidean, Bilborako noranzkoan, eta N-634 errepidean, bi norabideetan.
- Egun horretan bertan, 19 urteko gazte bat hil zen Villabuenan (Araba) piztutako baso sute baten ondorioz.
- Martxoaren 12an, Grande America merkataritza ontzi italiarra Frantziako kostaldetik 333 kilometrora hondoratu zen, eta 2.000 tona fuel isuri zuen uretara. Zorionez, istripuak ez zuen eragin kutsagarririk izan euskal kostaldean.
- Maiatzaren 17tik 19ra bitartean "final Four" delakoa egin zen Gasteizen (saskibaloiko Euroligaren azken fasea). LAEMZk aktiboki lagundu zuen agindutako segurtasun lanetan.
- Ekainaren 1ean, Tolosan (Gipuzkoa) bizi ziren bi anaia itota hil ziren Hondarribiko Eretzin kalan.
- Hilabete eta erdi geroago, uztailaren 18an, 11 urteko neskatila bat larri zauritu zen Bermeoko portuan, Zodiac ontzi batek harrapatuta.
- Uztailaren 23an, larrialdietako taldeek 12 scout eta 4 monitore erreskatatu zituzten, Gorbeia menditik jaisten ari zirela behe lainoak harrapatu zituela eta.
- Abuztuaren 23tik 26ra bitartean G-7ko nazioarteko goi bilera egin zen Biarritzen (Iparraldea). Segurtasun Sailak edozein kontingentzia mota aurreikusten duen "Muga Plana" aktibatu zuen, data horietan muga aldean aurreikusten zen trafikoko ugaria kontuan hartuta.
- Irailaren 24an, Frantziatik burilo akrilatuz kargatuta zetorren zisterna kamioi bat Sondikan (Bizkaia) harrapatuta geratu zen, okerreko landa bide batean sartu ondoren. Laguntza lanak zailak izan ziren, baina, azkenean, baliabideek ibilgailua erreskatatzea lortu zuten, inolako isuririk eragin gabe.
- Irailaren 30ean sute bat piztu zen Etxebarriko (Bizkaia) industria pabiloi batean, eta, ondorioz, 50 langile inguru bertatik atera behar izan zituzten, eta 3 suhiltzaile kaltetu ziren. Sua itzaltzeko lanak zenbait orduz luzatu ziren, litiozko bateriak eta beste produktu kimiko batzuk erre zirela eta.
- Urriaren 3an, larrialdietako taldeek Larrabetzuko (Bizkaia) mendizale baten gorpua erreskatatu zuten Gorbeia mendian.
- Urriaren 22an, kamioi batek su hartu zuen N-1 errepidean, Irura parean (Gipuzkoa), eta 9 orduz itxi behar izan zen errepidea.
- Sei egun geroago, urriaren 28an, larrialdietako taldeek Bergarako (Gipuzkoa) mendizale baten gorpua erreskatatu zuten Anboto mendian.
- Azaroaren 13an, Eibarko (Gipuzkoa) 5 solairuko etxebizitza batek erorketa partziala izan zuen. Bizilagunak etxetik atera zituzten aurreko arratsaldean.

### 3.4. BIDE SEGURTASUNA

#### 3.4.1. ERTZAINZAK ERREGISTRATUTAKO ISTRIPUAK

2019an, Ertzaintzak 8.413 trafiko istripu erregistratu ditu Euskadiko errepideetan; horietako 2.623tan biktimak izan ziren, eta 5.790etan ez zen biktimarik izan. Orotara, 15.022 ibilgailuk eta 16.163 pertsonak izan zituzten istripuak; horietatik 41 hil ziren. 302k zauri larriak izan zituzten eta 3.228k zauri arinak.

Trafiko istripuetan hildako pertsonen adierazleak azken urteetan izan duen bilakaerak, 2014an hildakoez aparte, beheranzko joera adierazten du 2017ra arte, ondoko taulan ikus daitekeen bezala (2019ko trafiko istripuak). 2015. urteaz geroztik, hildako pertsonen kopurua 34 eta 44 bitartean egonkortu da.

#### 2019KO TRAFIKO ISTRIPUAK (Behin-behineko datuak, 2020/01/17)

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019*	% DIF	2019-2018
ISTRIPUAK GUZTIRA	<b>8.139</b>	<b>8.323</b>	<b>7.883</b>	<b>7.300</b>	<b>8.071</b>	<b>7.772</b>	<b>7.763</b>	<b>8.413</b>		<b>8,4</b>
Istripu biktimadunak	2.267	2.307	2.292	2.228	2.484	2.347	2.601	2.623		0,8
Biktimarik gabeko istripuak	5.872	6.016	5.591	5.072	5.587	5.425	5.162	5.790		12,2
<b>INPLIKATUTAKO IBILGAILUAK</b>	<b>12.180</b>	<b>13.959</b>	<b>13.469</b>	<b>12.632</b>	<b>13.854</b>	<b>13.797</b>	<b>14.031</b>	<b>15.022</b>		<b>8,9</b>
<b>INPLIKATUTAKO PERTSONAK</b>	<b>15.210</b>	<b>15.278</b>	<b>14.866</b>	<b>14.009</b>	<b>15.312</b>	<b>15.020</b>	<b>15.549</b>	<b>16.163</b>		<b>7,6</b>
Hildakoak	50	46	24	44	39	34	37	41		20,6
Zauri larriak	289	293	257	285	270	322	300	302		0,7
Zauri arinak	2.938	2.957	2.928	2.778	3.171	2.951	3.239	3.228		-0,3

Biktimak eragin dituzten Istripuen seriea estatistikoki fidagarriena da bide istripuekin lotutako serie guztien artean, eta 2003tik beheranzko joera du, baina atalase baxu batera iristen denean, gero eta zailagoa izaten da horri eustea, 2015-2019 urteetan ikusi den bezala. Beraz, ikusten da datua egonkortu egin dela.

## EUSKADIKO ERREPIDEETAN BIKTIMAK ERAGIN DITUZTEN ISTRIPUEN BILAKAERA

### EVOLUCIÓN DE LOS ACCIDENTES CON VÍCTIMAS EN LAS CARRETERAS DE EUSKADI



- Biktimak eragin dituzten istripuak / Accidentes con víctimas
- Lineala (biktimak eragin dituzten istripuak) / Lineal (accidentes con víctimas)

2019an euskal errepideetan erregistratutako trafiko istripuen ezaugarriei dagokienez (urtero errepikatu egiten dira, aldaketa txiki batzuekin), honako hauek nabarmendu ditzakegu:

- Istripua izan duten hamar pertsonatik zazpi gizonezkoak dira, eta hiru emakumezkoak. Istripu hilgarrietan, are gehiago, gizonen ehunekoa %90eraino igotzen da, eta emakumeena, berriz, jaitsi.
- Errepideko trafiko istripuetan inplikaturako pertsonen %23 inguruk 35 eta 44 urte bitartean dituzte, %18k 25 eta 34 urte bitartean, %22k 45 eta 54 bitartean, %14k 15 eta 24 bitartean, %13k 55 eta 64 bitartean, %7k 65 urte edo gehiago, eta, azkenik, %3k 15 urte baino gutxiago. 2019an errepideko istripuetan inplikaturako pertsonen adinaren arabera egitura hori oso gutxi aldatzen da aurreko urteetan istripua izan zutenen adinaren arabera egiturarekin alderatuta.
- Istripua izan duten pertsonen %81 gidariak dira, %18 bidaiariak eta %1 oinezkoak.
- Inplikaturako ibilgailuen %64 turismoak dira, %4 ziklomotorrak edo motozikletak, %3 bizikletak, eta gainerako ibilgailuak, berriz, pertsonak edo salgaiak garraiatzen dituztenak.
- Biktimak eragin dituzten istripuen %39 martxan zeuden ibilgailuek talka eginda gertatu dira; %26, segurtasun hesiaren aurka talka eginda; %2, iraulien ondorioz; %5, galtzadatik irtenda edo amilduta; %5, erortzearen ondorioz; %13, harrapatuta; eta gainerako %10a, bestelako istripuen ondorioz.
- Bidearen egoerari dagokionez, kasuen %59an bidea lehor eta garbi zegoen, eta gainerako %41ean baldintzatzailearen bat zegoen bidearen gainazalean: ura, elurra, izotza, olio, etab.
- Istripuen %52 lanegunetan gertatzen dira, eta %48 jaiegunetan, jaiegunaren aurretik edo ondoren. Biktimak izan dituzten istripuetan, banaketa bera mantentzen da.

- Biktimak eragiten dituzten istripuen %62 egunez gertatzen dira, eta %38 gauez. Ikusten da biktimak gauez eragiten dituzten istripuek gora egin dutela 2018. urtearekin alderatuta.
- Istripua izan duten gidariek, oro har, uhala edo kaskoa erabiltzen dute.

### 3.4.2. ERTZAINEK ETA UDALTZAINEK ERREGISTRATUTAKO ISTRIPUAK

Euskadin, 2019an, 51 zirkulazio istripu hilgarri gertatu dira guztira (Ertzaintzak 41 erregistratu ditu eta udaltzainek 10); ondorioz, 51 pertsona hil dira (41, Ertzaintzak erregistratutako istripuetan, eta 10, udaltzainek erregistratutakoetan) berehala edo lehen 24 orduak igaro aurretik. Guztira, iaz baino 12 trafiko istripu hilgarri gehiago izan dira 2019an, eta bederatzita pertsona gehiago hil dira.

Gipuzkoako eta Bizkaiko lurralde historikoetan hildako pertsonen kopuruan, 2018ko datuekin alderatuta, 6 hildako gehiago izan dira; Araban, berriz, 3 hildako gutxiago izan dira. Euskadiko trafiko istripu hilgarrien bilakaera aztertuz gero, 2. grafikoak erakusten duenez, 2002. urtetik beheranzko joera izan du, 2014an erregistratutako minimora iritsi arte, 29 hildakorekin. 2015etik 2019ra bitartean, hildakoen kopurua 53 eta 39 pertsona bitartean ibili da.

#### *Istripu tasaren tipologia*


- Hildakoen %71 gidariak dira (%44 motorren gidariak, %53 turismoenak edo beste ibilgailu batzuenak, eta %3 bizikletarenak), %4 automobileko bidaiariak eta gainerako %25 oinezkoak (hamahiru pertsona lau gurpileko ibilgailuek harrapatuta).
- Hildako 51 pertsonetatik, %58,82 (30), kolektibo zaurgarrietakoak dira. 2019an 16 motor gidari, txirrindulari bat eta 13 oinezko hil dira. 2018ko datuekin alderatuta, 8 pertsona gehiago hil dira.
- Hildakoen %86 gizonak dira, eta gainerako %14 emakumeak. Desoreka hori are nabarmenagoa izaten da gidarien artean; izan ere, automobil bat gidatzean hildakoen %90 eta motozikletetan hildakoen %100 gizonak dira. Hildako bidaiariei dagokienez, ehunekoak orekatuta daude, %50 gizonak baitira, eta %50 emakumeak. Harrapatutako pertsonen ehunekoetan, antzera: %62 gizonak dira eta %38 emakumeak.
- 2019an hildako pertsonen tipologiari dagokionez, 2018an hildakoen tipologiarekin alderatuta, gidarien (+6) eta oinezkoen (+6) pisuak gora egin du, nahiz eta bidaiariena txikitu egin den (-3).
- Euskadin, zirkulazio istripuak dira 30 urtera arteko lehen heriotza kausa, 40 urtera arteko hirugarrena eta 50 urtera arteko hamargarrena.

## TRAFIKO ISTRIPUETAN HILDAKOEN BILAKAERA

(Ertzaintzak eta Udaltzaingoen  
erregistratutako datuen arabera)

## EVOLUCIÓN DEL NÚMERO DE PERSONAS FALLECIDAS EN ACCIDENTES DE TRÁFICO


(registrados por la Ertzaintza  
y por las Policías Locales)



2002 2003 2004 2005 2006 2007 2008 2009 2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019

Lineala (EAE) / Lineal (CAPV)

EAE / CAPV



2002 2003 2004 2005 2006 2007 2008 2009 2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019

Bizkaia

Gipuzkoa


Araba

### Pertsonen adinaren arabera ehunekoak

- Hildako gidarien %8, 25 urtetik beherakoak dira; %36, 25 eta 44 urte bitartekoak; %36, 45 eta 64 urte bitartekoak, eta %20, 65 urte edo gehiagokoak.
- Hildako bidaiarien %100, 25 eta 44 urte bitartekoak dira.
- Hildako oinezkoen %23, 25 eta 44 urte bitartekoa da; %15, 45 eta 64 urte bitartekoa, eta %62, 65 urte edo gehiagokoa.

### Kolektibo zaurgarriak

Hildakoen ia %60 kolektibo zaurgarri batekoak ziren. (%25,5 oinezkoak ziren, %31 motorzaleak eta ia %2 txirringulak).



### Oinezkoak


2019an hildako oinezkoei dagokienez, %62 gizonezkoak ziren. Gainera, 65 urte baino gehiagorekin hildako oinezkoen ehunekoa berdina da. Iraila izan zen oinezkoen ezbehar kopuru handieneko hilabetea, urte osoan hildako 13 oinezkoetatik 4 irailean hil baitziren. Udako hilabeteetan, ordea, ez zen hildakorik izan. Azkenik, aipatzekoa da hildakoen %62 hiriarteko errepideetan hil zirela.

### Motor gidariak

2019an hildako motorzaleen artean, denak gizonezkoak zirela nabarmendu behar da. Gainera, 2015etik joera bera ikusten da. Era berean, aipatzekoa da 600 cc-ko edo gehiagoko motorzarekin hildako motorzaleak asteburuan hil direla, eta 600 cc-tik beherakoak aste barruan. Ezbehar kopuru handieneko hilabetei dagokienez, otsaila eta urria nabarmendu behar dira, 3na hildako izan baitira hilabete horietan. Urtarrilean, maiatzean eta abenduan, berriz, ez zen motor gidaririk hil.

## HILDAKO MOTORZALEEN BILAKAERA, SEXUAREN ARABERA

### EVOLUCIÓN POR SEXO DE PERSONAS MOTORISTAS FALLECIDAS



#### 3.4.3. ADMINISTRAZIO PROZEDURAK

- Zehapen espedienteak: 295.863
- Dazkaten ezaugarri teknikoengatik edo garraiatzen duten zama zatiezinagatik erregelamendu bidez ezarritako gehieneko masa eta neurriak gainditzen dituzten ibilgailuentzako baimen bereziak: 5.075
- Ibilgailuen alta, baja eta aldaketen espedienteak, gidarien eskola partikularrei, langileei eta ibilgailuei dagokienez: 594
- Lokalen ikuskapenak: 190
- Zirkulazio baimen bereziak data murriztaileetan: 200
- Obra eta bestelako ekitaldietarako jarraibideak: 4.304

Trafiko Zuzendaritzak baimena eta informazioa ematen du EAEko hiriarteko bideetatik osoki edo partzialki igarotzen diren lasterketa, lehiaketa eta, oro har, kirol probei buruz.

- Trafiko Zuzendaritzak 316 baimen eman ditu.
- Trafiko Zuzendaritzak 36 espediente izapidetu eta baimendu ditu.

EAEn egindako kirol probetan mobilizatutako baliabideak (Ertzaintzaren laguntza datuak):

- Agentek: 2.281
- Autoak: 257
- Motorrak: 1.542

### 3.5. JOKO ETA IKUSKIZUNAK

#### 3.5.1. JOKOA

Ondoren, Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzaren jarduerari buruzko daturik esanguratsuenak eskaintzen dira. Jokoari lotutako beste jarduera batzuk daude baina ez dira islatu, esparru lokaletan garatzen direlako, tarteka, eta izaera minoritarioa dutelako, hala nola herri kirolak, frontoietako apustuak eta abar, horien zenbateko ekonomikoa oso mugatua delarik.

Datuak eta estatistikak lantzeko iturriak Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzarenak berarenak dira (Sistema eta Kudeaketa Zerbitzua, Aholkularitza Juridikoko Zerbitzua, Lurralde Bulegoak, eta Ertzaintzaren Joko eta Ikuskizunen Unitatea).

#### JOKO JARDUERAK 2019AN

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA /TOTAL
<b>ENPRESA OPERADOREAK / EMPRESAS OPERADORAS</b>				
"B" makinak / máquinas "B"	49	138	70	<b>257</b>
"C" makinak / máquinas "C"		1	1	<b>2</b>
Apustu makinak / máq. de apuestas		2	1	<b>3</b>
Joko lokalak / locales de juego	9	47	32	<b>88</b>
<b>JOKO MAKINETARAKO BAIMENAK / PERMISOS MÁQUINAS DE JUEGO</b>				
"BH" Ostalaritza baimenak / Permisos "BH" Hostelería	1.242	4.499	2.224	<b>7.965</b>
"BS" Areto baimenak / Permisos "BS" Salones	386	1.436	819	<b>2.641</b>
"BG" Bingo baimenak / Permisos "BG" Bingo	23	62	12	<b>97</b>
"C" Kasino baimenak / Permisos "C" Casino		67	57	<b>124</b>
"P" Apustu baimenak / Permisos "P" Apuestas	418	1.043	658	<b>2.119</b>
Apustu baimenak apustu lokaletan eta gaitutako lokaletan / Permisos de apuestas en Locales de apuestas y habilitados	136	449	247	<b>832</b>
Apustu baimenak ostalaritzan eta bestelakoetan / Permisos de apuestas en Hostelería y otros	282	594	411	<b>1.287</b>
Bingoak / Bingos	3	9	4	<b>16</b>
Edukiera / Aforo	1.000	2.294	1.135	<b>4.429</b>
Joko aretoak / Salones de juego	33	111	66	<b>210</b>
Gaitutako apustu lokala / Habilitado local de apuestas	8	17	9	<b>34</b>
Kasinoak / Casinos		1	1	<b>2</b>
Edukiera / Aforo		600	620	<b>1.220</b>
Apustu lokalak / Locales de apuestas	5	19	10	<b>34</b>
Hipikako apustuak (Enpresak) / Apuestas hípicas (Empresas)			1	<b>1</b>
Zozketak / Rifas				<b>23</b>
Ausazko konbinazioak / Combinaciones aleatorias				<b>101</b>



### Jokatzeko materialaren homologazioa

Jokoari lotutako jarduerak garatzeko behar diren material, sistema, makina, terminal, software edo tresnak homologatuta egon beharko dira, eta Jokoaren Erregistro Nagusian inskribatuta; baldintza hori bera bete beharko da fabrikatu, ustiatu, merkaturatu eta lokaletan instalatzeko.

	2018	2019
“AR” makinaren modeloak / Modelos de máquinas “AR”	9	1
“B” makinaren modeloak / Modelos de máquinas “B”	135	64
“C” makinaren modeloak / Modelos de máquinas “C”	12	21
Sistema interkonektatuak / Sistemas interconectados	1	3
“B” makinaren merkataritza probak / Pruebas comerciales máquinas “B”	11	5
“P” motako apustu makinak / Máquinas de apuestas tipo “P”	0	1
Ez-funtsezko aldaketa / Modificación no sustancial	98	107
Funtsezko aldaketa / Modificación sustancial	12	20
<b>Guztira / Total</b>	<b>278</b>	<b>222</b>

### Joko lokalak Euskal Autonomia Erkidegoan

	GUZTIRA / TOTAL 2018	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA / TOTAL 2019
Kasinoak / Casinos	2		1	1	2
Bingoak / Bingos	13	3	8 (+1)	3 (+1)	14 (+2)
Joko aretoak / Salones de juego	210	31 (+2)	110 (+1)	64 (+2)	205 (+5)
Apustu lokalak / Locales de apuestas	33	5	19	10	34
<b>Lokalak guztira / Total locales</b>	<b>258</b>				<b>262</b>

(+) ikurrarekin markatutako lokalak izapidetze fasean daude edo irekitzeko zain. Los locales indicados con (+) están en tramitación o pendiente de apertura.

### Apustu orokorrak

Kontuan hartuta apustu orokorren azpisektorea jokoaren sektorean hartzen ari den interes ekonomiko eta garrantzi gero eta handiagoa, egokitzat jo da EAEko apustuen enpresa esleipendunen jarduera ekonomikoari buruzko datuak erakustea.

L. historikoen eta lokal/kanal- motaren arabera / Por T.H. y tipo de local/canal		Apustu kop. / nº apuestas	Bildutako dirua / Recaudación	Sariak / Premios	Garbia / Neto
ARABA	Apustu lokala / Local de apuestas	422.270	4.769.682 €	4.152.001 €	617.680 €
	Gaitutako aretoak Salón Habilitados	375.129	2.929.555 €	2.437.247 €	492.307 €
	Kornerrak / Corners	1.459.096	11.483.483 €	9.600.167 €	1.883.316 €
	Ostalaritza / Hostelería	2.786.424	16.981.917 €	14.001.124 €	2.980.793 €
	Online kanala / Canal online	1.529.018	23.086.900 €	20.810.688 €	2.276.212 €
BIZKAIA	Apustu lokala / Local de apuestas	3.351.592	25.359.981 €	21.825.655 €	3.534.326 €
	Gaitutako aretoak Salón Habilitados	587.636	5.665.379 €	4.731.758 €	933.621 €
	Kornerrak / Corners	4.947.316	38.186.124 €	31.944.409 €	6.241.716 €
	Ostalaritza / Hostelería	7.856.583	45.547.648 €	37.890.148 €	7.657.500 €
	Online kanala / Canal online	5.149.604	74.643.396 €	66.844.304 €	7.799.091 €
GIPUZKOA	Apustu lokala / Local de apuestas	1.137.962	13.689.381 €	11.957.496 €	1.731.885 €
	Gaitutako aretoak Salón Habilitados	279.791	3.859.212 €	3.249.893 €	609.320 €
	Kornerrak / Corners	2.406.537	22.334.420 €	18.907.743 €	3.426.677 €
	Ostalaritza / Hostelería	4.490.846	32.086.171 €	26.839.395 €	5.246.776 €
	Online kanala / Canal online	3.473.451	56.017.219 €	50.052.938 €	5.964.281 €
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>	<b>40.253.255</b>	<b>376.640.468 €</b>	<b>325.244.967 €</b>	<b>51.395.501 €</b>	

### 3.5.2. IKUSKIZUNAK

Xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen diren ikuskizun publikoak eta jolas jarduerak arautzea, baita horiek hartzen eta garatzen dituzten establezimendu publikoek eta espazio irekiek bete beharreko baldintzak eta betekizunak ere, izan haien titularrak edo antolatzaileak erakunde publikoak edo pertsona fisiko edo juridiko pribatuak, irabazi asmoa dutenak edogabeak, instalazio finko, eramangarri edo desmontagarrietan egiten direnak eta aldizka edo tarteka egiten direnak.

#### IKUSKIZUN ETA JOLAS JARDUERETARAKO LOKALAK, EUSKO JAURLARITZAREN KONTROLPEKOAK (EDUKIERA > PERTSONA ETA ZEZEN PLAZAK)

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira / Total
Dantzalekuak, diskotekak / Salas de fiestas, discotecas	3	7	5	16
Zinemak, antzokiak / Cines, teatros	4	15	7	26
Museoak eta Erakusketa aretoak / Museos y Salas de exposiciones	4	9	5	18

Azoka esparru eta/edo kongresuena / Recinto ferial y/o de congresos	1	3	1	5
Futbol zelaia / Campos de fútbol	10	33	9	52
Pilotalekuak / Frontones	1	8	15	24
Kirol barrutiak / Complejos deportivos	3	0	10	13
Kiroldegia / Polideportivos	8	45	29	82
Beste kirol instalazio batzuk / Otras instalaciones deportivas		4	4	8
Zezen plaza iraunkorrak / Plazas de toros permanentes	1	4	3	8
Bestelako lokalak / Locales varios	9	0	4	13
<b>GUZTIRA / TOTAL &gt; 700</b>	<b>44</b>	<b>129</b>	<b>92</b>	<b>265</b>

### JIZk baimendutako ikuskizunak eta jarduerak

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	2018	2019
Zezen ikuskizun nagusiak / Taurinos generales		15	11	31	26
Usadiozko zezen ikuskizunak / Taurinos tradicionales	48	16	81	150	145
Bestelako zezen ikuskizunak (Errekortadoreak) / Otros taurinos (Recortadores)		1	1		2
Plaza berri irekitzea / Reapertura plaza		4	2	5	6
Birsalmenta / Reventa		1		1	1
Piroteknia artifizioak / Artificios pirotécnicos	11	36	37	96	84
Kontzertuak, jaialdiak / Conciertos, Festivales	12	42	32	66	86
Bestelako jolas jarduerak / Actividades recreativas varias	36	231	28	256	295
Orduzuzapenak / Ampliaciones de horario	4	6	6	15	16
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>	<b>111</b>	<b>352</b>	<b>198</b>	<b>620</b>	<b>661</b>

### Zezen jarduerak

Zezen ikuskizun eta ospakizunek administrazioaren aurretiazko baimena behar dute, erregelamenduak jarduera egin aurretik haren aurrean jakinarazpena egiteko ezartzen duen kasuetan izan ezik.

	2018	2019
Zezenketak / Corridas	18	14
Burtzi zezenketak / Corridas rejones	2	1
Burtzi zezenketa mistoak / Corridas mixtas rejones	0	1
Pikatzailerik gabeko nobilladak / Novilladas sin picadores	9	6
Nobilladak / Novilladas	0	0
Jaialdiak / Festivales	2	4
<b>Guztira / Total</b>	<b>31</b>	<b>26</b>


### 3.5.3. TRAMITATUTAKO ZEHAPEN ESPEDIENTEAK ETA ERREKURTSOAK

Hurrengo koadroetan Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren aholkularitza juridikoaren arloan izapidetutako espediente guztiak azaltzen dira, mota hauen arabera sailkatuta:


- Lege hauen aurkako arau hausteengatik abiatutako zehapen espedienteak: 4/1991 Legea, azaroaren 8koa, jokoaren arautzen duena, 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, ikuskizun publiko eta jolas jarduerak arautzen dituena, 19/2007 Legea, uztailearen 11koa, kiroleko indarkeriaren, arrazismoaren, xenofobiaren eta intolerantziaren aurkakoa.
- Aipatu 4/1991 eta 10/2015 legeen inguruan egindako errekerimenduak eta ohartarazpenak..
- Joko lokaletan sartzeko debekuaren inguruko espedienteak, Jokoa Arautzen duen Legearen 23.4.c artikuluan xedatutako baldintzetan.
- Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren eskumeneko gaietan emandako Ebazpenen aurka gora jotzeko aurkeztutako errekurtsoen ebazpenak.

2019an 251 zehapen espediente tramitatu ziren, horietatik 21 2018an hasitakoak.

#### Jokoari lotutako zehapen espedienteak




#### ARAU-HAUSTEAREN ARABERAKO ESPEDIENTEAK EXPEDIENTES POR TIPO DE INFRACCIÓN




ARAU-HAUSTE DIREN EGINTZEN ONDORIOZ IZANDAKO ESPEDIENTEAK / EXPEDIENTES POR  
HECHOS CONSTITUTIVOS DE INFRACCIÓN

Legez kontrako jokoa / juego ilegal	4
Joko debekatua/ Juego prohibido	0
Adingabeei jokatzeko uztea / permitir juego a menores	9
Adingabeak egotea / presencia de menores	4
Adingabeak sartzea edota jokatzeko, 10/2015 Legearen arabera / Acceso y/o juego de menores según Ley 10/2015	21
Ixteko ordutegia ez betetzea / Incumplimiento horario de cierre	14
Onarpen kontrola bingoetan/ Control de admisión en Bingos	2
Makinetan irregulartasunak / irregularidades en máquinas	14
Ausazko konbinazioa / combinación aleatoria	1
Ostalaritzako aretoetan baldintzak ez betetzea/ Incumplimiento requisitos en salones de hostelería	4
Joko lokaletan segurtasun neurriak ez betetzea / Incumplimiento de medidas de seguridad en locales de juego	3
Akzioak eskualdatzea / Transmisión de acciones	1
Dokumentaziorik aurkeztu gabe abiaraztea / Puesta en funcionamiento sin presentación de documentación	0
Administrazio baldintzak ez betetzea / Incumplimiento de requisitos administrativos	2
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>	<b>79</b>

*Ikuskizunei lotuta tramitatutako zehapen espedienteak*



**ARAU-HAUSTEAREN  
ARABERAKO ESPEDIENTEAK  
EXPEDIENTES POR TIPO DE  
INFRACCIÓN**



ARAU-HAUSTE DIREN EGINTZEN ONDORIOZ IZANDAKO ESPEDIENTEAK / EXPEDIENTES POR  
HECHOS CONSTITUTIVOS DE INFRACCIÓN

KIROLEKO INDARKERIA / VIOLENCIA EN EL DEPORTE	<b>119</b>
Antolatzailearen arau haustea / Infracción del organizador	22
Kirol barrutian ikuslearen arau haustea / Infracción del espectador en recinto deportivo	91
Inguruetan ikuslearen arau haustea / Infracción del espectador en aledaños	0
Largetsitakoak / Sobreseídos	6
<b>ORDUTEGIA EZ BETETZEA / INCUMPLIMIENTO DE HORARIO</b>	<b>2</b>
<b>SARREREN BIRSALEMENTA / REVENTA DE ENTRADAS</b>	<b>9</b>
Zezenak / Toros	6
Kirola (Futbola) / Deporte (Fútbol)	3
Largetsitakoak / Sobreseídos	0
<b>SEGURTASUN NEURRIAK / MEDIDAS DE SEGURIDAD</b>	<b>16</b>
Ebakuazio bideetako irregulartasuna / Irregularidades en las vías de evacuación	6
Segurtasun araudia behin baino gehiagotan ez betetzea / Incumplimientos múltiples de la normativa de seguridad	9
Largetsitakoak / Sobreseídos	1
<b>ZEZEN IKUSKIZUNAK / TAURINOS</b>	<b>4</b>
Nagusiak / Generales	1
Usadiozkoak / Tradicionales	3
<b>EDUKIERA / AFORO</b>	<b>0</b>
<b>SARRERA UKATZEA / DERECHO DE ADMISIÓN</b>	<b>4</b>
<b>BAIMENA GABEKO IKUSKIZUNA / ESPECTÁCULO SIN AUTORIZACIÓN</b>	<b>3</b>
<b>IKUSKIZUNAREKIN LOTUTAKO ELEMENTUETAN IRUZURRA EGITEA / FRAUDE EN LOS ELEMENTOS CONSTITUTIVOS DEL ESPECTÁCULO</b>	<b>1</b>
Ikuskizuna egiteko baldintzak ez betetzea / Incumplir las condiciones de celebración del espectáculo	1
Largetsitakoak / Sobreseídos	0
<b>ADINGABEAK / MENORES</b>	<b>14</b>
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>	<b>172</b>

### 3.6. ERAKUNDE ARTEKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA

Atal honetan aipatzen dira harreman instituzionalerako tresna eta organo nagusiak, Segurtasun Sailaren, Eusko Jaurlaritzako gainerako Sailen eta segurtasun publikoari lotutako politikak prestatzen inplikatzeko erakunde eta agentzia moduan identifikatu diren beste Administrazio Publiko batzuen artean, eta, horrez gain, eragile ekonomiko eta sozialek eta herritarrek parte hartzeko formulak identifikatzen dira. Ondoren, II. Eranskinean, organo, hitzarmen eta protokoloen zerrenda eta deskribapen zehatza aurkezten da.

### 3.6.1. EUSKO JAURLARITZAKO ETA GAINERAKO EUSKAL ERAKUNDEETAKO BESTE ARLO BATZUEKIKO LANKIDETZA ESPARRUAK

Segurtasun Sailak Eusko Jaurlaritzako eta gainerako euskal erakundeetako beste arlo batzuekin dihardu lankidetzan, funtsezko alderdi hauetan:

- Alkohola eta gazteak:
  - o Alkohol eta Gazteen Erakunde arteko Batzordea.
  - o Erakunde arteko eta sektore arteko lantaldeak.
- Immigrazioa:
  - o Immigraziorako Euskal Estrategia.
  - o Immigratzaileen integrazio eta partaidetza sozialerako foroa.
- Ijito herria:
  - o Ijito herriarekiko politiken Euskal Estrategia.
  - o Ijito herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseilua.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Plana:
  - o Segurtasun Sailaren Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Plana.
  - o Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Saileko Talde Teknikoa.
- Adikzio Plana:
  - o Droga Menpekotasunen Aholku Kontseilua.
  - o Adikzioen gaineko Erakunde arteko Koordinazio Batzordea.
  - o Adikzioen Euskal Kontseilua.
- Gazteria:
  - o Gazteen Justizia Plana edo Gazteriaren arloko Politika Integrala edo Gazteriaren arloko Zuzendaritza Batzordea edo Gazteriaren arloko Politikako Batzorde Teknikoa.
- Ingurumena:
  - o Uholdeen azterketa eta kudeaketa eta lurraldearen antolamendua
- Boluntariora:
  - o Herritarrek Larrialdiei Aurre egiteko Euskal Sistemari (SVAE) borondatez parte hartzea.
- Estatistika:
  - o Estatistikaren Euskal Kontseilua
  - o Estatistikaren Euskal Batzordea.

### 3.6.2. ERAKUNDE ARTEKO KOORDINAZIO ORGANOK

- **Euskadiko Segurtasun Batzordea.** EAeko Segurtasun Publikoaren Sistemari, Estatuaren Administrazio Orokorrekin izan beharreko koordinazioa eta lankidetzaren ordenamendu juridikoan aurreikusitako mekanismoen bidez egin behar da, eta, bereziki, Ertzaintzaren eta Estatu Segurtasun Indar eta Kidegoen arteko koordinazioari dagokionez (FCSE), Segurtasun Batzordearen bidez, Autonomia Estatuaren 17.4 artikulua araberako.
- **Udaltzaingoak Koordinatzeko Batzordea.** Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema antolatzen duen 15/2012 Legeak, ekainaren 28koak, Euskadiko Udaltzaingoak Koordinatzeko Batzordea eratzen du, Udaltzaingoak koordinatzeko kontsulta organo gisa, segurtasun publikoaren eskumena duen Sailari atxikita.



- **Koordinaziorako Tokiko Batzordea Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen artean.** Poliziak koordinatzeko tokiko batzordeak Ertzaintzaren eta udaltzaingoen polizia zerbitzuen arteko koordinazio organoak dira, haiek esleituta dituzten eginkizunak burutzeko, polizia erakunde bakoitzaren berezko eskumenak errespetatuta. Horretarako, lurraldeko segurtasun publikoaren egoera aztertzea, jarduteko irizpide bateratuak eta protokoloak lantzea eta abar dagozkie. Hiriburuetan eta Ertzaintzaren lurralde mugape bakoitzean daude.
- **Euskadiko Babes Zibilerako Batzordea.** Euskadiko babes zibilaren arloko organo kolegiatu aholkularia, erabakitzailea, koordinatzailea eta homologatzailea da. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari atxikita dago, Batzordearen lehendakaritza Segurtasun Sailburuordetzari dagokio, eta batzordekideak dira Eusko Jaurlaritzaren hainbat sail, Foru Aldundiak, Estatuak Euskal Autonomia Erkidegoan duen administrazioa eta Eudel.
- **EAEko Ingurumen Batzordea.** Aholkularitza organoa, ingurumenaren arloko ardura duen Sailari atxikia, Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumenaren arloan diharduten administrazioen harremanetarako, parte hartzeko eta koordinatzeko organoa izanik.
- **EAEko Lurralde Antolamendurako Batzordea** EAEko Administrazioaren aholkularitza eta koordinazio organo nagusia, Lurralde Antolamenduaren eremuan, itsasertzari eta hirigintzari dagokienez.

### 3.6.3. AHOLKULARITZA ETA KOORDINAZIO ORGANOA

- **Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordea.** Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen Bosgarren Aldaketaren 7/2019 Legeak, ekainaren 27koak, polizia eredia indartzeari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordea sortzea onartu du, erakunde kolegiatu iraunkor gisa, autonomia funtzionala duena erakunde polizialarekiko eta segurtasun arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailarekiko, zilegitasuna eta herritarren konfiantza indartzeko poliziaren jardueraren gaineko kontrolen neutraltasunean eta objektibotasunean.
- **Euskadiko Babes Zibileko Boluntariotzaren Aholku Batzordea.** Euskadiko Babes Zibileko Batzordearen lan organoa. Batzordearen osaeran bere kide diren erakundeak egongo dira, batzordeak erabakitzen duen moduan, eta Babes Zibileko Boluntarioen Erakundearen Erregistroan inskribatutako erakundearen ordezkariari dei egin ahal izango zaie, haiek proposatuta.
- **Gurutze Gorriaren Batzorde Autonomikoa.** Euskadin Erakundearen gobernua bere gain hartzen duen organoa da, Espainiako Gurutze Gorriaren xede eta helburu orokorrekin bat eginda, eta Erakundearen goi mailako organoek ezarritako politika, plan eta irizpideen arabera.
- **Euskadiko Bide Segurtasuneko Batzordea.** Aholku organo bat da, eta bere zeregina da bide segurtasunean eragiten duten eskumenak baliatzen dituzten herri administrazioen koordinazioa erraztea, eta koordinazio horren hobekuntza bultzatzea, trafikoari eta bide segurtasunari lotutako erakunde publiko eta pribatuak elkartzearen eta parte hartzearen bidez.
- **Jendaurreko ikuskizun eta jolas jardueretarako Euskal Kontseilua.** Euskadiko administrazio publikoen kontsulta, azterketa eta aholkurako organoa da, ikuskizunei eta jolas jarduerari lotutako gaietan. Bertan, Eusko Jaurlaritzako hainbat kudeaketa arlotako ordezkariak daude presente, horien artean egonik polizia, babes zibila, kultura, kirolak, hezkuntza, industria, osasun publikoa, kontsumoa eta turismoa eta euskal udalak, baita merkataritza ganberen, eragindako sektore ekonomikoen eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsarako elkarteen ordezkariak ere.
- **Zezenketa Gaien Euskal Batzorde Aholku Emailea.** Zezenketa ikuskizunei buruzko kontsulta eta aholkularitza organoa, zeinean, ikuskizunen arloko arduradunetz gain, osasun publikoaren arloko eta

animalien osasunaren arloko arduradunek, udaletako ordezkariak, zezen plazetako buruen ordezkariak eta plaza ordezkari batek ere parte hartzen dute.

- **Jokoaren Euskal Kontseilua.** Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan zori, enbite edo ausazko jokoekin zerikusia duten ekintza guztiak planifikatu, koordinatu eta kontrolatzeko organo aholku emalea da. Kontseiluan Eusko Jaurlaritzaren hainbat kudeaketa arlotako ordezkariak, Foru Aldundietako ordezkariak eta euskal udaletako ordezkariak daude.
- **Jokoaren Euskal Behatokia.** Izaera kolegiatuko organoa da, bere xedea izanik Euskadin jokoaren etengabeko azterketa eta analisisa egitea, Euskadiko Jokoaren Agintaritzari fenomeno osoari buruzko ikuspegi oso bat emateko helburuarekin, politika publikoak inplementatzean kontua hartzeko.
- **Jokoaren Batzorde Tekniko Aholkularia.** Joko arloan eskumena duen Sailari atxikitako parte hartze eta aholkularitza organoa, horren egitura organikoan integratu gabe, xedea izanik joko sektorearen iradokizunak eta proposamenak bideratzea, joko sektorearen egoera zein den aztertzea, arau berriek eta joko mota berriek sektorean duten eragina aztertzea, eta joko arduratsua sustatzeko ekimenak bultzatzea.

#### 3.6.4. PARTAIDETZA ORGANOAK

- **Euskadiko Segurtasun Publikoaren Kontseilua.** EAEko kontsulta eta partaidetza organo nagusia da eta bere helburua da ideiak eta esperientziak trukatzea, segurtasun publikoaren politikarekin zerikusia duten eta horren eraginpean dauden erakunde eta instituzioen jardueren artean koherentzia egon dadin. Organo honi eta segurtasunean parte hartzeko tokiko batzordeei esker, administrazio publikoek, agintariak eta polizia kidegoek eta segurtasunari lotutako gainerako zerbitzu publikoek ere segurtasun publikorako politikak diseinatzen, aplikatzen eta ebaluatzen parte hartu dezakete.
- **Segurtasun Pribatuko Batzorde Mistoa.** Euskadiko Segurtasun Pribatua Koordinatzeko Batzordeari dagokio arlo honetan inplikaturako sektoreen koordinazioa sustatzea, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan.

#### 3.6.5. LANKIDETZA HITZARMENAK ETA PROTOKOLOAK

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak lankidetzako zenbait hitzarmen eta protokolo ditu maila desberdinetan: Lankidetzako Hitzarmena Segurtasun Sailaren eta EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartearen artean, Udaltzaingoei dagokienez; Segurtasun Sailaren eta Udalen arteko Lankidetzako Hitzarmenak; Ertzaintzak eta Udaltzaingoen izenpetutako Protokoloak; Udalek, Ertzaintzak, Mankomunitateetako ordezkariak eta Osakidetzako ordezkariak sinatutako erakunde arteko Protokoloak Indarkeria Sexistaren Biktimen arloan; eta Sektore gaitan sinatutako Hitzarmenak.

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak Irrati Komunikazio Mugikorreko Sare Digital bat dauka (IMSD), TETRA teknologia estandarrean oinarritua eta horrek segurtasun eta larrialdi publikoaren arloko erabiltzaileei ahots bidezko eta datu bidezko komunikazio-zerbitzuak eskaintzen dizkie. IMSD Segurtasun Sailaren Komunikazio Sareari eusten dioten zerbitzuetako bat da, eta horri esker interkonekta daitezke EAEn dauden estazio base transmisore/hartzaileak gaur egun Erandion eta Gasteizen dauden konmutazio zentro erredundanteekin.

Larrialdiei aurre egiteko Euskal Sistemaren esparruan (SVAE), Segurtasun Sailak hitzarmenak izenpetu ditu hainbat eragilerekin. Boluntariotzaren esparruan, honako hauekin: Gurutze Gorria, DYA, Laguntza Txakurren Taldea, VOST Euskadi, Euskal espeleologoak eta Euskal Mendizale Federazioa. Baita ere sektore estrategikoetako erakunde eta enprekin ere, horien artean egonik Segurtasun Nuklearreko Kontseilua, SASEMAR, Metro Bilbao, AVEK KIMIKA, Repsol, Iberdrola, Enagas, etab. Halaber, hitzarmenak izenpetu dira

Euskadiko Suhiltzaile Zerbitzu guztiei eta Osakidetzari Euskarri plataformaren bitartez datu telematikoak transmititzeko.

### 3.7. ANALISI INTEGRATUA

Jasotako informazioaren gaineko hausnarketa eta analisi prozesu baten ondoren, hortik ateratako ondorioak ahulgune, mehatxu, indargune eta aukera moduan laburbiltzen dira. Analisi horrek aukera eman behar du modu naturalean identifikatzeko Euskal Autonomi Erkidegoak segurtasun integralaren arloan zein erronkari egin behar dion aurre, baita ere horiei ekiteko beharrezko ekintza plana formulatzeko.

#### INDARGUNEAK

- Emaizak eta sinesgarritasuna
- Profesionalen konpromisoa eta kompetentzia
- Erakunde eta agentzien arteko koordinazioa eta lankidetzak

#### AHULGUNEAK

- Langile mugatuak
- Langileen errotazio handia
- Informazio eta ekipamendu teknologikoko sistemak
- Kanpo komunikazioa
- Aurrekontu mugatua

#### AUKERAK

- Profesional berriak
- Informazio sistemak eta ekipamendu teknologikoa
- Herritarren sentsibilizazio gero eta handiagoa
- Araudiaren aldaketak
- Irudia eta errekonozimendua

#### MEHATXUAK

- Euskal eskumenen esparruaren interpretazio lerratua
- Belaunaldi arteko erreleboa: ezagutza galtzea
- Eboluzio teknologikoa
- Segurtasunerako espektatiba eta eskakizun gero eta handiagoa
- Delinkuentzia mota eta modu berriak

#### 3.7.1. INDARGUNEAK

**Emaizak eta sinesgarritasuna** Datu onak edukitzeak sinesgarritasuna eta konfiantza sortzen dute herritarrengan (segurtasun publikoa, herritarrek segurtasunari buruz duten pertzepzioa, 112 zerbitzuaren balorazioa, Euskalmeten informazioarekiko gogobetetzea, istripuei buruzko informazioa, zaintza eta kontrol kanpainen eraginkortasuna).

**Profesionalen konpromisoa eta kompetentzia** Profesionalen konpromiso handia, inplikazioa, profesionaltasuna eta prestakuntza, baita segurtasun publikoko zerbitzuetan nagusitzen den kultura ere.

**Erakunde eta agentzien arteko koordinazioa eta lankidetzak** Oro har, zuzendaritza guztiak nabarmentzen dira elkarrekin koordinatzeko eta lankidetzan aritzeko lortu duten gaitasunagatik (dagoeneko hasita dago Segurtasun Integralerako Ereduranzko trantsizioa), baita ere Eusko Jaurlaritzako beste Sail eta Zuzendaritza batzuekin (Garraioa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika, Ingurumena, Berdintasuna...), eta beste erakunde eta agentzia batzuekin (Foru Aldundiak, Judikatura eta Fiskaltza, Udalak...).

### 3.7.2. AHULGUNEAK

Langile mugatuak	Ertzaintzan 800 profesionaleko gabezia bat dago, lantaldearen %10, eta, horri gehitzen bazaio 55 urtetik gorako agenteen ehuneko handia dagoela zerbitzutik salbuetsi daitekeena, eta absentismo handia dagoela (%10), operatibotasuna mugatuta dago. Arazoak daude baita ere arlo jakin batzuetan profesional espezialistak sartzeko.
Langileen errotazio handia	Beste zuzendaritza batzuetan, arazoa lantaldearen errotazio eta behin-behinekotasun handia izaten da, kasu batzuetan azpikontratazio maila handiaren ondorioz.
Informazio sistemak eta ekipamendu teknologikoa	Beharrezkotzat jotzen da informazio sistemak eta ekipamendu teknologikoa berritzea, besteak beste, balio txikiko zereginak automatizatzeko, informazioa ekintza operatibora hurbiltzeko eta herritarrentzako zerbitzu elektronikoak gaitzeko.
Kanpo komunikazioa	Herritarrekiko alde biko komunikazioa gero eta faktore kritikoagoa da poliziaren funtziorako eta larrialdien kudeaketarako, eta hori garatu behar da komunikazioaren eta sare sozialetan presente egotearen estrategia baten esparruan.
Aurrekontu mugatua	Aurrekontuaren mugak erakunde publikoen errealitate berriaren parte dira.

### 3.7.3. AUKERAK

Profesional berriak	Profesional gazteak gehitzea aukeratzat jotzen da, duten prestakuntza eta gaitasun maila handiagatik hizkuntzei eta espezialitate zehatzei dagokienez.
Informazio sistemak eta ekipamendu teknologikoa	Sistema teknologiko eta informazio sistema berriek aukera berriak eskaintzen dituzte, eta horietako batzuk lantzen ari dira dagoeneko (Euskarri, Berritu, Datapol).
Herritarren sentsibilizazio gero eta handiagoa	Gero eta sentsibilizazio handiagoa dago klima aldaketari eta horren ondorioei dagokienez, baita trafikoko arloko autobabesari dagokionez ere.
Araudiaren aldaketak	Araudiaren garapenak ahalbidetu behar du erantzunak jokaleku berrietara egokitzea, baita herritarren beharren bilakaerara eta espektatibetara ere.
Irudia eta errekonozimendua	Ertzaintzaren, Larrialdi Zerbitzuen eta, oro har, segurtasun integralaren zerbitzu publikoen onarpen soziala eta nazioarteko prestigio profesionala.

### 3.7.4. MEHATXUAK

Euskal eskumenen esparruaren interpretazio lerratuak	Euskadin Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoak birposizionatzen ari dira, zenbait nitxotan sartuta ikusgarritasuna lortu nahirik, Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzko 2/1986 Lege Organikoaren interpretazio partzial bat eginez, zeinak ez baititu kontuan hartzen legearen beraren Azken Xedapenak hauei dagokienean: Autonomia Estatuaren 17. artikulua EAEko Administrazioei esleitzen dizkien eskumenak, herritarren segurtasun, trafiko, larrialdi eta antzeko gaitan.
Belaunaldi arteko erreleboa: ezagutza galtzea	Oso ongi prestatutako profesional gazteak gehitzeko aukera bada ere, erretiroa hartzetik gertu dauden profesionalek metatutako ezagutza eta esperientzia galtzea ere badakar.
Eboluzio teknologikoa	Garapen teknologikoa mehatxu bat da, gaizkileek eta beste eragile batzuek erabili dezaketen heinean, eguneratzeko erritmoak kostu handia duelako eta denboran mantentzen zaila delako.
Herritarren espektatiba eta eskakizun gero eta handiagoak	Segurtasunaren zenbait arlotan emaitzak hobetzen diren neurrian, adibidez, delitu mota batzuk murriztea, iragarpen meteorologikoa edo trafikoko biktimak, herritarrek uste dute lortu den egoera normaltasun berria dela, eta, alderdi horietan hobetzeko eskatzen jarraitzeaz gain, beste batzuei ere erreparatzen diete, izan ere, objektiboki okerrera egin ez duten arren, sortzen duten alarma soziala bai handitu dela, bai gaiarekiko sentsibiltate handiagoa dagoelako, bai komunikabideek ematen dien tratamenduagatik.

## 4. MISIOA, BISIOA, PRINTZIPIOAK ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK

Atal honek Euskadiko segurtasunaren oinarri estrategikoak ezartzen ditu, hau da, Planaren misioa eta bisioa, baita ere horien formulazioa eta inplementazioa arautzen dituzten printzipioak, azkenik, Euskadik segurtasun arloan aurre egin beharreko erronka estrategikoak identifikatzeko.

### 4.1. MISIOA

Bizikidetza sozialean eta herritarren ongizatean laguntzea, segurtasun eredu publiko integral eta jasangarri baten bidez, oinarritzat hartuta prebentzioa, asistentzia eta erakundeen eta herritarren erantzunkidetasuna.

### 4.2. BISIOA

Euskadi erreferente moduan kokatzea Europa mailan, segurtasun errealeko zein hautemandako maila bikainekin.

### 4.3. PRINTZIPIOAK

<b>GERTUTASUNA</b>	Jarrera irekia eta hurbila daukagu pertsona guztiekiko.
<b>KONFIANTZA</b>	Zuzen jokatzeko dugu eta zintzo komunikatzeko gara.
<b>KONPROMISOA</b>	Erantzun eraginkorrak eta solidarioak emateko inplikatzeko gara, arazoak eraginkortasunez konpontzeko.
<b>LIDERGOA ETA TALDEA</b>	Modu kohesionatu eta koordinatuan lan egiten dugu, lidergo aktibo baten gidaritzapean.
<b>BILAKAERA</b>	Etengabe berritzen eta hobetzen dugu.
<b>GARDENTASUNA ETA GOBERNU ONA</b>	Ingurunearekin konprometitzen gara, gizartearen oinarritzat arauak eta printzipio etikoak errespetatuz, eta konfiantza sortuz, gardentasunetik eta erantzukizun sozialetik.
<b>ZERBITZU BOKAZIOA</b>	Herritarrei balio sortzeko konpromisoa dugu, alderdi publikoaren etikatik.

#### 4.4. ERRONKA ESTRATEGIKOAK

<b>SEGURTASUN INTEGRALAREN EREDUA</b>	Segurtasun Integralaren Ereduranzko trantsizioa burutzea, zeinean segurtasuna herritarren segurtasuna baino kontzeptu zabalagoa baita, erakunde eta agentzia instituzional eta pribatu ugariaren lankidetzaren eta erantzunkidetasuna behar dituen, baita herritarrena ere. Hori lortzeko funtsezko alderdiak dira erakunde eta agentzia ugari horien koordinazioa eta osagarritasuna, lidergoari eta kompetentzien banaketari, harremanak izateko moduari eta abarri dagokienez.
<b>GAITASUN BERRIAK ETA MEHATXU BERRIAK</b>	Eraldaketa digitala, zerbitzuaren barne operatiba eta kalitatea hobetzeko aukera bikaina izateaz gain, nahitaezko betebeharra da mundu digitalaz baliatzen edo horretatik sortzen diren mehatxuei aurre egiteko.
<b>ESPEKTATIBAK ETA ESKAKIZUN GERO ETA HANDIAGOAK SEGURTASUNARI DAGOKIONEZ</b>	Segurtasun adierazleak objektiboki hobetzen diren arren, herritarrek azkar barneratzen dute normaltasun berria, eta euren espektatibak eta eskakizunak mantentzen dituzte. Alde batetik, gai jakin batzuen inguruko sentsibilitatea gero eta handiagoa delako (etxeko indarkeria/genero indarkeria, ingurumen delituak), edo kezka iturri berriak sortzen direlako (ziberdelituak).
<b>ALDEBIKO KANPO KOMUNIKAZIOA</b>	Kanal digital berriek herritarrekiko zuzeneko komunikazioa edukitzea ahalbidetzen dute, horrela, gizartea sentsibilizatu, informatu eta ahalduzko, baetaita lehen eskutik jakiteko zein den herritarren pertzepzioa eta informazioa jasotzeko, ingurunea hobeto ulertze aldera.
<b>TALDE PROFESIONAL NAHIKOA, EGONKORRA ETA GOGOBEA</b>	Profesionalen konpromisoa eta gaitasuna gorabehera, beharrezkoa da lantaldeak dimentsionatzea eta egonkortzea, bereziki kontuan hartuta belaunaldi arteko erreleboa, eta horrek, aldi berean, aukera ematen du profilak errealitate berrietara egokitzeko, erakargarriak izan daitezkeen prestakuntza eta gaitasun maila handiko profesional gazteak sartzeko.
<b>EFIZIENTZIA OPERATIBOA</b>	Aurrekontu mugatuak erakunde publikoen errealitatearen parte dira, eta, zerbitzuaren bolumena eta kalitatea mantentzeko, eta are handitzeko, etengabe egin behar diote aurre baliabideen erabilera optimizatzeko eta prozesuak hobetzeko erronkari.




## 5. EKINTZA PLANA

Kapitulu honetan Euskadiko segurtasunaren egungo egoeratik abiatuta identifikatutako arriskuei erantzuteko definitzen den ekintza plana garatzen da. Horretarako, lehenik eta behin, erronka estrategiko bakoitzari aurre egiteko zehaztu diren jardute ildoak, ekimenak eta ekintzak aurkezten dira.

Hedapenari ekiteko, HERRITARREN ESPEKTATIBAK ETA ESKAKIZUN GERO ETA HANDIAGOA eta ALDEBIKO KANPO KOMUNIKAZIOA lantzen dituzten erronkak erronka bakar batera biltzen dira, lehenengoaren izenarekin, oso lotura sendoa dutelako eta ekintzen arteko sinergiak dituztelako. EFIZIENTZIA OPERATIBOAREN erronkak ere ez du ildo estrategikoen hedapen espezifiko bat, baina beste erronka batzuetatik eratortzen diren ildo, ekimen eta ekintzen bidez landuko da, bi erronkei aldi berean eta koherentziaz erantzunez.

Horrenbestez, hedapena lau erronka hauen inguruan egituratzen da.



## 5.1. ILDO ESTRATEGIKOAK

### ERRONKAK

#### I SEGURTASUN INTEGRALAREN EREDUA

### ILDO ESTRATEGIKOAK

- L1 Euskadiko Segurtasun Integralaren Ereduearen **esparru estrategiko eta kompetentziala** ezartzea
- L2 Segurtasun integralean aktiboki inplikaturik dauden erakunde eta agentzia guztien arteko **koordinazio eta lankidetzak** mekanismoak finkatzea
- L3 Euskal sistemaren posizioa indartzea babes zibileko eta polizia lankidetzako **naizarteko esparru eta agentzietan**
- L4 **Prebentzio** programa espezifikoak ezartzea, segurtasun **arrikuen** aurrean **sentiberagoak** diren kolektiboekin jarduteko

#### II GAITASUN BERRIAK ETA MEHATXU BERRIAK

- L5 Euskadin **azpiegitura sentibera** propioak babesteko sistema bat sortzea, lankidetzak publiko-privatuaren bitartez
- L6 **Tresna berriak** ezartzea pertsonen babesa efikaziaz eta efizientziaz handitzeko
- L7 Gaur egungo **ikerketak** sistema **delituen errealitate berrietara** egokitzea, ahalik eta jarduerarik **azkarrena** eta **biktimentzat hain astuna izango ez** den jarduketak bat lortzeko
- L8 **Inteligentziak gidatutako segurtasun eredu** bat garatzea

#### III HERRITARREN ESPEKTATIBAK ETA ESKAKIZUN GERO ETA HANDIAGOAK

- L9 **Herritarrekin eta gizarte zibilarekin harreman eta topaketarako** dinamika sistematikoa eta egituratu bat artikulatzea, baita **gardentasunerako eta kontuak emateko**
- L10 Mekanismoa eta kanalak ezartzea **herritarrekiko alde biko komunikazio zuzena eta efizientea** ahalbidetzeko

#### IV TALDE PROFESIONAL NAHIKOA, EGONKORRA ETA GOGOBETEA

- L11 Pertsona **konprometituak, kualifikatuak, partaidetzak** zentzua dutenak eta **gogobeteak** edukitzea
- L12 Beharrezko **lantaldea eta egitura** finkatzea

### ILDO ESTRATEGIKOAK

### ILDO ESTRATEGIKOEN DESKRIBAPENA

#### I. ERRONKA. SEGURTASUN INTEGRALAREN EREDUA

- |    |   |   |
|----|---|---|
| L1 | Euskadiko segurtasun integralaren ereduearen <b>esparru estrategiko eta kompetentziala</b> ezartzea | Helburua da oinarriak ezartzea Euskadin segurtasun integrala antolatzeko eta kudeatzeko eredu bat finkatzeko, eta Segurtasun Plan Orokorra inplementatzeko.<br>Funtsezko alderdiak dira estrategia argi bat edukitzea, eskumenen esparrua finkatzea eta herrialdeko beste estrategia sektorial batzuekin osatzea. |
|----|---|---|

## ILDO ESTRATEGIKOAK

## ILDO ESTRATEGIKOEN DESKRIBAPENA

Horretarako, ekimen hauek sartzen dira:

1. Euskadiko Segurtasun Publikoko 2025 Plana onartzea, non koordinaziorako mekanismoak definituko baitira, segurtasunean esku hartzen duten kide bakoitza eta guztientzako gida izan dadin, izan horiek publikoak zein pribatuak.
2. Segurtasunaren arloan autogobernua finkatzea eta defendatzea.
3. Euskadi Agenda / Basque Country 2030eko GIHen alineazioa/garapena.

**L2** Segurtasun integralean aktiboki inplikaturik dauden erakunde eta agentzia guztien arteko **koordinazio eta lankidetzaren** mekanismoak finkatzea

Helburua da gaur egungo koordinazio eta lankidetzaren mekanismoak sendotzea, eta, beharrezkotzat joz gero, berriak sortzea, Euskadiko segurtasun integralaren kudeaketan nola edo hala esku hartzen duten erakunde guztien artean.

Kontuan hartu beharreko funtsezko faktoreak dira inplikaturik dauden erakunde guztiak, publikoak zein pribatuak, bai eta horien guztien arteko osagarritasuna eta koordinazioa pixkanaka estutzea, sistema osoaren eraginkortasuna areagotzea eta informazio sistema berberen erabilera partekatua areagotzea ere.

Horretarako, ekimen hauek sartzen dira:

1. Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen arteko koordinazio eta lankidetzaren mekanismoak indartzea, Euskal Autonomia Erkidegoko polizia erantzunkidea eta eraginkorra izan dadin.
2. Segurtasun publikoko eta pribatuko esku hartzaileen arteko koordinazioa eta lankidetzaren indartzea.
3. Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren eta Larrialdietako Euskal Sistemaren (Babes Zibila) arteko koordinazio eta lankidetzaren mekanismoak sendotzea.
4. Informazio eta komunikazio sistemen integrazioa eta erabilera sustatzea segurtasun integralean aktiboki inplikaturik dauden erakundearen eta agentzien artean.
5. Bide nagusien eta bigarren mailako errepideen erakunde titularrekiko koordinazioa eta lankidetzaren indartzea, bai eta tartean diren beste erakunde publiko eta pribatuekiko ere, trafikoaren eta bide segurtasunaren kudeaketa hobetzeko.
6. Euskadiko joko sistemaren ikuspegi integrala finkatzea, inplikaturik dauden erakunde publiko eta pribatu guztiak barne hartuko dituen.

**L3** Euskal sistemaren posizioa indartzea babes zibileko eta polizia lankidetzaren **nazioarteko esparru eta agentzietan**

Helburua da euskal segurtasun sistemako erakundeek eskubide osoko kide gisa parte hartzea eta lankidetzarako eta beren funtzioaren euskarrirako nazioarteko foro eta mekanismoetan sartzea.

Faktore kritikoak dira nazioarteko koordinazio foroetarako eta datu baseetarako sarbidea eta lurraldeen artean batera jarduteko gaitasuna.

Horretarako, ekimen hauek sartzen dira:

1. Hondamendietan Laguntzeko Unitateak sortzea, Euskadin nahiz Euskaditik kanpo azkar esku hartzeko gaitasuna dutenak.
2. Lurraldeen arteko jarduketaren sistema arin bat egituratzea, modu bateratuan jardun ahal izateko, eragindako lurralde bakoitzaren gaitasunak gainditzeko dituzten intzidentziei aurre egiteko.

## ILDO ESTRATEGIKOAK

## ILDO ESTRATEGIKOEN DESKRIBAPENA

		<ol style="list-style-type: none"><li>3. Europako erakundeekin segurtasunarekin zerikusia duten ikerketa proiektuetan parte hartzea.</li><li>4. Ertzaintzaren parte hartzea eta presentzia antolatzea nazioarteko lankidetzako ingurune eta mekanismoetan eskumena duen agentzia gisa.</li><li>5. Nazioarteko polizia estamentuekin datu trukea sendotzea eta aurrera egitea, baldintza berdinetan.</li></ol>
L4	<b>Prebentzio</b> programa espezifikoa ezartzea, segurtasun <b>arriskuen aurrean sentiberagoak diren kolektiboekin</b> jarduteko	<p>Helburua da segurtasun integralari ekitea, arrisku nagusien aurkako prebentzioan oinarrituta, eta arreta berezia jartzea kolektibo sentikorren gaineko eraginean.</p> <p>Faktore kritikoak dira arriskuen analisia eta biztanleriaren zein lurraldearen segmentazioa, inpaktu potentziala eta gertatzeko probabilitatea ebaluatzeko. Horretarako, ekimen hauek sartzen dira:</p> <ol style="list-style-type: none"><li>1. Gazteei zuzendutako programa espezifikoa garatzea, menpetasunen, teknologia berrien erabilerarekin lotutako arriskuen, indarkeriazko portaeren eta aisialdiari eta kirolari lotutako intolerantzia jarrerren aurkako prebentzioari dagokionez, inplikaturako erakunde eta organismo guztiekin lankidetzan.</li><li>2. Bizikidetzaren demokratikoari egin dakizkiokeen mehatxuei buruzko prebentzio eta inteligentzia programak sustatzea.</li><li>3. Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta emakumeen esplotazioaren aurkako programak ezartzea, Emakunderekin batera eta eraginpeko taldeekin koordinatuta.</li><li>4. Basque Cybersecurity Centerrekin (BCSC) lankidetzan jarduteko programa espezifikoa bat egitea, teknologia berriak modu seguruan erabiltzean, prebentzioa lantzeko eta haiei lotutako arriskuak ekiditeko; izan ere, horiek iruzurrak, ebasketak, lapurrekak, enpresetan kalteak eta parekoak areagotzea eragiten baitute.</li><li>5. Arriskuak kudeatzeko sistematika bat garatu eta ezartzea, erresilientzia soziala indartuko duena, larrialdiei aurre egiteko erantzun azkar eta eraginkorrak artikulatuz, bereziki larrialdirik kritikoenak, desgaitasunen bat duten pertsonen kolektiboa kontuan hartuko dutenak.</li><li>6. Bide kontzientziarazioko eta hezkuntzako programa eta plan espezifikoa definitzea, talde zaugarrietan trafiko istripuak prebenitzeko.</li><li>7. Arazoak dakartzan jokoari aurrea hartzeko eta arreta emateko, informazioa emateko, kolektibo ahulak babesteko, erakundeak eta agentziak kontrolatzeko eta prestatzeko berariazko programak garatzea.</li></ol>

## II. ERRONKA. GAITASUN BERRIAK ETA MEHATXU BERRIAK

L5	Euskadin <b>azpiegitura sentibera</b> propioak babesteko sistema bat sortzea, lankidetzaren publiko-pribatuaren bitartez	<p>Helburua da Euskadiko azpiegitura sentikorretara babes mekanismoak zabaltzea, gaur egun instalazio kritikoetarako erabiltzen direnak erreferentziatzen hartuta.</p> <p>Faktore kritikoak dira lankidetzaren publiko-pribatua eta zibersegurtasuna. Horretarako, ekimen hauek sartzen dira:</p> <ol style="list-style-type: none"><li>1. Azpiegitura sentikorrek, publikoak zein pribatuak, babesteko plan integralak onartzea</li></ol>
----	--	--

## ILDO ESTRATEGIKOAK

## ILDO ESTRATEGIKOEN DESKRIBAPENA

2. Basque Cybersecurity Center (BCSC) zentroarekin batera, zibersegurtasuneko gertakarien aurreko prebentzio eta erantzun politikak definitzea, Ertzaintzan gertakari kritikoak ikertzeko maila goreneko jardute talde bat osatuz.

**L6 Tresna berriak**  
ezartzea pertsonen babesa efikaziaz eta efizientziaz handitzeko

Helburua da IKTek segurtasun integralaren eremu guztietan eskaintzen dituzten potentzialtasunak ahalik eta gehien aprobetxatzea. Faktore kritikoak dira teknologia erabiltzea lekuan bertan prebentzio aktiboa sustatzeko, intzidentziei aurre egiteko jardutea, efizientzia operatiboa handitzea eta sistemen segurtasuna. Horretarako, ekimen hauek sartzen dira:

1. MUGIKORTASUNA. Mugikortasuneko soluzio teknologikoak ezartzea, langileei autonomia handiagoa emateko bai prebentzio jarduketetan, bai gertakariei eta delitu gertaerei erantzutean, eta herritarrei interakzioan aritzeko behar diren bitartekoak hurbiltzea, administrazio eta/edo polizia bulegoetara joan beharrik gabe.
2. EUSKARRI. Egungo kudeaketa intzidentala garatzea, prebentzio ekintzaren eta ekintza intzidentala kudeatzeko eta euskarria emateko aplikazio integral baterantz, zeinak, era berean, aginte, kontrol, koordinazio eta kudeaketa zentroak ahalbidetuko baititu, egoera eta benetako aginte gaitasuna osoki ezagututa.
3. Informazioaren segurtasun politika bermatzen duten ekintzak sustatzea.
4. Komunikazio bideak monitorizatzeko sistema teknologikoak sustatzea, trafikoa eta bide segurtasuna kudeatzeko, bai eta polizia eta larrialdi erabileretarako ere.
5. Berrikuntza kudeatzeko eta segurtasuna hobetzeko eredu bat diseinatzea eta ezartzea.

**L7 Gaur egungo ikerketa sistema delituen errealitate berrietara**  
egokitzea, ahalik eta jarduerarik azkarrena eta biktimentzat hain astuna izango ez den jarduketa bat lortzeko

Helburua da Ertzaintzari eta udaltzaingoei beharrezko baliabideak ematea delitu berrien tipologiak (ziberdelituak) edo konplexutasun maila handia dutenak (ekonomikoak, ingurumenekoak...) ikertzeko. Faktore kritikoak dira ikerketaren dimentsio anitzeko ikuspegia (antolaketa, pertsonak, sistemak) eta ekintza espezifikoak behar duten delitu moten identifikazioa.

Horretarako, ekimen hauek sartzen dira:

1. Inteligentziak lagundutako eta zerbitzu maila eta efizientzia hobetzera bideratutako Ikerketa Eredu Berria ezartzen aurrera egitea.
2. Ezagutza espezializatua eskuratzeko aukera izatea, delitu modalitate berriei edo konplexutasun handikoei erantzuteko.
3. Berriazko planak onartzea, delitu figura berri bakoitza ikertzeko, bai eta eragin handiena dutenak ikertzeko ere.

**L8 Inteligentziak gidatutako segurtasun eredu** bat garatzea

Helburua da segurtasunarekin lotutako jarduera guztiak, bai prebentziokoak, bai ikerketakoak eta intzidentziei erantzutekoak, iturri askotatik datorren eta modu integratuean ustiatzen den informazio eztabaidagarrian eta egokian oinarrituta egotea.

## ILDO ESTRATEGIKOAK

## ILDO ESTRATEGIKOEN DESKRIBAPENA

Faktore kritikoak dira funtzio guztietan inteligentzia txertatzea (prebentzioa, ikerketa, intzidentziei erantzutea) eta maila guztietan (zentrala, lurraldekoa, tokikoa), barneko eta kanpoko informazio iturri ugari integratzea, analisi gaitasuna izatea, baita denbora errealean ere, eta bilaketa eta txosten interfaze errazak eta interpretatzen errazak izatea.

Horretarako, ekimen hauek sartzen dira:

1. Ertzaintzan inteligentzia maila zentralaren antolamendua egokitzea, ikerketarekiko integrazio handiagoarekin.
2. PREBENTZIO AKTIBOA. BAIETZ finkatzea, prebentzio aktiborako analisi metodo eta tresna analitiko gisa.
3. INTELIGENTZIA OPERAZIONALA. BAIETZen bilakaera funtzional eta teknologikoa, inteligentzia operazionalaren eta prediktiboaren gaitasunak sartzeko.
4. Euskal errepideetako trafikoari buruzko kudeaketan eta informazioan efizientzia handiagoa lortzea, metadatuak/datu masiboak erabiliz.

### III. ERRONKA HERRITARREN ESPEKTATIBAK ETA ESKAKIZUN GERO ETA HANDIAGOA

- L9** **Herritarrekin eta gizarte zibilarekin harreman eta topaketarako dinamika sistematiko eta egituratu bat artikulatzea, baita gardentasunerako eta kontuak emateko**
- Helburua da herritarren eta gizarte zibilaren arteko lotura sortzea Euskadiko segurtasun sistemari dagokionez, bai eta herritarrek eta gizarte zibilak segurtasunaren arloan dituzten beharrak eta itxaropenak zehatz-mehatz eta lehen eskutik ezagutzea ere.
- Faktore kritikoak dira gizarte zibilaren funtsezko solaskideak identifikatzea, haiekin harreman zuzena izatea eta segurtasun politikei, ekintzei eta emaitzei buruzko informazio gordina eta landua zabaltzea.
- Horretarako, ekimen hauek sartzen dira:
1. Herritarrekin eta gizarte zibilarekin harreman eta topaketarako dinamika sistematiko eta egituratu bat artikulatzea.
  2. Herritarrei gardentasuna eta kontuak ematea bermatzeko kontrol eta komunikazio mekanismoak ezartzea.
- L10** **Mekanismoak eta kanalak ezartzea herritarrekiko aldebiko komunikazio zuzena eta efizientea ahalbidetzeko**
- Helburua da, alde batetik, euskal sistemako herritarrek eta erakundeek informazioa denbora errealean trukatzeko, horiek guztiek ahalik eta modurik egokienean eta informatuenean jardun ahal izan dezaten segurtasunaren aurkako edozein mehatxuri aurre egiteko. Bestalde, helburua da segurtasun zerbitzu publikoetarako sarbide elektronikoa erraztea eta larrialdi egoeretan botoa ematea ahalbidetzen duten formulak ezartzea.
- Faktore kritikoak dira denbora errealean entzuteko eta zabaltzeko gaitasuna, zerbitzu digitalen erabiltzaileen esperientzia eta zerbitzu horien eraginkortasuna hobetzea lortzea.
- Horretarako, ekimen hauek sartzen dira:
1. Aldebiko zuzeneko komunikazio mekanismoak antolatzea herritarrekin.
  2. Izapideak bizkortzea, prozedurak sinplifikatzea eta horiek eskuratzeko erraztasunak ematea, polizia eta administrazio bulegoetara eraman beharrik gabe.
  3. Hauteskunde erreforma, larrialdi egoerei aurre egiteko.

### IV. ERRONKA TALDE PROFESIONAL NAHIKOA, EGONKORRA ETA GOGOBEA

## ILDO ESTRATEGIKOAK

L11 Pertsona **konprometituak, kualifikatuak, partaidetza** zentzua dutenak eta **gogobeteak** edukitzea

## ILDO ESTRATEGIKOEN DESKRIBAPENA

Helburua da ahalik eta talde profesional onenak izatea segurtasunaren aurkako mehatxuei aurre egiteko, bai trebakuntzaren aldetik, bai motibazioaren aldetik.

Faktore kritikoak dira lidergo eredua, etengabeko prestakuntza, barne komunikazioa eta aintzatespena. Era berean, emakumearen presentzia eta euskararen erabilera sustatu behar dira.

Horretarako, ekimen hauek sartzen dira:

1. Lidergo Eredu baten alde egitea, ikuspegi Parte Hartzailearekin.
2. Erakundeak behar dituen kualifikazio mailak segurtatzea.
3. Ezagutzaren kudeaketa sistematizatzea.
4. Barne komunikazioa lantzea.
5. Errekonozimendua sistematizatzea.
6. Profesionalen osasuna eta babesa kudeatzen aurrera egitea.
7. Emakumeak polizia zerbitzuetan sustatzeko eta presentzia izateko Planak sustatzea.
8. EAEko Polizian Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana inplementatzea.

L12 **Beharrezko lantaldea eta egitura** finkatzea

Helburua da une oro behar adina profesional izatea, segurtasunaren aurkako mehatxuei erantzuteko.

Faktore kritikoak dira karrera profesionalaren kudeaketa eta langile ez-polizialen egonkortasuna.

Horretarako, ekimen hauek sartzen dira:

1. Sarbide eta Barne Promoziorako Sistema hobetzea.
2. Profesionalen kopurua bermatzea.
3. EAEko Polizia gorputzen arteko mugikortasuna.
4. Larrialdiei Aurre Egiteko Eskalak.
5. Polizia ez diren langileen errotazioa eta behin-behinekotasuna kudeatzea.

## 5.2. I. ERRONKA. SEGURTASUN INTEGRALAREN EREDUA

I. ERRONKA. SEGURTASUN INTEGRALAREN EREDUA	
EKIMENAK	EKINTZAK
<b>L1. EUSKADIKO SEGURTASUN INTEGRALAREN EREDUAREN ESPARRU ESTRATEGIKOA ETA ESKUMEN ESPARRUA EZARTZEA</b>	
1.1 Euskadiko Segurtasun Publikoko 2025 Plana onartzea, segurtasunean esku hartzen duten guztien –publikoak zein pribatuak izan– zerbitzura egongo den gida bihurtzeko, non koordinazio mekanismoak definituko diren.	1.1.1 Euskadiko Segurtasun Publikoko 2020-2025 Plan Orokorra (ESPPO) egitea eta onartzea.
	1.1.2 2020-2025 ESPPOren segimendua eta ebaluazioa, bertan ezarritako kudeaketa ereduaren arabera.
1.2 Segurtasun arloan autogobernua sendotzea eta defendatzea.	1.2.1 Segurtasun Batzordeari bultzada berria.
	1.2.2 Segurtasun Sailburuordetzaren eta Segurtasuneko Estatu Idazkaritzaren arteko interkomunikazio sistema operatibo bat ezartzea.
	1.2.3 Itsas Salbamenduaren eskumen osoa eskualdatzea eta Meteorologiaren arloko transferentzia eskatzea.
	1.2.4 AEMETen estazio automatikoak Babes Zibileko Informazio eta Alerta Sarean sartzea.
1.3 Euskadi Agenda / Basque Country 2030eko GIHen alineazioa/garapena.	1.3.1 Euskadi/BasqueCountry 2030 Agendaren 11. GIHa garatzea. Hiri seguruak, erresilienteak eta jasangarriak.
	1.3.2 Jasangarritasunerako Udalerrien Sarearen udal plan estrategikoetan laguntzea.
<b>L2. SEGURTASUN INTEGRALAREN EREDUA OSATZEN DUTEN ERAKUNDE GUZTIEN ARTEKO KOORDINAZIO ETA LANKIDETZA MEKANISMOAK SENDOTZEA</b>	
2.1 Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen arteko koordinazio eta lankidetzaren mekanismoak indartzea, Euskal Autonomia Erkidegoko polizia erantzunkidea eta eraginkorra izan dadin.	2.1.1 Euskal Poliziaren Koordinazio Sistema sendotzea (Ertzaintza eta Udaltzaingoa).
	2.1.2 Tokiko, eskualdeko eta/edo lurraldeko segurtasun plan integral espezifikoak egitea, dauden arrisku guztiak kontuan hartuta eta eragindako lurraldearen ezaugarrietara egokituta.
	2.1.3 Ertzaintzaren eta Euskadiko udaltzaingoen artean jarduteko protokolo bateratuen formalizazioa eta ezarpena orokortzea, udalerrri bakoitzaren errealitateara eta baliabideetara egokituta.
	2.1.4 Salaketa sistema bateratua Ertzaintzarentzat eta udaltzaintzarentzat.
	2.1.5 Udaltzainak Polizia Koordinatzeko Zentroetan sartzea (“Udaltzaingoa” polizia agenzia, 112 AKZren intzidente aplikazioetan).
	2.1.6 Jarraibideen, protokoloen, irizpideen, informazioaren eta abarren sistema eta mekanismo komunak eta partekatutakoak ezartzea, Ertzaintzak eta udaltzaingo guztiek erantzun homogoneoa eman diezaieten delitu, asistentzia eta kasuistika komunei: EI/GI (EBA Etxekoen eta Emakumeen Babesa proiektua), etxeetako lapurretak...
	2.1.7 Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen baterako deialdiak finkatzea.
	2.1.8 Udaltzaingoko zerbitzu agenteak baterako deialdietan sar daitezen bultzatzea.



## I. ERRONKA. SEGURTASUN INTEGRALAREN EREDUA

EKIMENAK	EKINTZAK
2.2 Segurtasun publikoko eta pribatuko esku hartzaileen arteko koordinazioa eta lankidetzaren indartzea.	2.2.1 Segurtasun publikoko eta pribatuko erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzaren egituratu eta egonkorreko mekanismoak ezartzea.
	2.2.2 Konexio teknikoaren inplementazioa eta protokoloak zehaztea, segurtasun integralaren ereduko erakunde publikoek erakunde pribatuen informazioa eta irudiak eskuratzeko aukera izan dezaten, behar izanez gero.
2.3 Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren eta Larrialdietako Euskal Sistemaren (Babes Zibila) arteko koordinazioa eta lankidetzaren mekanismoak sendotzea.	2.3.1 Berriazko tokiko, eskualdeko eta/edo lurraldeko segurtasun plan integralak garatzea, dauden arrisku guztiak kontuan hartuta eta eragindako lurraldearen ezaugarrietara egokituta, larrialdien alorrean.
	2.3.2 Egungo koordinazio zentroak "Larrialdietako inteligentzia zentro" bihurtzea, esku hartzen duten zerbitzuei berehalako erantzunak emateko gai izango dena, datuen kudeaketa masiborako eta sare sozialen analisirako sistemak nahiz analisi eta informazioko operadoreen figurak (ANI) sartuz.
2.4 Informazio eta komunikazio sistemen integrazioa eta erabilera sustatzea segurtasun integralean aktiboki inplikaturik dauden erakunde eta agentzien artean.	2.4.1 Segurtasun integralean aktiboki inplikaturik dauden erakunde eta agentzia guztien artean partekatzea informazioa azkarrago komunikatzeko aukera ematen duten garapen teknologikoak, larrialdi egoeren eta intzidentzien aurrean.
	2.4.2 Informazio sistema polizialen eta judizialen arteko integrazioa prozedura transbertsalak ezartzeko.
2.5 Bide nagusien eta bigarren mailako errepideen erakunde titularrekiko koordinazioa eta lankidetzaren indartzea, bai eta tartean diren beste erakunde publiko eta pribatuekiko ere, trafikoaren eta bide segurtasunaren kudeaketa hobetzeko.	2.5.1 Hitzarmena sinatuz, bideen erakunde titularrekin eta autobideen kudeatzaileekin datuen eta irudien trukea bultzatzea, hiriarteko trafikoa hobeto kudeatze aldera.
2.6 Euskadiko joko sistemaren ikuspegi integrala finkatzea, inplikaturik dauden erakunde publiko eta pribatu guztiak barne hartuko dituen.	2.6.1 Jokoak eragindako kolektiboekin lan egiten duten elkarrekin lankidetzaren eta elkarrekin ezagutza hobetzea: baliabideen mapa.
	2.6.2 Operadore publikoekiko eta joko lokal pribatuekiko lankidetzaren hobetzea datu estatistikoak emateko eta sarbide kontrolak hobetzeko.
	2.6.3 Autonomia erkidegoko eta estatuko debekuen erregistroen arteko koordinazioa eta interoperabilitatea hobetzea, joko patologikoarekin lotutako arazo deklaratuak dituzten pertsonen edo erregistro honetan agertu nahi dutenek jokorako sarbide kontrolak izatea indartzeko.
	2.6.4 Joko eta ikuskizunen arloan indarrean dagoen araudia betetzen dela kontrolatzen lan egiten duten polizia agentzien arteko lankidetzaren (JIU, Ertzaintzaren Herri Segurtasunerako Unitatea eta Udaltzaingoa).

## I. ERRONKA. SEGURTASUN INTEGRALAREN EREDUA

### EKIMENAK

### EKINTZAK

#### L3. EUSKAL SEGURTASUN SISTEMAK BABES ZIBILEKO ETA LANKIDETZA POLIZIALEKO NAZIOARTEKO EREMU ETA AGENTZIETAN DUEN POSIZIOA INDARTZEA

- |   |   |
|---|---|
| <p><b>3.1</b> Hondamendietan Laguntzeko Unitateak sortzea, Euskadin nahiz Euskaditik kanpo azkar esku hartzeko gaitasuna dutenak.</p>   | <p><b>3.1.1</b> Euskadik probabilitate gutxi baina inpaktu handiko egoera berezietan erantzuteko mekanismoak izan behar ditu, egoera berezi horietan erantzuna emango dieten kidego eta zerbitzu administratibo desberdinetako unitate integratu eta prestatuak barnean hartuta. Talde horien azken helburua "Babes Zibileko Europako Mekanismoan" integratzea izango litzateke.</p>  |
| <p><b>3.2</b> Lurralde arteko jardute sistema arin bat egituratzea, eragindako lurralde bakoitzaren gaitasunak gaitzen dituzten intzidenteen aurrean modu bateratuan jardutea ahalbidetuko duena.</p> | <p><b>3.2.1</b> Baso sute handietan erakundeen arteko erabateko lankidetzak bermatzeko beharrezkoak diren hitzarmenak egitea.</p>   |
| <p><b>3.3</b> Europako erakundeekin segurtasunarekin zerikusia duten ikerketa proiektuetan parte hartzea.</p>   | <p><b>3.3.1</b> European Emergency Number Association (EENA) erakundearen proiektuetan parte hartzea, 112 Zentro berriak sortze aldera.</p> <p><b>3.3.2</b> Lankidetzak osoa URBAN KLIMA 2050 proiektu europarrak sortzen dituen lanekin.</p> <p><b>3.3.3</b> Ozeanografia operazionalerako sistemak hobetzeko Europako proiektuetan parte hartzea.</p>   |
| <p><b>3.4</b> Ertzaintzaren parte hartzea eta presentzia antolatzea nazioarteko lankidetzako ingurune eta mekanismoetan eskumena duen agentzia gisa.</p>  | <p><b>3.4.1</b> Nazioarteko lankidetzak polizialerako unitate bat sortzea.</p> <p><b>3.4.2</b> Ertzaintzak Europako interoperabilitate sistema berriaren estatuko SPOcean (Single Point of Contact) parte hartzea.</p> <p><b>3.4.3</b> Ertzaintzak Europolen eta Interpolen lantaldeetan parte hartzea eta informazioa eta esperientziak trukatzeko.</p> <p><b>3.4.4</b> Ertzaintzak EMPACT (European Multidisciplinary Platform Against Criminal Threats) proiektuaren proiektuak definitzeko lehentasunak ezartzen parte hartzea.</p> <p><b>3.4.5</b> Barne Segurtasunaren arloko Lankidetzak Operatiboko Batzorde Iraunkorrean (COSI) parte hartzea.</p> |
| <p><b>3.5</b> Nazioarteko beste polizia estamentu batzuekin datu trukea sendotzea eta aurrera egitea, baldintza berdinetan.</p>   | <p><b>3.5.1</b> Ertzaintzak SIENAN (Europolen informazioa trukatzeko sistema) sartzea sustatzea, REDPOL sarearen bidez (sare zifratua).</p> <p><b>3.5.2</b> Ertzaintzak Europolen eta Interpolen datu baseetarako sarbide zuzena izatea.</p> <p><b>3.5.3</b> Ertzaintzak Bidaiarien Izenen Erregistroko (PNR) datuak eskuratu ahal izatea, Bidaiarien Informaziorako Bulego Nazionalaren (ONIP) bidez.</p> <p><b>3.5.4</b> Interkonexioa PRÜM Tratatuaren esparruan, hatz markei, DNA profiei eta ibilgailuen matrikulazio erregistroei buruzko datuak trukatzeko.</p>  |

#### L4. PREBENTZIO PROGRAMA ESPEZIFIKOAK EZARTZEA, SEGURTASUN ARRISKUEN AURREAN SENTIBERAGOAK DIREN KOLEKTIBOEN JARDUTEKO

- |   |  |
|---|--|
| <p><b>4.1</b> Gazteei zuzendutako programa espezifikoak garatzea, menpetasunen, teknologia berrien erabilerarekin lotutako arriskuen, indarkeriazko portaeren eta</p> | <p><b>4.1.1</b> Drogak eta alkohola kontsumitzeko arrisku handiena duten kolektiboak, bereziki gazteei, arreta, prestakuntza, informazioa eta kontrola emateko programa espezifiko bat garatzea, delituzko gertaerei eta arrisku jokabideei begira duten zaugarritasuna ekiditeko.</p> |
|---|--|

## I. ERRONKA. SEGURTASUN INTEGRALAREN EREDUA

EKIMENAK	EKINTZAK
aisialdiari eta kirolari lotutako intolerantzia jarreraren aurkako prebentzioari dagokienez, inplikaturako erakunde eta organismo guztiekin lankidetzan.	4.1.2 Prestakuntzako hezkuntza jarduketako plan bat garatzea, gazte indarkeria imitazio eredu gisa saihesteko, bai gazte taldeei dagokienez, bai arma zuriekin izandako borroka edo istiluetan parte hartzeari dagokionez.
	4.1.3 Gazteek teknologia berriak erabiltzeari lotutako arriskuak prebenitzeko programa espezifiko bat garatzea: iruzurrak, jazarpena, bullyinga...
	4.1.4 Kirolean, indarkeria, gorroto adierazpenak, arrazakeria, xenofobia eta, oro har, intolerantzia jarrera guztiak desagerrarazteko ekintzak garatzea.
4.2 Bizikidetzaren demokratikoari egin dakizkiokeen mehatxuei buruzko prebentzio eta inteligentzia programak sustatzea.	4.2.1 Muturreko indarkeria islamista prebenitzeko programak, hala nola PECIR, sustatzea eta propaganda jihadistaren aurrean zaurgarrienak diren kolektiboetan sakontzea, Giza Eskubideen eta Bizikidetzaren Idazkaritzaren ADOS programarekin koordinatuta.
	4.2.2 Kezka soziala sor dezaketen, eta, azken batean, bizikidetzaren demokratikoan gorabeherak eragin ditzaketen gaiei buruzko inteligentzia jarduerak sustatzea.
4.3 Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta emakumeen esplotazioaren aurkako programak ezartzea, Emakunderekin batera eta eraginpeko taldeekin koordinatuta.	4.3.1 Genero indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko programei eustea eta programa horiek indartzea.
	4.3.2 Sexu izaerako delituak prebenitzeko programak garatzea.
	4.3.3 Errealitate berriak aztertzea eta baloratzea: indarkeria bikarioa, teknologia berrietan edo teknologia berrien bidez egindako indarkeria, guraso eta seme-alaben arteko indarkeria...
	4.3.4 Sexu esplotazioa bideratutako gizakien salerosketaren aurkako programa espezifikoak finkatzea.
	4.3.5 Genero indarkeriako kasuetarako Jarraipen Integraleko Sistemaren interkonezioa.
4.4 4. Basque Cybersecurity Centerrekin (BCSC) lankidetzan jarduteko programa espezifiko bat egitea, teknologia berriak modu seguruan erabiltzean, prebentzioa lantzeko eta haiei lotutako arriskuak ekiditeko; izan ere, horiek iruzurrak, ebasketak, lapurrekak, enpresetan kalteak eta parekoak areagotzea eragiten baitute.	4.4.1 Erakunde eta enpresetan delitu informatikoak eta zibererasoak
	4.4.2 Herritarrei egindako iruzurrak prebenitzeko programa.
4.5 Arriskuak kudeatzeko sistematika bat garatu eta ezartzea, erresilientzia soziala indartuko duena, larrialdiei aurre egiteko erantzun azkar eta eraginkorrak artikulatuz, bereziki larrialdirik kritikoenak, desgaitasunen bat duten pertsonen kolektiboa kontuan hartuko dutenak.	4.5.1 Transmisio gaitasun handiko gaixotasunetarako Larrialdi Plan Berezia.
	4.5.2 Uholdeak, arrisku naturalak eta muturreko fenomeno meteorologikoak.
	4.5.3 Biktima ugari eragiten dituzten pilaketak, istripuak eta ezbeharrak.
	4.5.4 Ekipo eta substantzia arriskutsuen jarduerak industrialarekin, garraioarekin eta/edo manipulazioarekin lotutako arriskuak.
	4.5.5 Ikuskizun eta jolas jardueretarako lokalen segurtasuna hobetzea.
	4.5.6 Simulakroak egin daitezkeen bultzatzea, arriskuei erantzuteko definitutako operatiboen eta protokoloen egokitasuna egiaztatzea.

## I. ERRONKA. SEGURTASUN INTEGRALAREN EREDUA

EKIMENAK	EKINTZAK
4.6 Bide kontzientziazioko eta hezkuntzako programa eta plan espezifikoa definitzea, talde zaurgarrietan trafiko istripuak prebenitzeko.	4.6.1 Euskadiko Bide Segurtasuneko eta Mugikortasun Seguru eta Jasangarriko 2021-2025 Plan Estrategikoa egitea, datozen 5 urteetarako jardute ardatzak definitzeko.
	4.6.2 Unibertsitatez kanpoko hezkuntza sisteman mugikortasun segururako hezkuntza sustatzeko ekintzak garatzea eta ezartzea.
	4.6.3 Gizarte eta hezkuntza arloko hainbat eragileren eguneroko bizitzan mugikortasun segurua sustatzeko ekintzak ezartzea.
	4.6.4 Bide kolektiboen artean prebentzioaren balioa sustatzeko ekintzak ezartzea.
	4.6.5 Kolektibo zaurgarrietan (adinekoak, txirindulariak, oinezkoak eta motorzaleak) istripuak prebenitzeari eta jokabide seguruak sustatzeari buruzko sentsibilizazio programak aktibatzea.
4.7 Joko arazotsua prebenitu eta arreta emateko informazioari, kolektibo ahulen babesari, kontrolari eta inplikaturako eragileen prestakuntzari buruzko programa espezifikoa garatzea.	4.7.1 Jokoaren publizitatearen aurrean kolektibo zaurgarrien babesa indartzeko ekimenak garatzea.
	4.7.2 Jokoaren erabilera desegokiari lotutako arriskuei buruzko informazio kanpainak egitea.
	4.7.3 Eskola ingurunean hezkuntza eta prebentzio programak eta protokoloak garatzea, jolasean abusuzko praktikak ekiditeko.
	4.7.4 Osasun langileen prestakuntza eta jardute protokolo koordinatuak.
	4.7.5 Jokoaren sektoreko enpresetan lan egiten duten langileen prestakuntza.
	4.7.6 Jokoaren kudeaketa eta kontrola: sarbidea eta lokalen konfigurazioa.
	4.7.7 Jokoaren publizitateari mugak ezartzea eskumen propioen esparruan.
	4.7.8 JIUREN Ikuskapen Plana, dagozkion baliabideekin.
	4.7.9 Makinak eta joko sistemak homologatzeko parametroak ebaluatzea eta berriz definitzea.
	4.7.10 Jokoaren sektoreko enpresetan erantzukizun sozialeko praktikak bultzatzea.

### 5.3. II. ERRONKA. GAITASUN BERRIAK ETA MEHATXU BERRIAK

#### II. ERRONKA. GAITASUN BERRIAK ETA MEHATXU BERRIAK

##### EKIMENAK

##### EKINTZAK

#### L5. EUSKADIN AZPIEGITURA SENTIKOR PROPIOAK BABESTEKO SISTEMA BAT SORTZEA, LANKIDETZA PUBLIKO-PRIBATUAREN BITARTEZ

5.1	Azpiegitura sentikorrak, publikoak zein pribatuak, babesteko plan integralak onartzea.	5.1.1	Gaur egun definitzen ari diren plan sektorialak onartzea.
		5.1.2	Plan Estrategiko Sektorialetan identifikatutako operadoreen Segurtasun Planak egitea eta baliozkotzea.
		5.1.3	Sentikortzat jotako azpiegitura guztien babes plan espezifikoak eta laguntza plan operatiboak egitea eta baliozkotzea.
5.2	Basque Cybersecurity Center (BCSC) zentroarekin batera, zibersegurtasuneko gertakarien aurreko prebentzio eta erantzun politikak definitzea, Ertzaintzan gertakari kritikoak ikertzeko maila goreneko jardute talde bat osatuz.	5.2.1	Basque Cybersecurity Center (BCSC) zentroarekin batera, zibersegurtasuneko gertakarien aurreko prebentzio eta erantzun politikak definitzea, Ertzaintzan gertakari kritikoak ikertzeko maila goreneko jardute talde bat osatuz.

#### L6. TRESNA BERRIAK EZARTZEA PERTSONEN BABESA EFIKAZIAZ ETA EFIZIENTZIAZ HANDITZEKO

6.1	MUGIKORTASUNA. Mugikortasuneko soluzio teknologikoak ezartzea, langileei autonomia handiagoa emateko bai prebentzio jarduketetan, bai gertakariei eta delitu gertaerei erantzutean, eta herritarrei interakzioan aritzeko behar diren bitartekoak hurbiltzea, administrazio eta/edo polizia bulegoetara joan beharrik gabe.	6.1.1	Agenteei eta bestelakoei tokian bertan ekipamendua eta konektibitatea ematea; denetariko informazioa (audioa, irudia, testua, bideoa...) denbora errealean jasotzeko eta jakinarazteko aukera ematen duten ibilgailuak izatea; baliabide guztiak berehala geolokalizatzea eta herritarrek elkarrekin interakzioan jarduteko aukera izatea, administrazio eta/edo polizia bulegoetara joan beharrik gabe.
		6.1.2	Agenteei kamera indibidualak ematea, beren jardueren gardentasuna bermatzeko, delitu egitateen aurrean frogak hobeto aurkezteko eta agenteen segurtasun juridikoa handitzeko.
		6.1.3	Bulego mugikorrek funtzioak gaitzea, agenteek herritarrei arreta tokian bertan eman ahal izateko, aktak eta eginbideak idazteko, salaketak hartzeko, ordainketa pasabidea jartzeko...
		6.1.4	Mugikortasunean prozedura katalogo baterako sarbidea gaitzea, bai prebentzio lanetan, bai zereginen kudeaketan edo intzidente jakin baten garapenean jarduteko modua zehazteko.
		6.1.5	Euskarrirako sarbide bat gaitzea, interfaze espezifiko batekin, informaziorako sarbidea (programatutako atazak, agenda) eta intzidentzien erregistroa ahalik eta gehien sinplifikatzeko eta automatizatu ahal izateko.
		6.1.6	Ikuskapen lanak egiteko JOIKU aplikazioa finkatzea.
6.2	EUSKARRI. Egungo kudeaketa intzidentala garatzea, prebentzio ekintzaren eta ekintza intzidentala kudeatzeko eta euskarrria emateko aplikazio integral baterantz, zeinak,	6.2.1	Programatutako zereginak eta agenda kudeatzeko eginkizunak sartzea Euskarrin, bai eta langileak eta tokian bertan baliabideak esleitzeko eta kudeatzeko eginkizunak ere.
		6.2.2	Integrazioak SIP, Bortxa eta Atxilorekin.
		6.2.3	Deiak jasotzea.

## II. ERRONKA. GAITASUN BERRIAK ETA MEHATXU BERRIAK

EKIMENAK	EKINTZAK
era berean, aginte, kontrol, koordinazio eta kudeaketa zentroak ahalbidetuko baititu, egoera eta benetako aginte gaitasuna osoki ezagututa.	6.2.4 Zereginen automatizazioa areagotzea eta Euskarriren erabilera sinplifikatzea, mugikortasun gailuen aukerak eta funtzioak (GPS, ahotsetik testura transkribatzea, kamera...) ahalik eta gehien aprobetxatuz, tokian bertan agenteek eta bestelakoek eta AKZko agenteek beren denbora balio handiko zereginetan erabil dezaten.
	6.2.5 Udaltzaingoak larrialdi agentzia eta agentzia polizial gisa integratzea.
	6.2.6 Kanpoko segurtasun eta bideozaintza sistema publiko eta pribatuarekin integratzea, bereziki aireportu, portu, trenbide, tunel, errepide eta SEVESO industriekin.
	6.3 Informazioaren segurtasun politika bermatzen duten ekintzak sustatzea.
6.3 Informazioaren segurtasun politika bermatzen duten ekintzak sustatzea.	6.3.1 Sistemen monitorizazio eta analisi etengabea, informazioaren segurtasuna bermatzeko eta Segurtasun Sailaren informazioaren segurtasun politika ezartzeko.
	6.3.2 Euskadiko Poliziaren Datuak Prestatzeko Zentroaren egitura 2016/680 EB Zuzentarauaren berezitasunetara egokitzea.
	6.3.3 Segurtasuneko Eragiketa Zentro bat sortzea.
	6.3.4 Lankidetzeta BCSCrekin.
	6.3.5 Larrialdietako zuzendaritza arduradunen arteko harremanari eusteko behar den teknologia ezartzea.
6.4 Komunikazio bideak monitorizatzeko sistema teknologikoak sustatzea, trafikoa eta bide segurtasuna kudeatzeko, bai eta polizia eta larrialdi erabileretarako ere.	6.4.1 Komunikazio bide nagusietan OCR sare bat instalatzea (karaktereen azterketa optikoa), bide zirkulazioan segurtasun handiagoa bermatzeko eta antolatutako delitu banden fluxuen segimendua egiteko.
	6.4.2 Trafikoa kudeatzeko sistemen bidez (kamerak, bidesariak, etab.) jasotako ibilgailuen matrikula datu guztiak biltegitzeko sistemetarako sarbidea, bai eta udaletako eta enpresa pribatuarekin sistemetarako ere (batez ere aparkalekuak), SIS RECAST eta beste datu base batzuekin alderatuz aldi berean erabiltzeko (Schengen informazio sistema).
	6.4.3 Bide nagusietan eta bigarren mailako errepideetan trafikoari eta bide segurtasunari buruzko datuak biltzeko eta ustiatzeko informazio sistema integratu berriak gaitzea.
6.5 Berrikuntza kudeatzeko eta segurtasuna hobetzeko eredu bat diseinatzea eta ezartzea.	6.5.1 Berrikuntzaren eta segurtasunaren hobekuntzaren esparru estrategikoa ezartzea: helburuak, irismena, ikuspegia...
	6.5.2 Berrikuntza eta hobekuntza kudeatzeko behar diren prozesuak, antolamendu egitura eta baliabideak identifikatzea eta definitzea.
	6.5.3 Oinarrizko talde bat eratzea eta berrikuntza eta hobekuntza kudeatzeko eredia ezartzea.
<b>L7. GAUR EGUNGO IKERKETA SISTEMA DELITUEN ERREALITATE BERRIETARA EGOKITZEA, AHALIK ETA JARDUERARIK AZKARRENA ETA BIKTIMENTZAT HAIN ASTUNA IZANGO EZ DEN JARDUKETA BAT LORTZEKO</b>	
7.1 Inteligentziak lagundutako eta zerbitzu maila eta efizientzia	7.1.1 Ikerketa Eredu Berriaren diseinua berrikusi eta eguneratzea, eta haren hedapena planifikatzea.

## II. ERRONKA. GAITASUN BERRIAK ETA MEHATXU BERRIAK

EKIMENAK	EKINTZAK
hobetzera bideratutako Ikerketa Eredu Berria ezartzen aurrera egitea.	7.1.2 Ikerketa eredu berriaren eskakizunekin bat etorriko den espezializazio eta ezagutza maila handia eskatzen duten delitu modalitateetan (informatikoak, ekonomikoak, ingurumenekoak...) espezializatutako unitateak eratzea eta/edo indartzea.
	7.1.3 Kasuak ebazteko datu baseak aztertze gaitasunak indartzea.
7.2 Ezagutza espezializatua eskuratzeko aukera izatea, delitu modalitate berriei edo konplexutasun handikoei erantzuteko.	7.2.1 Espezialista taldeak osatzea, delitu modalitate berriei eta ikerketa prozesu berriei erantzun egokiagoa emateko, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian sartzeko modua eta prestakuntza egokituz.
	7.2.2 Beharrezkoak diren lankidetzak protokoloak formalizatzea, ebidentzien tratamenduan, Interneten, trafiko istripuetan, ingurumenekoetan, ekonomikoetan eta abarretan espezializatutako erakundeekin, egindako delituak ahalik eta berme eta arintasun handienarekin argitzea.
7.3 Berriarazo planak onartzea, delitu figura berri bakoitza ikertzeko, bai eta eragin handiena dutenak ikertzeko ere.	7.3.1 Ziberdelituak (iruzurrak...).
	7.3.2 Etxebizitzetan egindako lapurretak (antolatutako delitu bandak).
	7.3.3 Drogen ekoizpena eta trafikoa.

## L8. INTELIGENTZIAK GIDATUTAKO SEGURTASUN EREDU BAT GARATZEA

8.1 Ertzaintzan intelentzia maila zentralaren antolamendua egokitzea, ikerketarekiko integrazio handiagoarekin.	8.1.1 Ertzaintzan intelentzia maila zentralaren antolamendua eta prozesuak egokitzea, ikerketarekiko integrazio handiagoarekin.
8.2 PREBENTZIO AKTIBOA. BAIETZ finkatzea, prebentzio aktiborako analisi metodo eta tresna analitiko gisa.	8.2.1 Prebentzio aktiboko zereginak planifikatzeko eta gauzatzeko ekintzak eta prozedurak definitzea.
8.3 INTELIGENTZIA OPERAZIONALA. BAIETZ bilakaera funtzional eta teknologikoa, intelentzia operazionalaren eta prediktiboaren gaitasunak sartzeko.	8.3.1 BAIETZ Euskarri/Bulego mugikorrarekin integratzea, agenteek lekuan bertan emandako informazioa denbora errealean izateko, egungo "data quality" tresnetan oinarrituta.
	8.3.2 Mugikortasunean kontsulta bakarreko funtzio bat gaitzea, agenteei lekuan bertan intelentzia operazionala emango diena, modu erraz eta intuitiboan egoerari buruzko informazio interpretatua eta egokia emanez, iturria edozein dela ere: SIP, intelentzia produktuak (Baietz), DGT, katastroa, armak...
	8.3.3 Funtzio analitikoak gaitzea, agenteek tokian bertan sortzen duten informazio guztia denbora errealean prozesatu ahal izateko, ahalik eta lasterren intelentzia kontsumigarria sor dadin.
	8.3.4 Barneko eta kanpoko datu mota eta informazio iturri berriak txertatzea (intellentzia estrategiko eta taktikoko produktuak, ikerketak, kamerak, Internet/sare sozialak, sentsoreak/IoT,...), analitika aurreratuko teknikekin modu integratuan ustiatuta (data mining, big data, intelentzia artifiziala), intelentzia prediktiboa implementatu ahal izateko.

## II. ERRONKA. GAITASUN BERRIAK ETA MEHATXU BERRIAK

### EKIMENAK

8.4 Euskal errepideetako trafikoari buruzko kudeaketan eta informazioan efizientzia handiagoa lortzea, metadatuak/datu masiboak erabiliz.

### EKINTZAK

8.4.1 Tresna eta funtzio analitiko berrien erabilera sustatzea, iturri ugaritatik datorren informazioa modu integratuan ustiatzeko, trafikoaren egoerari buruzko ezagutza handiagoa izateko, eta, horrela, intzidentziei erantzuteko denborak murrizteko eta herritarrei informazio zehatzagoa eta testuinguruan ondo kokatua eskaintzeko.

8.4.2 Euskadiko Trafikoko Kudeaketa eta Informazio Zentroko aretoko langileen eginkizunak birdefinitzea, eta informazio integratua ustiatzeko eta aztertzekeo dituzten eskumenak eta gaitasunak egokitzea.



## 5.4. III. ERRONKA. HERRITARREN ESPEKTATIBAK ETA ESKAKIZUN GERO ETA HANDIAGOA

### III. ERRONKA. HERRITARREN ESPEKTATIBAK ETA ESKAKIZUN GERO ETA HANDIAGOA

#### EKIMENAK

#### EKINTZAK

#### L9. HERRITARREKIN ETA GIZARTE ZIBILAREKIN HARREMAN ETA TOPAKETARAKO DINAMIKA SISTEMATIKO ETA EGITURATU BAT ARTIKULATZEA, BAITA GARDENTASUNERAKO ETA KONTUAK EMATEKO ERE

9.1	Herritarrekin eta gizarte zibilarekin harreman eta topaketarako dinamika sistematiko eta egituratu bat artikulatzea.	9.1.1	Gizarte zibilarekiko, herritarren elkarreekiko eta kolektiboekiko harreman sare baten sorreran sakontzea, herritarren eskaerak jasotzeko komunikazio kanal egonkorak ezartzeko.
		9.1.2	Gizartearekin elkartzeko sistema egonkor bat finkatzea, segurtasun arloan dituzten kezka ezagutzeko eta haien eskaerei erantzuteko.
		9.1.3	Ertzaintzak, udaltzaingoen, larrialdi zerbitzuen, trafikoko zerbitzuen eta abarrek ematen dituzten laguntza zerbitzuen garrantzia balioestea eta gizarteratzea.
		9.1.4	Segurtasun Publikoaren Sistema Hobetzeko Herritar Ekimenen Bulegoa (Ekinbide) indartzea.
		9.1.5	Segurtasuneko profesionalak herritarrekiko harremanetan prestatzea, arreta hobetzeko, gatazkak kudeatzeko, bitartekaritza sustatzeko eta Covid-19 pandemian gertatutakoak bezalako egoerei aurre egiteko.
9.2	Herritarrei gardentasuna eta kontuak ematea bermatzeko kontrol eta komunikazio mekanismoak ezartzea.	9.2.1	Informazio mekanismo bat eta kontuak emateko mekanismo bat ezartzea. Mekanismo horren bidez, segurtasunaren bilakaerarekin lotutako datuak argitaratuko dira, eta, unean-unean, interes orokorrekoak izan daitezkeen jardueri buruzko azalpenak emango dira.
		9.2.2	“Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordea” abian jartzea.

#### L 10. HERRITARREKIN ALDEBIKO KOMUNIKAZIO ZUZENA ETA ERAGINKORRA IZATEA AHALBIDETUKO DUTEN MEKANISMOAK ETA KANALAK EZARTZEA

10.1	Herritarrekin aldebiiko zuzeneko komunikazioa izateko dinamika sistematiko eta egituratu bat artikulatzea.	10.1.1	Segurtasun komunikazioko politika bat diseinatzea, ikuspegi integralarekin.
		10.1.2	Buloen eta fake news-en aurkako kanalak ezartzea, bai sare sozialetan, bai komunikabideekin, segurtasunaren arloari buruzko informazio egiaztatua helarazteko; hala, segurtasunaren pertzepzioan eragina izan dezaketen buloak eta albisteak ezabatuko dira.
		10.1.3	Herritarrei euskal errepide sareko trafikoari eta bide segurtasunari buruzko informazioa zuzenean, berehala eta modu erabakigarrian emateko mekanismoak sustatzea.
		10.1.4	Arrisku egoerak pertsonalizatzeko gaitasuna duen abisu eta alerta sistema bat ezartzea herritarrei zuzenduta, informazio egiazko, azkar eta osoaren bidez autobabesa bermatu ahal izateko.
		10.1.5	Herritarrekin interakzioan jarduteko bitarteko digitalen (sare sozialak, mezularitza aplikazioak, aplikazio propioak) erabilera sustatzea, egungo edo balizko segurtasun intzidentziei buruzko informazioa biltzeko eta helarazteko.

III. ERRONKA. HERRITARREN ESPEKTATIBAK ETA ESKAKIZUN GERO ETA HANDIAGOA

EKIMENAK	EKINTZAK
	10.1.6 Alderantziko 112n oinarritutako abisu prozedura ezartzea (112 reverse), arrisku jakin batek arriskuan jartzen dituen herritarrak zuzenean ohartarazteko.
	10.1.7 Sare sozialen erabilera sustatzea, herritarrei larrialdiei buruzko alertak eta aholkuak jakinarazteko.
10.2 Izapideak bizkortzea, prozedurak sinplifikatzea eta horiek eskuratzeko erraztasunak ematea, polizia eta administrazio bulegoetara eraman beharrik gabe.	10.2.1 Delitu egitate baten aurrean egin beharreko izapide guztiak arintzea, ahal den neurrian, bulegoetara eramateko beharra saihestuz.
	10.2.2 Administrazio prozedura guztiak sinplifikatzea eta digitalizatzea, egoitza elektronikotik izapidetze elektronikoko osoa egin ahal izateko.
10.3 Hauteskunde erreforma, larrialdi egoerei aurre egiteko.	10.3.1 Posta bidezko botoa online eskatzea ahalbidetzea.
	10.3.2 Internet e-vote bidez botoa emateko proba pilotuak aztertzea eta proiektatzea (Atzerrian bizi diren egoiliarren hautesle errolda - CERA botoa).
	10-3-3 Estatuarekin "Autentifikazio, Identifikazio eta Sinadura Digitalerako Euskal Sistemaren" (IZENPE) aitortpena adostea.

## 5.5. IV. ERRONKA. TALDE PROFESIONAL NAHIKOA, EGONKORRA ETA GOGOBEA

IV. Erronka. TALDE PROFESIONAL NAHIKOA, EGONKORRA ETA GOGOBEA		
EKIMENAK	ARD.	EKINTZAK
L11. PERTSONA KONPROMETITUAK, KUALIFIKATUAK, PARTAIDETZA ZENTZUA DUTENAK ETA GOGOBEAK EDUKITZEA		
11.1 Lidergo Eredu baten alde egitea, ikuspegi Parte Hartzailearekin.	11.1.1	Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen Lidergo Eredua indartzea.
	11.1.2	Gainerako zuzendaritzetan Lidergo Eredu Parte Hartzailea definitu eta ezartzea.
	11.1.3	Antolamendu formulak ezartzea parte hartzera eta talde lanera bideratuta.
11.2 Erakundeak behar dituen kualifikazio mailak segurtatzea.	11.2.1	Larrialdiei eta Meteorologiari buruzko prestakuntza herritarrentzat eta Larrialdiei Aurre egiteko Euskal Zerbitzuentzat.
	11.2.2	Barne eta kanpo Prestakuntza programak lantzea Joko eta Ikuskizunen arloan.
	11.2.3	Lankidetzeta eta erantzunkidetasuna sustatzeko prestakuntza programak lantzea segurtasun publikoaren sisteman esku hartzen duten instituzio eta erakunde guztiekin.
	11.2.4	Irakaskuntzaren arloan teknologia berriak sartzeta, bai emateko formatuetan, bai edukietan.
	11.2.5	Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen Prestakuntza Programak bateratzea/homogeneizatzea: sartzeko prestakuntza, postuz igotzeko prozesuetako prestakuntza...
	11.2.6	Profil eta konpetentzia profesional berriak definitu eta diseinatzea, eskakizun eta errealitate berrien arabera. Hautapen eta prestakuntza sistema berritzea, behar eta teknologia berrietara egokituta, eta segurtasun publikoaren eredu eta politikarekin bat egitea.
	11.2.7	Segurtasunari buruzko prestakuntza arautuaren errekonozimendua sustatzea Lanbide zein Unibertsitate Heziketaren Hezkuntza Sisteman, lankidetzeta ariketak sustatuz PLEaren eta Hezkuntza Sistemaren, Unibertsitatearen, Botere Judizialaren eta beste erakunde, zentro edo establezimendu batzuen artean, irakaskuntzarako bereziki interesgarriak badira.
	11.2.8	Kualifikatzeko beharrak indartzea kanpo ikastaroetara joz, erakundeetan dagoen barne ezagutza lagundu, aholkatu edo osatzeko.
	11.2.9	Beste hizkuntza batzuetako prestakuntza sustatzea, bereziki ingelesa eta frantsesa.
11.3 Ezagutzaren kudeaketa sistematizatzea.	11.3.1	Ezagutza Kudeatzeko sistematika diseinatzea: identifikatu, jaso, antolatu, zabaldu, eguneratu...
	11.3.2	Ezagutza kudeatzeko lanketa espezifiko bat egitea, Belaunaldi arteko Erreleboa kontuan hartuko duena: Mentoring programak.
11.4 Barne komunikazioa lantzea.	11.4.1	Barne Komunikazioaren Politika, Barne Komunikazioaren Plana eta hori kudeatzeko sistematika diseinatzea.
11.5 Errekonozimendua sistematizatzea.	11.5.1	Ertzaintzan espezializazioa, polizia eskala eta funtzioak aintzatesteko sistema berrikustea.

IV. Erronka. TALDE PROFESIONAL NAHIKOA, EGONKORRA ETA GOGOBBETA

EKIMENAK	ARD.	EKINTZAK
	11.5.2	Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen Bosgarren Aldaketaren 7/2019 Legean, ekainaren 27koan, jasotako Karrera Profesionala garatzea eta ezartzea.
	11.5.3	Pertsonak aintzatesteko formulak diseinatu eta ezartzea.
11.6 Profesionalen osasuna eta babesa kudeatzen aurrera egitea.	11.6.1	Lan Osasunaren arloan, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen Bosgarren Aldaketaren 7/2019 Legea, ekainaren 27koa, garatzea: Zerbitzu aktiboa, adinaren arabera modulatu, Bigarren Jarduera gaitasun psikofisiko nahikoa ez edukitzeagatik, Laneko arriskuen prebentzioa...
11.7 Emakumeak polizia zerbitzuetan sustatzeko eta presentzia izateko Planak sustatzea.	11.7.1	Udaltzaingoetan emakumeen presentzia sustatzeko udal planak bultzatzea, EAEko Poliziaren Legean aurreikusi bezala, polizia lantaldeetan euren azpi-ordezkaritza zuzentzeko eta biktimak behar bezala artatu ahal izateko eta, edonola ere, birbiktimizatzeke moduak galarazteko.
	11.7.2	Ertzaintzan emakumeen presentzia sustatzeko udal planak bultzatzea, EAEko Poliziaren Legean aurreikusi bezala, polizia lantaldeetan euren azpi-ordezkaritza zuzentzeko eta biktimak behar bezala artatu ahal izateko eta, edonola ere, birbiktimizatzeke moduak galarazteko.
11.8 EAEko Polizian Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana inplementatzea.	11.8.1	Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana inplementatzea.
	11.8.2	Udaltzaingoetan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana inplementatzea.
<b>L12. BEHARREZKO LANTALDEA ETA EGITURA FINKATZEA</b>		
12.1 Sarbide eta Barne Promoziorako Sistema hobetzea.	12.1.1	Polizia eskala eta kategorietan gora egiteko prozesuak berrikustea (oinarrizkoa, ikuskaritza, exekutiboa eta goi mailakoa) sartzeko baldintzak, antzinatasuna, kualifikazioa, meritua, eta EAEko Poliziarentzako antzeko irizpideak, baldintzak eta diseinuak lantzen aurrera egitea.
	12.1.2	Eskala exekutibora zuzenean sartzea aurreikustea, komisariordearen kategorian.
	12.1.3	Espezialitateak zehaztea, eta Eskala Fakultatibo eta Teknikorako kontuan har daitezkeen lanpostuen katalogo bat diseinatzea eta definitzea.
12.2 Profesionalen kopurua bermatzea.	12.2.1	Ertzaintza eta Udaltzaingoetan sartzeko deialdi bateratuak abiaraztea.
	12.2.2	Segurtasun zerbitzu publikoetan sartzeko prozesu bateratuak optimizatzen jarraitzea.
	12.2.3	Eskala desberdinetan eta kategoria polizialeetan gora egiteko deialdi berriak ateratzea.
12.3 EAEko Polizia gorputzen arteko mugikortasuna.	12.3.1	Txanda librez egiten diren deialdietan postuak sartzea, zeinak deitutako plazaren kategoria baliokidea duten EAEko beste gorputz edo kidego batzuetako funtzionarioekin lehiaketa- oposizio bidez bete baitaitezke, plaza horretan egiazki bost urtez jardun badute, eta bi urtez, oinarrizko eskalako agenteak badira. Txanda horrekin bete gabeko plazak txanda libreari gehituko zaizkio, dagokionean.
12.4 Larrialdiei Aurre Egiteko Eskalak.	12.4.1	Larrialdiei Aurre Egiteko Eskalaren legea betetzea (1/2017 LDko Hirugarren Xedapen Gehigarria).

IV. Erronka. TALDE PROFESIONAL NAHIKOA, EGONKORRA ETA GOGOBETEA

EKIMENAK

ARD.

EKINTZAK

- |      |   |        |  |
|------|---|--------|--|
| 12.5 | Polizia ez diren langileen errotazioa eta behin-behinekotasuna kudeatzea. | 12.5.1 | Postuan irautea sustatzea, taldeak finkatzea bermatzeko. |
|------|---|--------|--|

## 6. INPAKTU ADIERAZLEAK

Kapitulu honek **inpektu adierazle** batzuk jasotzen ditu. Horien helburua da Ekintza Plana ebaluatzeko esparru bat ezartzea, benetako eta hautemandako segurtasunari dagokionez.

### 6.1. INPAKTUA HERRITARREN SEGURTASUN PERTZEPZIOAN

ADIERAZLEA	EMAITZA 2017	EMAITZA 2019	HELBURUA 2025
Herritarren segurtasun pertzepzioa Euskadin	7,15	6,93 7.10 (G) 6,78 (E)	> 7.5

### 6.2. INPAKTUA HERRITARREN BALORAZIOAN

ADIERAZLEA	EMAITZA 2017	EMAITZA 2019	HELBURUA 2025
Ertzaintzak ematen dituen zerbitzu polizialen balorazioa	7.24	7.48	> 7.5
Udaltzainek ematen dituzten zerbitzu polizialen balorazioa	6.48	6.96	> 7.5
112 telefonoan jasotako arretaren balorazioa	8.35	8.35	> 8.5
Euskalmet Euskal Meteorologia Agentziak ematen duen informazioarekiko gogobetetze maila	7.79	8.14 8.07 (G) 8,20 (E)	> 8.5
Larrialdi zerbitzuek trafiko istripu baten aurrean ematen duten tratua eta zerbitzuaren balorazioa	-	6.95	> 7.5
Eusko Jaurlaritzaren webak/app-ak trafikoaren egoerari buruz ematen duen informazioaren balorazioa	-	7.8	> 8.0

### 6.3. INPAKTUA BENETAKO SEGURTASUNEAN

ADIERAZLEA	EMAITZA 2017	EMAITZA 2019	HELBURUA 2025
Kriminalitate tasa 1.000 biztanleko	49,20	53,35	< 50

ADIERAZLEA	EMAITZA 2017	EMAITZA 2019	HELBURUA 2025
Delitu estrategikoen kriminalitate tasa 1.000 biztanleko	22,30	23,29	< 22
Argitze tasa (ebazpen poliziala): Orokorra	%35,85	%35,63	> %40
Argitze tasa giza hilketetan	%83,33	%96,97	> %98
Argitze tasa sexu askatasunaren aurkako delituetan	%82,99	%84,92	> %88
Argitze tasa etxebizitzetan indarra erabiliz egindako lapurretetan	%15,47	%15,33	> %16
Argitze tasa indarra eta larderia erabiliz egindako lapurretetan	%40,43	%47,98	> %50
Emakumeen aurkako biktimizazioen kopurua	4.999	5.518	< 5.000
Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen kopurua	4.020	4.419	< 4.000
Aktibatutako larrialdi planen ehunekoa, aktibatu beharko liratekeen plan guztiekiko	--	--	> %80
112 telefonoaren bidez herritarren eskura jarritako abisu tresnen eta bitartekoen (app, web, etab.) ezagutza/onarpen maila	--	--	> %60
Larrialdietarako alerta goiztiarren aurreikuspen ahalmenaren %, emaitzetara egokituta	--	--	> %80
Denbora errealean jasotako datu meteorologikoen %	--	--	> %90
Meteorologiari dagokionez herritarren eskura jarritako abisu tresnen eta bitartekoen (app, web, etab.) ezagutza/onarpen maila	--	--	> %60
Trafiko istripuen ondorioz hildakoen kopurua	39	51	< 35
Trafiko istripuen ondorioz larri zauritutako pertsonen kopurua	461	449	< 335
Egindako ikuskapenen ehunekoa, jokorako eta apustuak egiteko lokalen eta guneen kopuruaren arabera	3.976	5.871	Δ %15 (6.751)
Adingabeei buruzko akten ratioa (bai jokatzeko lokaletan egoteagatik, bai jokatzeagatik) egindako ikuskapen kopuruarekiko	%0,50	%0,22	%0,00

## 7. PLANAREN KUDEAKETA EREDUA

2020-2025 ESPPOk Kudeaketa Eredu bat beharko du, haren hedapena eta garapena errazteko, bai eta segimendua eta ebaluazioa egiteko ere. Eredu horretan, alderdi hauek erabakigarriak izango dira: Gobernantza, Aginte Taula Estrategikoaren bidezko segimendu eta kontrol mekanismoak, adierazle multzoa eta komunikazioa eta gardentasuna.

Kudeaketa Ereduak koherentea izan behar du zehaztutako misioarekin eta printzipioekin, eta ezarritako bisioa eta erronka estrategikoak lortzen lagundu behar du. Printzipio guztien artean, Kudeaketa Ereduaren ezaugarriek bereziki eragindako batzuk nabarmendu behar dira: konpromisoa, lidergoa eta taldea, gardentasuna eta gobernu ona, bilakaera.

### 7.1. GOBERNANTZA

ESPPOren ezaugarrietako bat haren garapenean eta hedapenean, koordinazioan eta segimenduan esku hartzen duten erakundeen aukera zabala da. Ondoko ataletan, parte hartzen duten erakundeak, bakoitzaren rola eta koordinazio mekanismoak jasotzen dira.

#### 7.1.1. SEGURTASUN SAILA

Segurtasun Sailaren ardura da ESPPO definitzea eta hedatzea; zehazki, honako hauei dagokie:

- Segurtasun Sailburuordetza:
  - **Segurtasuneko sailburuordea**, ESPPO lantzeko arduradunaren rolean, *Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 83/2017 Dekretuan xedatutakoaren arabera, segurtasun publikoko agintaritzaren aldetik.*
  - **Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza**, Segurtasun Sailburuordetzako titularrari zeregin horretan laguntzeko eta erantzukizun zuzena izateko ESPPOren zenbait ekimenen gainean.
- Segurtasun Sailburuordetzaren menpeko **gainerako zuzendaritzak**, baita ere, erantzukizun zuzena dutenak ESPPOren ekimen batzuen gainean: **Ertzaintzaren Zuzendaritza, Trafiko Zuzendaritza, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza eta Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza**, jokoak eragindako arazoaren maila murrizteko erronkaren aurrean. Zuzendaritza bakoitza arduratuko da bere inizatibean eta ekintzen segimendua egiteaz, zein bere kudeaketa foroan.

**Gainera, Segurtasun Sailburuordetzaren Zuzendaritza Kontseilua dago**, sailburuordeak eta zuzendari guztiek osatua. Organo hori arduratzen da, hain zuzen, ESPPOren segimendua egiteaz, ekintzen ezarpen maila aztertzeaz eta helburuen lorpenean egon daitezkeen desbideratzeak hautemateaz eta aurreikusteaz, eta, ondorioz, baita ezarritako ekintzetan hobekuntzak identifikatzeaz ere.

- **Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza eta bere Zuzendaritzak**, Segurtasun Saileko ekonomiaren, ondarearen eta aurrekontuen kudeaketa, zerbitzu orokorrak eta giza baliabideak zuzentzeaz eta koordinatzeaz arduratzen direnak, baita segurtasun egiturari laguntzeko baliabide teknikoaz eta azpiegiturez ere.



Plana gauzatzeko laguntza juridikoa, materiala, teknologikoa eta giza baliabideak kudeatzeko laguntza ematean datza bere eginkizuna.

**Polizia eta Larrialdietako Akademiako Zuzendaritza**, herritarren segurtasuna lortzera bideratutako zerbitzu publikoak ematen diharduten profesionalen prestakuntzaren arduraduna.

Planaren ondorioetarako, euskarria ematen dio hautaketa eta prestakuntza prozesuen definizioari.

### 7.1.2. ERAKUNDE ARTEKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA

ESPPOren garapena segurtasun publikoarekin lotutako politiken lanketan inplikaturik dauden beste erakunde batzuen menpe ere egongo da. Erakunde horiek Eusko Jaurlaritzako gainerako sailtakoak eta toki eta foru eremuko beste administrazio publiko batzuetakoak eta erakunde pribatuetakoak izango dira (udaltzainak, suhiltzaileak, babes zibileko boluntarioen udal elkarteak, Gurutze Gorria, DYA, Euskal Mendizale Federazioa, Osakidetza osasun sistema, segurtasun pribatua...).

Beraz, beharrezkoa izango da ESPPOri koordinazio eta lankidetzaren mekanismoak ematea, modu batera edo bestera eraginpean egongo diren erakunde guztien parte hartzea ahalbidetzeko. Gaur egun, dokumentuaren 3.6 atalean jasotzen den bezala, behar horri erantzuna eman beharko lioketen foro eta mekanismo ugari daude funtzionamenduan, eta organo horiek funtsezkoak izango dira ESPPO behar bezala hedatzen dela bermatzeko.

Lehendik dauden foroez gain, lantalde espezifikoak martxan jarri ahal izango dira, ESPPOn xedatutako zenbait ekintza garatzeko. Lantalde horiek proiektuak kudeatzeko behar diren tresnak izango dituzte.

## 7.2. SEGIMENDUA ETA EBALUAZIOA

ESPPOren segimendua eta ebaluazioa egiteko, mekanismo hauek aurreikusi dira:

- ESPPOren segimendua:
  - o Segurtasun Sailburuordetzaren Zuzendaritza Kontseiluaren barruan, hiru hilean behin.
  - o Sailburuordetzako zuzendaritzetatik, zuzendari bakoitzak erabilitako kudeaketa sistematikari jarraituz.
- **ESPPOren urteko ebaluazioa**, egindako ekintzak, aurrerapen maila eta aurreikusitako helburuak lortu diren aztertzeko. Ebaluazio horiei esker, gerta daitezkeen desbideratzeak antzeman eta aurreikusi ahal izango dira, eta, ondorioz, inplementatutako ekintzetan egin daitezkeen hobekuntzak identifikatu ahal izango dira .

Ebaluazioa Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritzak koordinatuko du.

ESPPOren ekintza bakoitzerako gutxienez adierazle bat identifikatu da, segimendua eta ebaluazioa egitean elementu kuantitatiboak sartzea ahalbidetuko duena.

# ERANSKINAK

## I. ERANSKINA. ESPARRU JURIDIKOA

### DELINKUENTZIAREN AURREAN BABESTEAK.

- 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa. BOE, 1995eko azaroaren 24koa, Zigor Kodearena eta araudi osagarriarena.
- Prozesu eta espetxe legeria.

### HERRITARREN SEGURTASUNA PREBENITZEA, MANTENTZEA ETA BERREZARTZEA

- 4/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, herritarren segurtasuna babesteari buruzkoa.
- 4/1981 Lege Organikoa, ekainaren 1ekoa, alarma, salbuespen eta setio egoerei buruzkoa.
- 2/1986 Lege Organikoa, martxoaren 13koa, Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzkoa.
- 9/83 Lege Organikoa, uztailaren 15ekoa, biltzeko eta manifestatzeko eskubidea arautzen duena.
- 4/1997 Lege Organikoa, abuztuaren 4koa, toki publikoetan segurtasun indar eta kidegoek bideokamerak erabiltzea arautzen duena.
- 168/1998 Dekretua, uztailaren 21ekoa, EAeko Poliziak leku publikoetan bideokamerak erabiltzeko baimenen eta horien erabileraren araubidea garatzen duena.

### SEGURTASUN INDAR ETA KIDEGOAK: EAE-KO POLIZIA

#### POLIZIA ANTOLAKETA:

- 7/2019 Legea, ekainaren 27koa, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legea bosgarrenez aldatzen duena.
- 15/2012 Legea, ekainaren 28koa, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzea.
- 57/2015 Dekretua, maiatzaren 5ekoa, tokiko koordinazio polizialerako batzordeen osaerari eta funtzionamendu araubideari buruzkoa.

#### ESTATUTU ARAUBIDEA:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziako –Ertzaintzak eta udaltzaingoen osatua– funtzionarioen estatutu araubidearen erregulazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legean eta lege hori garatzen duen araudian dago jasota; horien artean aipagarri: Euskal Autonomia Erkidegoko polizia kidegoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko erregelamendua (abenduaren 22ko 388/1998 Dekretua eta haren ondoz ondoko aldaketak); Euskal Autonomia Erkidegoko polizia kidegoen diziplina araubideari buruzko erregelamendua (maiatzaren 3ko 170/1994 Dekretua); Ertzaintzan jasotako ordainsariei eta konpentsazioei buruzko erregelamendua (abenduaren 5eko 267/2017 Dekretua), etab.

#### UDALTZAINGOEN KOORDINAZIOA:

- 58/2015 Dekretua, maiatzaren 5koa, Euskadiko Udaltzaingoen antolamenduari eta funtzionamenduari aplikatzekoak diren esparru arauak ezartzen dituena.
- 203/2012 Dekretua, 2012ko urriaren 16koa, Euskadiko Udaltzaingoen Erregistroa eta Udaltzaingoko kideen akreditazio profesionalerako sistemak arautzen dituena. Udaltzaingoen oinarritzko eskalako bitarteko agenteen lan poltsaren funtzionamendu erregelamendua. (EHAA, 217/2012 zk.).
- Agindua, 2020ko otsailaren 14koa, Segurtasuneko sailburuarena, EAEko Poliziaren akreditazio profesionaleko elementuei buruzkoa. (EHAA, 41/2020 zk.).
- 2012ko irailaren 24ko Agindua, Euskadiko udaltzaingoen uniformeei eta kanpoko zeinu bereizgarriari buruzkoa. (EHAA, 193/2012 zk.).
- 27/2010 Dekretua, urtarrilaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko polizia kidegoei aplikatzekoak diren kondekorazio eta bereizgarriari buruzkoa (EHAA, 22/2010 zk.).
- 2012ko irailaren 20ko Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoko polizia kidegoei aplikatzekoak diren kondekorazioei eta bereizgarriari buruzkoa. (EHAA, 189/2012 zk.).
- 57/2015 Dekretua, maiatzaren 5koa, tokiko polizia koordinatzeko batzordeen osakerari eta funtzionamendu araubideari buruzkoa.

#### SEGURTASUN PRIBATUA

- 5/2014 Legea, apirilaren 4koa, Segurtasun Pribatuari buruzkoa.
- 2364/1994 Errege Dekretua, abenduaren 9koa, Segurtasun Pribatuaren Erregelamendua onartzen duena.
- 207/2014 Dekretua, urriaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoak segurtasun pribatuaren arloan dituen eskumenak arautzen dituena.
- 382/2013 Dekretua, uztailaren 9koa, Euskadiko Segurtasun Pribatua Koordinatzeko Batzorde Mistoarena.

#### BABES ZIBILA ETA LARRIALDIEN KUDEAKETA

- 17/2015 Legea, uztailaren 9koa, Babes Zibileko Sistema Nazionalarena.
- PCI/488/2019 Agindua, apirilaren 26koa, Segurtasun Nazionalako Kontseiluak onartutako Babes Zibileko Estrategia Nazionala argitaratzen duena.
- 24/1998 Dekretua, otsailaren 17koa, Euskadiko Babes Zibilerako Batzordearen osaera, eginkizunak eta antolamendua arautzen dituena.
- 15/2012 Legea, ekainaren 28koa, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzailea.
- 458/2013 Dekretua, abenduaren 10ekoa, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Kontseiluaren antolamendua eta funtzionamendua ezartzen dituena.
- 1/2017 Legegintzako Dekretua, apirilaren 27koa, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 277/2010 Dekretua, azaroaren 2koa, zenbait jarduera, zentro edo establezimenduren autobabes betebeharrak arautzen dituena, larrialdi egoerei aurre egiteko (eta akatsak zuzentzeko).

- 21/2019 Dekretua, otsailaren 12koa, zenbait jarduera, zentro edo establezimenduren autobabes betebeharrak arautzen dituen Dekretua bigarrenez aldatzen duena.
- 153/1997 Dekretua, ekainaren 24koa, «Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi» Euskadiko Babes Zibileko Planaren ezohiko berrikuspena onartzen duen urtarrilaren 13ko 1/2015 Dekretuak aldatua.
- 1/2015 Dekretua, urtarrilaren 13koa, «Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi» Euskadiko Babes Zibileko Planaren ezohiko berrikuspena onartzen duena.
- 24/2010 Dekretua, urtarrilaren 19koa, herritarrek larrialdiei aurre egiteko euskal sisteman borondatez parte hartzeari buruzkoa.
- 253/2017 Dekretua, azaroaren 21ekoa, Eusko Jaurlaritzak larrialdiei aurre egitearen eta babes zibilaren arloan ematen dituen sariei buruzkoa.
- 30/2019 Dekretua, otsailaren 26koa, herritarrek larrialdiei aurre egiteko euskal sisteman borondatez parte hartzeari buruzko Dekretua eta Eusko Jaurlaritzak larrialdiei aurre egitearen eta babes zibilaren arloan ematen dituen sariei buruzko Dekretua aldatzen dituena.
- Agindua, 2001eko abuztuaren 1ekoa, Herrizaingo sailburuarena, Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren taktika operatiboak onartu eta Larrialdietan Koordinatuta Esku hartzeko Zerbitzua sortzen duena. 2007ko martxoaren 20ko, 2012ko urriaren 8ko, 2016ko otsailaren 1eko eta 2018ko azaroaren 20ko Aginduek aldatua.
- 311/2003 Dekretua, abenduaren 16koa, Euskal Meteorologia Agentzia sortzen duena.

## AZPIEGITURA KRITIKOAK

- 8/2011 Legea, apirilaren 28koa, azpiegitura kritikoak babesteko neurriak ezartzen dituena.
- Azpiegitura kritikoak babesteko Europako programa.
- 2008/114/EE Zuzentaraua, abenduaren 8koa, Europako Kontseiluarena, Europako azpiegitura kritikoak identifikatu eta izendatzeari eta horien babesa hobetzeko beharra ebaluatzeari buruzkoa.
- 704/2011 Errege Dekretua, maiatzaren 20koa, Azpiegitura Kritikoak Babesteko Erregelamendua onartzen duena.

Azpimarratu behar da araudi honen aplikagarritasuna honako hauei kalterik egin gabe egingo dela:

- a) CNIren misioa eta eginkizunak, araudi espezifikoan ezarritakoak.
- b) Energia nuklearrari buruzko 25/1964 eta 15/1980 legeetako irizpideak eta xedapenak (33/2007 Legeak aldatua).
- c) Hegazkineria Zibilaren Segurtasunerako Programa Nazionalean xedatutakoa (21/2003 Legea eta araudi osagarria).

Defentsa Ministerioaren eta Segurtasun Indar eta Kidegoen menpeko azpiegiturak ere ez daude lege hauen eraginpean, haien araudi eta prozeduren arabera arautuko baitira.

## TRAFIKOA ETA BIDE SEGURTASUNA

- 3256/1982 Errege Dekretua, urriaren 15ekoa, trafikoari eta ibilgailuen zirkulazioari buruzko Estatuko legeria betearaztearen arloan Estatuko zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeari buruzkoa.

- 83/2017 DEKRETUA, apirilaren 11koa, Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.
- 18/1989 Legea, uztailaren 25ekoa, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Oinarriak arautzen dituena (178. BOEa; hutsen zuzenketa, 75. BOEa, martxoaren 28koa) eta haren aldaketak.
- 6/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 1428/2003 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, Zirkulazio Erregelamendu Orokorra onartzen duena.
- 818/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Gidarien Erregelamendu Orokorra onartzen duena (ekainaren 8ko BOE, 138. zk.).
- 2822/1998 Errege Dekretua, abenduaren 23koa, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzen duena (1999ko urtarrilaren 26ko BOE, 22. zk.).
- 320/1994 Errege Dekretua, otsailaren 25ekoa, Trafikoaren, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioaren eta Bide Segurtasunaren arloko zehapen prozeduraren Erregelamendua onartzen duena (1994ko apirilaren 21eko BOE, 95. zk.). Urtarrilaren 30eko 116/1998 Errege Dekretuak, martxoaren 14ko 318/2003 Errege Dekretuak eta otsailaren 4ko 137/2000 Errege Dekretuak aldatua.
- 87/2001 DEKRETUA, maiatzaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoan hiriarteko trafikoa kudeatzeko sistema arautzen duena eta Euskadiko Trafikoa Kudeatzeko Zentroa sortzen duena, eta haren ondorengo aldaketak.
- 35/2014 Dekretua, martxoaren 11koa, Euskadiko Bide Segurtasuneko Batzordearen antolamendua eta funtzionamendua arautzen dituena. (EHAA, 51. zk., martxoaren 14koa).
- 151/2018 DEKRETUA, urriaren 23koa, Euskadiko trafiko istripuen biktimen erregistroa sortu eta arautzen duena.

## JENDAURREKO IKUSKIZUNAK ETA JOLAS JARDUERAK

### JENDAURREKO IKUSKIZUNAK ETA JOLAS JARDUERAK ORO HAR

- 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jendaurreko ikuskizun eta jolas jarduera guztiak arautzen dituena.
- 119/2019 DEKRETUA, uztailaren 23koa, jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen Dekretua aldatzen duena.
- 17/2019 DEKRETUA, otsailaren 5ekoa, jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena.
- 105/2016 Dekretua, uztailaren 7koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Euskal Kontseiluaren osaera eta funtzionamendu araubidea arautzen dituena, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legearen 7. artikuluan xedatutakoa garatzeko.
- 44/2014 Dekretua, martxoaren 25ekoa, jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak egiteko eska daitezkeen erantzukizun zibileko aseguruak arautzen dituena (EHAA, martxoaren 28koa, 161. zk.).
- Ebazpena, 2019ko azaroaren 29koa, Joko eta Ikuskizun zuzendariarena, martxoaren 25eko 44/2014 Dekretuan ezarritako erantzukizun zibileko aseguru eredu berriak ezartzen dituena jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak egiteko.

- 2816/1982 Errege Dekretua, abuztuaren 27koa, Ikuskizun eta Jolas Jardueretarako Polizia Erregelamendu Orokorra onartzen duena (azaroaren 6ko BOE, 267. zk.).
- 842/2002 Errege Dekretua, abuztuaren 2koa, behe tentsiorako erregelamendu elektroteknikoa eta BT -01 eta BT 51 bitarteko jarraibide tekniko osagarriak onartzen dituena.

#### ZEZEN IKUSKIZUNAK

- 124/2010 Dekretua, apirilaren 27koa, Zezen Ikuskizunen Erregelamendua onartzen duen Dekretua aldatzen duena.
- Zezen Gaietarako Euskal Batzorde Aholku Emaila, Zezen Ikuskizunen Erregelamendua onartzen duen azaroaren 11ko 183/2008 Dekretuaren bidez sortua (EHAA, 243; 2008-12-19).
- 183/2008 Dekretua, azaroaren 11koa, Zezen Ikuskizunen Erregelamendua onartzen duena (abenduaren 19ko EHAA, 243. zk.), apirilaren 27ko 124/2010 Dekretuak aldatua (maiatzaren 7ko EHAA, 84. zk.).
- 181/1989 Dekretua, uztailaren 27koa, zezenketa abereen eta zezen ikuskizunen abeltzaintza ustiatzearen erregistroa eta zezenketa abereen jaiotza erregistroa arautzen dituena (abuztuaren 30eko EHAA, 160. zk.).
- AGINDUA, 2015eko abuztuaren 3koa, segurtasuneko sailburuarena, zezen ikuskizun orokorretan lagin biologikoak hartzeko prozedura, horien analisisa eta lagin horiek aztertzeko ardura duten laborategiak homologatzeko prozedura arautzen dituena (abuztuaren 3ko EHAA, 145. zk.).
- 1991ko uztailaren 18ko Agindua, Herrizaingo eta Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko zezenketa abereen adarrak onartzeari buruzkoa (abuztuaren 9ko EHAA, 160. zk.).
- EBAZPENA, 2019ko ekainaren 6koa, Joko eta Ikuskizun zuzendariarena, 2019ko zezenketa denboraldian zezenketa abereei *post-mortem* ausazko analisiak egitea zehazten duena.

#### INDARKERIAREN PREBENTZIOA KIROL IKUSKIZUNETAN

- 19/2007 Legea, uztailaren 11koa, kiroleko indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkakoa (BOE, uztailaren 12koa, 166. zk.).
- 203/2010 Errege Dekretua, otsailaren 26koa, kirolean indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantzia prebenitzeko Erregelamendua onartzen duena (BOE, martxoaren 9koa, 59. zk.).
- 10/1990 Legea, urriaren 15koa, Kirolarena (BOE, urriaren 17koa, 249. zk.).

#### ARTIFIZIO PIROTEKNIKOAK DITUZTEN IKUSKIZUNAK

- 400/2013 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan artifizio piroteknikoak dituzten ikuskizunei buruzkoa (abuztuaren 2ko EHAA, 147. zk.).
- 563/2010 Errege Dekretua, maiatzaren 7koa, artikulua piroteknikoen eta kartutxoaren araudia onartzen duena. (Maiatzaren 8ko BOE, 113. zk.).

#### JOKOA

- 4/1991 Legea, azaroaren 8koa, Euskal Autonomia Erkidegoan jokoa arautzen duena. (EHAA, azaroaren 25ekoa, 237. zk.), barne merkatuko zerbitzuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren

- abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentaraura egokitzeko zenbait lege aldatzen dituen apirilaren 23ko 7/2012 Legearen bidez aldatua. (Apirilaren 30eko EHAA, 84. zk.).
- 147/2018 Dekretua, urriaren 16koa, Jokoaren Euskal Behatokia sortu eta arautzen duena. (2018ko urriaren 23ko EHAA, 204. zk.)
  - Jokoaren Batzorde Tekniko Aholkularia, Euskal Autonomia Erkidegoan jokoaren erregelamendu orokorra onartzen duen uztailaren 27ko 120/2016 Dekretuaren bidez sortua (EHAA, irailaren 6koa, 169. zk.).
  - Euskal Autonomia Erkidegoko Jokoaren eta Jokoaren Erregistroaren Euskal Kontseilua, Euskal Autonomia Erkidegoan jokoaren erregelamendu orokorra onartzen duen uztailaren 27ko 120/2016 Dekretuaren bidez sortua (irailaren 6ko EHAA, 169. zk.).
  - 120/2016 Dekretua, uztailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoan jokoaren erregelamendu orokorra onartzen duena. (Irailaren 6ko EHAA, 169. zk.).
  - 181/2010 Dekretua, uztailaren 6koa, Euskadiko Jokoen Katalogoa bigarren bez aldatzen duena (EHAA, uztailaren 23koa, 141. zk.).
  - 95/2005 Dekretua, apirilaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Apustuen Erregelamendua onartzen duena. 2005/02447, Euskal Autonomia Erkidegoko Jokoen Katalogoaren lehen aldaketa. (Maiatzaren 17ko EHAA, 71. zk.).
  - 277/1996 Dekretua, azaroaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jokoen Katalogoa onartzen duena (abenduaren 20ko EHAA, 245. zk.), Euskal Autonomia Erkidegoko Jokoen Katalogoa onartzen duen Dekretua (apirilaren 15eko EHAA, 70. zk.) zuzentzen duen martxoaren 25eko 69/1997 Dekretuaren bidez zuzendua eta uztailaren 6ko 181/2010 Dekretuaren bidez aldatua. (Apirilaren 15eko EHAA, 70. zk.).
  - Agindua, 2017ko azaroaren 21ekoa, Segurtasuneko sailburuarena, joko aretoetarako eta jolas aretoetarako lokalen betekizunak eta ezaugarriak arautzen dituena. (2017ko azaroaren 30eko EHAA, 229. zk.).
  - Agindua, 2017ko martxoaren 17koa, Segurtasuneko sailburuarena, joko makinaren betekizunak eta ezaugarri teknikoak eta haien interkonexio baldintzak arautzen dituena. (2017ko martxoaren 29ko EHAA, 62. zk.).
  - Agindua, 2015eko ekainaren 16koa, Segurtasuneko sailburuarena, urriaren 4ko 380/1994 Dekretua garatzen duena, zeinaren bitartez joko aretoen eta jolas aretoen araudia onartzen baita.
  - Agindua, 2014ko azaroaren 5koa, Segurtasuneko sailburuarena, e-Plus bingoaren araudia onartzen duena.
  - Agindua, 2012ko azaroaren 28koa, Herrizaingo, Justizia eta Administrazio Publikoko sailburuarena, otsailaren 10eko 31/2004 Dekretuaren bidez onartutako bingo jokoaren araudia garatzen duena.
  - Agindua, 2012ko ekainaren 28koa, Herrizaingoko sailburuarena, Bingo Elektronikoko Jokoaren Erregelamendua onartzen duena.
  - Agindua, 2011ko uztailaren 7koa, apustuak sistema telematikoen bidez ustiatzeko joko sistemak eta elementuak homologatzeari buruzkoa.
  - Agindua, 2011ko otsailaren 28koa, Herrizaingoko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko bingo jokoaren modalitateei aplikatzekoak diren kenketa ehunekoak zehazten dituen 2010eko otsailaren 8ko Agindua aldatzen duena (otsailaren 28ko EHAA).

- Agindua, 2010eko otsailaren 8koa, Herrizaingoko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko bingo jokoaren Erregelamenduko bingo jokoaren modalitateei aplikatzekoak diren kenketa ehunekoak zehazten dituena (EHAA, otsailaren 25ekoa, 38. zk.).
- Agindua, 1997ko abenduaren 17koa, Herrizaingo sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko joko makinen, makina laguntzaileen eta beste joko sistema eta instalazio batzuen araudia garatzen duena joko makinen eta makina laguntzaileen baimen prozeduren arloan (abenduaren 30eko EHAA, 249. zk.).



## II. ERANSKINA. ERAKUNDE ARTEKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA

Eranskin honetan deskribatzen dira, alde batetik, Segurtasun Sailaren, Eusko Jaurlaritzako gainerako sailen eta segurtasun publikoarekin lotutako politikak egiten inplikaturako erakunde gisa identifikatu diren beste administrazio publiko batzuen arteko harreman instituzionalerako tresna eta organo nagusiak; bestetik, eragile ekonomiko eta sozialek eta herritarrek parte hartzeko formulak identifikatzen dira.

Ildo horretan, Segurtasun Sailak Eusko Jaurlaritzako eta gainerako euskal erakundeetako beste arlo batzuekin ere lan egiten du, funtsezko alderdi hauetan:

- Alkohola eta gazteak:
  - o Alkoholaren eta Gazteen Erakunde arteko Batzordea.
  - o Erakunde arteko eta sektore arteko lantaldeak.
- Immigrazioa:
  - o Immigraziorako Euskal Estrategia.
  - o Immigratzaileen integrazio eta partaidetza sozialerako foroa.
- Ijito herria:
  - o Ijito herriarekiko politiken Euskal Estrategia.
  - o Ijito herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseilua.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana:
  - o Segurtasun Sailaren Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Plana.
  - o Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Saileko Talde Teknikoa.
- Adikzio plana:
  - o Droga Menpekotasunen Aholku Kontseilua.
  - o Adikzioen gaineko Erakunde arteko Koordinazio Batzordea.
  - o Adikzioen Euskal Kontseilua.
- Gazteria:
  - o Gazteen Justizia Plana edo Gazteriaren arloko Politika Integrala edo Gazteriaren arloko Zuzendaritza Batzordea edo Gazteriaren arloko Politikako Batzorde Teknikoa.
- Ingurumena:
  - o Uholdeen azterketa eta kudeaketa eta lurraldearen antolamendua
- Boluntariora:
  - o Herritarrek Larrialdiei Aurre egiteko Euskal Sistemari (SVAE) borondatez parte hartzea.
- Estatistika:
  - o Estatistikaren Euskal Kontseilua
  - o Estatistikaren Euskal Batzordea.

Aurkezpen hau organo bakoitzari esleitutako funtzio nagusiaren arabera ordenatuta aurkezten da:

- Erakunde arteko koordinazio organoak
- Aholkularitza eta koordinazio organoak
- Parte hartze organoak

## ERAKUNDE ARTEKO KOORDINAZIO ORGANOAK

### EUSKADIKO SEGURTASUN BATZORDEA

EAEko Segurtasun Publikoaren Sistemaren, Estatuaren Administrazio Orokorrekin izan beharreko koordinazioa eta lankidetzaren ordenamendu juridikoan xedatutako mekanismoen bidez egin behar da, eta, bereziki, Ertzaintzaren eta Estatu Segurtasun Indar eta Kidegoen arteko koordinazioari dagokionez (FCSE), Segurtasun Batzordearen bidez, Autonomia Estatuaren 17.4 artikulua arabera.

Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Batzordean, zerbitzuak zedarrizteko bi akordio lortu ziren 1989an eta 1995ean (aireportuei buruzko beste akordio puntual batzuek gain). Akordio horien bidez, jakin ahal izan zen zer polizia kidegok erantzun behar zion intzidentzia bati, dena delako intzidentziaren izaeraren eta gertatzen den lekua arabera, eta aurreikusitako harreman egoera koordinaziokoa (eskumen konkurrenteak) edo, hala badagokio, lankidetzakoa (polizia kidego baten/batzuen eskumen eksklusiboa) izango den.


Hala ere, estatu mailan gaur egungo harreman elementuen euskarri diren irizpideak indarrean sartzeaz gain, Europar Batasuna lurralde errealtate berri gisa gauzatu da, eta polizia kidego guztiak (Ertzaintza barne) beren eskumenak errealtate horretan proiektatzera bultzatu dira, eta lehentasuna eman zaio errealtate horretan polizia zerbitzu integralak sartzeari, nazioz gairik delinkuentziaren aurrean eraginkortasun polizial handiagoa izateko herritarrek egindako eskaerari erantzuteko.

Segurtasun Batzordearen azken bilera 2017ko ekainaren 14an egin zen, eta bertan Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko eta Espainiako Gobernuako Barne Ministerioko arduradunek parte hartu zuten. Bileran aurkeztu ziren akordioaren artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- Ertzaintza CITCO (Terrorismoaren eta Krimen Antolatuen aurkako Inteligentzia Zentroa) sartzeari, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziak alerta goiztiarreko sistemarako eta Europako polizia informaziorako (EUROPOL, SIENA, SIRENE) sarbidea izatea ere.
- Kriminalitateari buruzko datu estatistikoak trukatzeko eta genero indarkeriako kasuei buruzko informazioa trukatzeko protokoloak onartzea.
- Ertzaintza "beroko jazarpenak" egiteko gaitutako agentzia gisa sartzeari, eta EAEko interes orokorreko portuetako eskumen banaketa aztertzeke lantalde espezifikoa sortzea.
- Ertzaintzak Segurtasuneko Estatu Idazkaritzaren plan zuzentzaileetan parte hartzea.
- Ertzaintzaren promozio berriak deitzeko aukera, hitzartutako agente kopuruari eusteko.
- Polizia Koordinaziorako 1989ko Batzorde Teknikoa berraktibatzea eta hiru lan azpibatzerde sortzea: Informazioko lan azpibatzerdea, terrorismoarekin lotutako jarduketetarako; Polizia Judizialeko lan azpibatzerdea, ikerketa kriminalarekin lotutako jarduketetarako; eta Koordinazio Operatiborako lan azpibatzerdea, gatazkak sor daitezkeen eremuetan intzidentzeak konpontzeko.
- Koordinazioko Batzorde Iraunkorra eratzea, beste koordinazio maila batzuek ebatzi ez dituzten desadostasunak ebazteko.

*Maila  
operazionala*

*Maila Taktikoa*



XX. grafikoa. Polizia Koordinaziorako Batzorde Teknikoa eta atxikitako azpibatzerdeak.

Laburbilduz, Ertzaintzak informazio poliziala trukatzeko eta erabakiak hartzeko estatuko foroetan parte hartzea artikulatu da, Europako informazio polizialerako sarbidea zabaldu da, eskumenak argitzeko eta zedarrizteko mekanismoak ezarri dira, eta koordinazio tekniko polizialerako eta Batzordean hartutako erabakiak betetzeko mekanismoak indartu dira.

#### UDALTZAINGOAK KOORDINATZEKO BATZORDEA

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema antolatzen duen 15/2012 Legeak, ekainaren 28koak, Euskadiko Udaltzaingoak Koordinatzeko Batzordea eratzen du, Udaltzaingoak koordinatzeko kontsulta organo gisa, segurtasun publikoaren eskumena duen Sailari atxikita.

#### KOORDINAZIORAKO TOKIKO BATZORDEA ERTZAINTZAREN ETA UDALTZAINGOEN ARTEAN

Poliziak koordinatzeko tokiko batzordeak Ertzaintzaren eta udaltzaingoaren polizia zerbitzuen arteko koordinazio organoak dira, haiek esleituta dituzten eginkizunak burutzean, polizia erakunde bakoitzaren berezko eskumenak errespetatuta. Horretarako, lurraldeko segurtasun publikoaren egoera aztertzea, jarduteko irizpide bateratuak eta protokoloak lantzea eta abar dagozkie. Hiriburuetan eta Ertzaintzaren lurralde mugape bakoitzean daude.

#### EUSKADIKO BABES ZIBILERA KO BATZORDEA

**Euskadiko Babes Zibileko Batzordea** kide anitzeko organoa da, eta Euskadin babes zibilaren arloan aholkua, eztabaida, koordinazioa eta homologazioa ematen ditu. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari atxikita dago, Batzordearen lehendakaritza Segurtasun Sailburuordetzari dagokio, eta batzordekideak dira Eusko Jaurlaritzaren hainbat sail, Foru Aldundiak, Estatuak Euskal Autonomia Erkidegoan duen administrazioa eta Eudel. Euskadiko Babes Zibileko Batzordearen arabera, honako lan organo hauek daude:

- **Arrisku Teknologikoko Batzorde Teknikoa:** Euskadiko Babes Zibileko Batzordearen menpe dago, eta lantalde bat osatzen du, Euskadik jasaten dituen arrisku teknologikoen aurrean erantzun teknikoa emateko dokumentuak koordinatzeko eta prestatzeko. LAEMZk idazkaritza eta koordinazio funtzioak betetzen ditu.
- **Arrisku Naturalen Batzorde Teknikoa:** Arrisku Teknologikoaren Batzorde Teknikoaren antzeko organoa, arrisku naturalen esparruan. Uholde arriskuarekin lotutako lan gehienak egin ditu.
- **Babes Zibileko Boluntariotzaren Aholku Batzordea:** Euskadiko Babes Zibileko Batzordearen lan organoa, boluntarioen proposamenak bideratzeko, hala nola prestakuntza eta uniformetasuna definitzea, etab. Haren zereginetako bat da babes zibilaren arloko boluntariotzako erakundeen eta

boluntarioen erregistroa definitzea eta garatzea, bai eta horien kideen egiaztapenak ere. Batzorde hori LAEMZk dinamizatzen du.

#### *EAE-KO INGURUMEN BATZORDEA*

**Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Batzordea** organo aholku emalea da, ingurumenaren arloaz arduratzen den sailari atxikia, eta Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumenaren arloan diharduten administrazioen harremanetarako, partaidetzarako eta koordinaziorako organoa da.

Eginkizun hauek ditu:

- Batzordean ordezkatura dauden erakundeek ingurumenaren arloan garatzen dituzten jarduera guztien koordinazioa sustatzea eta dagozkien segimendu lanak egitea.
- Ingurumen eskumenak gauzatzeko ardura duten organo guztiei jardute proposamenak egitea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumenari buruzko legea garatzeko egindako arau aurreproiektuen berri ematea.
- Ingurumeneko Esparru Programaren berri ematea.
- Batzordean ordezkatura dauden erakundeek egindako ingurumen arloko arau aurreproiektuak ezagutzea eta horiei buruz iritzia ematea.
- Ingurumeneko Esparru Programa garatzeko egindako planen eta programen berri ematea.
- Ingurumenean ondorio esanguratsuak dituzten arau aurreproiektuak, planak eta programak ezagutzea.
- Ingurumen baliabideen katalogoei buruzko informazioa ematea.
- Batzordearen barne funtzionamendurako arauak onartzea eta, hala badagokio, sekzioak sortzea, aztertu beharreko gaien izaerak hala eskatzen duenean.

#### *EAE-KO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEA*

**Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordea** Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aholku eta koordinazio organo gorena da, Lurraldearen, Itsasertzaren eta Hirigintzaren Antolamenduaren jardute arloan.

Gobernu Kontseiluak, lurralde antolamenduaren arloan eskumena duen sailak edo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko beste edozein organok Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari legez edo erregelamenduz emandako informazio eskumenez gain, Batzordeak eskumen hauek ditu:

- Lurraldearen eta hiriaren antolamendurako politikaren oinarritzko irizpideak lantzea, euskal sektore publikoaren plangintza ekonomikoak xedatutakoaren arabera.
- Jaurlaritzako sailek eta Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako administrazioek gauzatuko dituzten lurralde eta hiri plangintzako jarduerak koordinatzeko behar diren neurriak proposatzea.

## AHOLKULARITZA ETA KOORDINAZIO ORGANOKAK

### *EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO POLIZIAREN KONTROL ETA GARDENTASUN BATZORDEA*

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen Bosgarren Aldaketaren 7/2019 Legeak, ekainaren 27koak, polizia eredia indartzeari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordea sortzea onartu du, kide anitzeko erakunde iraunkor gisa, autonomia funtzionala duena erakunde polizialarekiko eta segurtasun arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailarekiko, zilegitasuna eta herritarren konfiantza indartzeko poliziaren jardueraren gaineko kontrolen neutraltasunean eta objektibotasunean.

Hauetako dira Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordearen eginkizunak:

- a) 12.1 artikuluan aipatutako erakundeek eskatuta, Ertzaintzaren edo Udaltzaingoaren barruan –hurrenez hurren– eskubideen urraketek buruzko kezka jaso dituen edozein jokabide edo praktika aztertzea, edo herritarren konfiantza duen eraginari buruzko kezka eragiten duen beste edozein.
- b) Nahitaez ofizios aztertzea esku hartze edo operatibo polizial baten testuinguruan edo zaintza polizialean pertsona baten heriotza edo lesio larriak gertatu diren gertakariak. Ertzaintzak edo udaltzaingoak berehalak jakinarazi beharko diote hori batzordeari.
- c) Aurreko eginkizunak betetzean egindako azterlanak ikusita, praktika egokiak gomendatzea; poliziaren kode deontologikoarekin bat ez datozen edo eskubideak urratzen dituzten jokabide ereduak edo praktika errepikakorak identifikatzea, eta neurri zuzentzaileak edo prebentzio neurriak proposatzea.

Aztertutako egitateak abian den ikerketa penal baten xede badira, agintaritzak judizial eskudunari jakinaraziko dio, ikerketa penalean eta bere jarduketan erreserban eraginik izan ez dezan. Kasu horretan, eginbide penaletan ikertutako langileek ez dute batzordearekin lankidetzan aritzeko betebeharririk izango, eta kasuarekin lotutako dokumentazio administratiboa eskuratu edo *in situ* ikuskapenak egin behar badituzte, batzordeak agintaritzak judizial jardulearen alde aurreko onespena eskuratu beharko du. Batzorde horren eginkizuna ez da, inola ere, agintarien edo langileen erantzukizuna indibidualizatzea.

Batzorde honen erregulazioak bere kideen neutraltasuna eta independentzia babesten ditu, eta kargutik kentzea ahalbidetzen duten kausak modu tasatuan arautzen dira, ikerketa batean zehar arbitrarioki baztertu ez daitezkeen. Batzordearekin lankidetzan aritzeko betebeharra jasotzen da, bai eta bere ikerketetan funtzionario publikoek zerbitzu eginkizunetan laguntzeko aukera ere. Gainera, aurreikusten da batzordeak bere jardueratik zuzenean Eusko Legebiltzarraren aurrean eman beharko dituela kontuak.

### *EUSKADIKO BABES ZIBILEKO BOLUNTARIOTZAREN AHOLKU BATZORDEA*

**Euskadiko Babes Zibileko Boluntariotzaren Aholku Batzordea** Euskadiko Babes Zibileko Batzordearen lan organo bat da. Batzorde horretako kide diren erakundeak bertan egongo dira, bertan erabakitzen den moduan, eta Babes Zibileko Boluntariotza Lankidetzako Erakundearen Erregistroan inskribatutako erakundearen ordezkariak dei egin ahal izango zaie, haiek proposatuta.

### *GURUTZE GORRIAREN BATZORDE AUTONOMIKOA*

**Gurutze Gorriaren Batzorde Autonomikoa** Erakundearen gobernuak Euskadin bere gain hartzen duen organoa da, Espainiako Gurutze Gorriaren xede eta helburu orokorrekiko eta erakundearen gobernu gorenaren ezarritako politika, plan eta irizpideekin bat etorriz.

### *EUSKADIKO BIDE SEGURTASUNeko BATZORDEA*

**Euskadiko Bide Segurtasuneko Batzordea** aholku organo bat da, eta bide segurtasunean eragina duten eskumenak dituzten administrazio publikoen koordinazioa errazteaz eta bide segurtasunaren hobekuntza bultzatzeaz arduratzen da, trafikoarekin eta bide segurtasunarekin zerikusia duten erakunde publiko eta pribatuen elkarketaren eta parte hartzearen bidez.

### *JENDAURREKO IKUSKIZUN ETA JOLAS JARDUERETARAKO EUSKAL KONTSEILUA*

**Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Euskal Kontseilua** da Euskadiko administrazio publikoen kontsulta, azterketa eta aholkularitza organoa, ikuskizunekin eta jolas jarduerekin zerikusia duten gaietan. Bertan, Eusko Jaurlaritzako hainbat kudeaketa arlotako ordezkariak daude presente; horien artean, polizia, babes zibila, kultura, kirolak, hezkuntza, industria, osasun publikoa, kontsumoa eta turismoa eta euskal udalak, baita merkataritza ganberen, eragindako sektore ekonomikoen eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsarako elkarten ordezkariak ere.

Halaber, Zezenketa Gaietarako Euskal Batzorde Aholku emailea dago, zezen ikuskizunen arloko kontsulta eta aholkularitza organo gisa. Batzorde horretan, osasun publikoaren eta animalien osasunaren arloko ikuskizunen arduradunetz gain, udal ordezkariak, batzordeburuak eta zezen plazetako ordezkari bat daude.

### *ZEZENKETA GAIEN EUSKAL BATZORDE AHOLKU EMAILEA*

**Zezenketa Gaien Euskal Batzorde Aholku emailea**, berez, zezen ikuskizunen arloko kontsulta eta aholkularitza organoa da, non osasun publikoaren eta animalien osasunaren arloko ikuskizunen arduradunetz gain, udal ordezkariak, zezen plazetako presidenteak eta plaza ordezkari bat baitaude.

### *JOKOAREN EUSKAL KONTSEILUA*

Jokoaren Euskal Kontseilua organo aholku emaile bat da, Euskal Autonomia Erkidegoan zori, enbete edo ausazko jokoekin zerikusia duten jarduerak planifikatu, koordinatu eta kontrolatzeko. Kontseiluan Eusko Jaurlaritzaren hainbat kudeaketa arlotako ordezkariak, Foru Aldundietako ordezkariak eta euskal udaletako ordezkariak daude.

Era berean, Jokoaren Batzorde Tekniko Aholkularia dago, hots, jokoaren arloan eskumena duen sailari atxikitako partaidetza eta aholkularitza organoa. Batzorde horren helburua da jokoaren sektorearen iradokizunak eta proposamenak bideratzea, jokoaren sektorearen egoera eta araudi berrien eragina aztertzea, joko modalitate berriak ezartzea eta joko arduratsua sustatzeko ekimenak bultzatzea. Bertan, Eusko Jaurlaritzako joko, zerga, osasun eta turismo arloko hainbat sailletako arduradunetz gain, jokoaren sektore profesionaleko ordezkariak, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsarako elkarteak eta adikzioen errehabilitaziorako elkarteetako ordezkariak parte hartzen dute.

### *JOKOAREN EUSKAL BEHATOKIA*

Jokoaren Euskal Behatokia kide anitzeko organo bat da, eta Euskadin jokoak etengabe aztertzea du helburu, Euskadin Jokoak Arautzeko Agintaritzari, bere politika publikoak ezartzerakoan, fenomenoaren osotasunaren ikuspegia emateko.

Behatokiak diziplina anitzeko osaera du: segurtasun Saileko pertsonak, zeinak politika publikoetan, estatistika eta analisi soziologikoan eta arauen ebaluazioan adituak baitira; Osasun Saileko pertsonak, adikzioetan adituak

direnak; Enplegu eta Gizarte politiketako Saileko pertsonak, gazteek jokoari dagokionez duten portaeran adituak direnak; eta Ogasun Sailekoak, merkatu ekonomikoaren azterketan adituak direnak.

Behatokiaren helburuek hiru ardatz izango dituzte:

- Informazioa: EAEko jokoari buruzko informazioa biltzea, sistematizatzea eta eskaintzea.
- Ikerketa: jokoak gizartean duen inpaktua neurtzen, ulertzen eta sakontzen lagunduko duten azterlanak eta ikerlanak egitea.
- Zabalkundea, prestakuntza eta sentsibilizazioa: prestakuntza jardunaldiak antolatzea. Jokoaren praktika egokiak hedatzeko prebentzio eta hezkuntza kanpainak sustatuz eta bultzatuz sentsibilizatzea, beste administrazio publiko eta/edo erakunde publiko edo pribatu batzuekin lankidetzan.

Helburu horiek guztiak gai honekin lotura izan dezakeen edozein sektore soziali zuzenduta daude, hala nola jokoaren enpresa operadoreei, adikzio jokabideen tratamenduan diharduten elkarteei, erakunde publikoei, ikertzaileei eta herritarrei.

#### *JOKOAREN BATZORDE TEKNIKO AHOLKULARIA*

**Jokoaren Batzorde Tekniko Aholkularia** jokoaren arloan eskumena duen sailari atxikita dagoen baina egitura organikoan sartuta ez dagoen parte hartze eta aholkularitza organo bat da. Haren helburua da jokoaren sektorearen iradokizunak eta proposamenak bideratzea, jokoaren sektorearen egoera eta araudi berrien eragina aztertzea, joko modalitate berriak ezartzea eta joko arduratsua sustatzeko ekimenak sustatzea.

## PARTAIDETZA ORGANOAK

#### *EUSKADIKO SEGURTASUN PUBLIKOAREN KONTSEILUA*

**Euskadiko Segurtasun Publikoaren Kontseilua** da EAEko organo aholku emaile eta partaidetza organo gorena, eta bere helburua ideiak eta esperientziak trukatzeko da, segurtasun publikoaren politikan inplikaturik dauden eta horren eraginpean dauden erakunde eta instituzioen jarduketan koherentzia errazteko. Organo honi eta segurtasunean parte hartzeko tokiko batzordeei esker, administrazio publikoek, agintariak eta polizia kidegoek eta segurtasunari lotutako gainerako zerbitzu publikoek ere segurtasun publikorako politikak diseinatzen, aplikatzen eta ebaluatzen parte har dezakete.

Bere gain hartzen dituen eginkizunak indarrean dagoen legeriak segurtasun publikoaren eta poliziaren, ausazko jokoaren, ikuskizun eta jolas jardueren, larrialdien eta babes zibilaren, trafiko eta bide segurtasunaren eta segurtasun pribatuaren sektoreetan ezartzen dituen organoen funtzio eta eskumenen kalterik gabe betetzen dira.

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko ekainaren 28ko 15/2012 Legearen 8. artikuluko bigarren paragrafoaren arabera, hauek dira Euskadiko Segurtasun Publikoaren Kontseiluaren eginkizunak:

- Euskadiko segurtasun publikoaren egoera orokorra aztertzea eta ebaluatzea, segurtasunaren inguruko erreferente esanguratsuenetatik abiatuta, portaera azterketak eta egoera analisiak sustatuz, Euskadiko segurtasun publikoaren sistemaren barruko zerbitzuek inguruabar konkretu eta baloragarrien gainean jardun ahal izateko.
- Herritarren bizikidetzak baketsua asaldatu dezaketen faktoreei segimendua egitea, hala nola terrorismoa, kale indarkeria eta antzeko talde eta fenomenoak, genero indarkeria, xenofobia eta arrazakeria,

herritarrak edo gizartearen balio funtsezkoenak arriskuan jar ditzaketen gatazkak eta arriskuak prebenitzeko.

- Segurtasunaren egoera hobetzeko neurri orokorrak sustatzea eta segurtasun publikoarekin zerikusia duten administrazio publikoen zerbitzuak hobetzera bideratutako ekimenak bultzatzea.
- Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorraren berri ematea.

Kontseilua honako hauek osatzen dute, gutxienez: EAEko Administrazioak (haren ordezkariak nahitaez segurtasun publikoan eskumena duen sailak osatzen du), Estatuko Administrazio Orokorrak, toki administrazioak, foru administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioak.

#### *Epailak Koordinatzeko lantaldea, Ministerioa*

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Kontseiluaren jardute esparruan, aurreikusita dago lantaldeak sortzea Segurtasun Publikoaren arloko politika desberdinak garatzeko, eta horietako bat da koordinazio bideak ezartzea erkidego mailan Epailtzari, Fiskaltzari eta Ertzaintzari dagokienez. A priori, hiru hilean behin bilera bat egitea erabaki da.

#### *Azpiegitura sentikorren lantaldea*

Sailen arteko lantalde bat ere badago, azpiegitura kritikoak eta sentikorrek babesteko jarduerak koordinatu eta ikuskatzeko.

#### *SEGURTASUN PRIBATUKO BATZORDE MISTOA*

Euskadiko Segurtasun Pribatua Koordinatzeko Batzorde Mistoari dagokio arlo honetan inplikaturako sektoreen koordinazioa sustatzea, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, eta, bereziki, honako eginkizun hauek garatuko ditu:

- d) Segurtasun publikoaren arloan eskumena duen sailari aholkularitza ematea, segurtasun pribatuari buruz indarrean dagoen araudia, modu osagarrian, aplikatzeko, garatzeko eta koordinatzeko irizpide orokorrei buruz.
- e) Administrazio jarduerak homogeneizatzeko irizpideak proposatzea, beharrezkoak direnean.
- f) Batzordean ordezkariak dauden sektore desberdinen esperientziak trukatzeko eta segurtasun pribatuaren xede den delinkuentziaren aurkako prozedura proposamenak egitea.
- g) Segurtasun neurrietan gertatzen diren aurrerapen teknikoen berri izatea eta horiei buruzko informazioa ematea, baldin eta lehendik dauden neurriak ordeztu baditzakete.
- h) Enpresak eta segurtasun pribatuko langileak Ertzaintzarekin eta, hala badagokio, gainerako segurtasun indar eta kidegoekin koordinatzeko irizpideak proposatzea.
- i) Segurtasun pribatuko langileak prestatzeko jarduerak aztertzea, baloratzea eta, hala badagokio, proposatzea.
- j) Sektoreari eragin diezaioketen arau proiektuei buruzko kontsulta jasotzea.
- k) Segurtasun publikoan eskumena duen sailari komenigarritzat jotzen diren edo hark eskatzen dizkion txostenak aurkeztea, bere eskumenen esparruan.



Batzorde honek ordezkari instituzionalak ditu (Eusko Jaurlaritzaren, Ertzaintza), bai eta segurtasun neurriak izatera legez behartuta dauden establezimenduen, segurtasun enpresen, segurtasun pribatuko langileen eta segurtasun pribatuko langileen prestakuntza zentroen ordezkariak ere.

## LANKIDETZA HITZARMENAK ETA PROTOKOLOAK

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak lankidetzako zenbait hitzarmen eta protokolo ditu maila desberdinetan: Lankidetzaren Hitzarmena Segurtasun Sailaren eta EUEDEL-Euskadiko Udalen Elkartearen artean, Udaltzaingoei dagokienez; Segurtasun Sailaren eta Udalen arteko Lankidetzaren Hitzarmenak; Ertzaintzaren eta Udaltzaingoei izenpetutako Protokoloak; Udalek, Ertzaintzaren, Mankomunitateetako ordezkariak eta Osakidetzako ordezkariak sinatutako erakunde arteko Protokoloak Indarkeria Sexistaren Biktimen arloan; eta Sektore gaitan sinatutako Hitzarmenak.

Udaltzaingoei dituzten eta borondatez atxiki diren udalen eskutik 2018ko otsailetik aurrera sinatu diren esparru hitzarmenen helburua hau da: Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen arteko polizia lankidetzarako eta kolaboraziorako moduak eta prozedurak arautzea, lurraldean erabilgarri dauden baliabide polizialak optimizatzeko eta herritarren segurtasun publikoko beharrei zerbitzu hobea emateko. 2019ko abendura arte 42 esparru hitzarmen sinatu dira.

Sailaren eta udalen artean sinatutako akordioak, nagusiki, honako hauek dira: lankidetzaren polizialerako hitzarmenak (81 udalekin sinatuak), Udaltzaingoko bitarteko agenteen lan poltsa kudeatzeko hitzarmena (69 udalekin sinatua), Irrati Mugikorraren Sare Digitalean sartzeko TETRA hitzarmena (64 hitzarmen, ikus hurrengo atala), eta droga toxikoak, estupefazianteak eta substantziak legez kontra edukitzearekin eta kontsumitzearekin lotutako arau hauste administratiboaren arloko hitzarmena (5 udalerrirekin sinatua).

Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen arteko protokoloen artean, honako hauek nabarmentzen dira: esparru hitzarmena garatzeko intzidentzien zerrenda eta titulartasunen esleipena zehazten dituzten protokoloak; trafikoaren arloko eskumenak koordinatzeko protokoloak; etxeko indarkeriaren eta/edo genero indarkeriaren arloko koordinazio protokoloak; eta droga toxikoak, estupefazianteak eta substantzia psikotropikoak legez kanpo edukitzearekin eta horien kontsumo publikoarekin lotutako arau hauste administratiboaren arloko jardura protokoloak (46 udalerriri 2019ra arte –2019a barne–).

Intzidente konplexuetan espezializatutako hainbat erakundetako taldeen jarduketari eta esku hartzeari dagokienez, lankidetzaren eta koordinazio hitzarmenak eta protokoloak ezarri dira erakunde hauekin: AVEQ-Kimika, La Caixa, Euskal Gorra, Repsol, Iberdrola, Interbiak, Metro-Bilbao, Enagas, Euskal Espeleologoen Elkartea, Euskal DYA, Euskal Mendizale Federazioa. Arrisku kolektibo larriko egoeretan, hondamendietan eta zorigaitz publikoetan jarduteko, lankidetzaren hitzarmen bat sinatu da, halaber, Euskadiko Gurutze Gorriarekin.

Arlo sektorialagoetan sinatutako protokoloak izan daitezke, azpimarratzekoak dira ikastetxeetako instalazioetan ekintza bandalikoaren arloan jarduteko protokoloak eta polizia zientifikoaren arloko lankidetzaren hitzarmenak.

Hona hemen Segurtasun Sailak eta EAEko beste erakunde batzuek sinatutako lankidetzaren hitzarmen eta protokoloak dauden esparru nagusiak:

- Berdintasunaren, genero indarkeriaren eta emakumeen eskubideen babesaren arloko hitzarmenak Eudelekin, Emakunderekin eta Lanbiderekin.
- Nagusiki polizia kidegoen arteko koordinazioarekin eta lankidetzarekin zerikusia duten erakunde publikoen arteko lankidetzaren hitzarmenak.

- Larrialdien arloko hitzarmenak, nagusiki honako hauekin: udalekin eta Segurtasun Nuklearreko Batzordearekin, nahiz eta erakunde pribatu batzuekin ere egiten diren, hala nola Caixarekin.
- Jardute eta harreman hitzarmenak Ertzaintzaren eta tokiko, estatuko eta nazioarteko beste erakunde batzuen artean.
- Prestakuntzaren arloko hitzarmenak tokiko erakunde eta fundazioekin.
- Jokoaren eta ikuskizunen segurtasunaren arloko hitzarmenak Bilboko Athletic Clubekin.
- Lankidetzak protokoloak klub, elkarte anonimo eta kirol federazioekin, kiroleko indarkeriaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta intolerantziaren aurka borrokatzeko.
- Trafikoaren eta bide segurtasunaren arloko lankidetzak hitzarmenak tokiko eta estatuko erakundeekin.

## KOMUNIKAZIOEN KOORDINAZIOAREN ARLOKO LANKIDETZA HITZARMENAK

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak Irrati Komunikazio Mugikorreko Sare Digital bat dauka (IMSD), TETRA teknologia estandarrean oinarritua, ahots eta datu komunikazioko zerbitzuak eskaintzen dizkiena Segurtasun eta Larrialdi publikoaren esparruko erabiltzaileei. IMSD Segurtasun Sailaren Komunikazio Sareari eusten dioten zerbitzuetako bat da, eta EAEn dauden estazio base transmisore/hartzaileei konexioa izatea ahalbidetzen die, gaur egun Erandion eta Gasteizen dauden konmutazio zentro erredundanteekin.

Eusko Jaurlaritzaren ustez, komunikazio azpiegitura hori tresna egokia da, bere segurtasun eta eraginkortasunagatik, polizia kidegoen arteko informazioa eta baterako jarduna errazteko, jarduketan bikoiztasuna saihesteko eta haien baliabide operatiboak optimizatzeko.

Hori dela eta, Segurtasun Sailak udaltzaingoak sarera sartzearen aldeko apustua egin du, Administrazio Orokorren eta EAEko udalen arteko lankidetzak hitzarmenen bidez, koordinazioa eta lankidetzak polizialaren arloan. Hitzarmenen helburua da Ertzaintzaren eta udal sinatzaileetako udaltzaingoaren arteko komunikazioa lortzea, udal horiek Segurtasun Sailak kudeatzen duen TETRA komunikazio sarean sartuz. Gaur egun 64 hitzarmen daude sinatuta.

Eusko Jaurlaritzak doan ematen die bere sarerako sarbidea hitzarmena sinatu duten udaletako udaltzaingoei, zerbitzu polizialaren berezko eskuduntzak betetzeko beharrezkoak diren komunikazioetarako; hala ere, udalei dagokie TETRA integratzeko beharrezkoak diren komunikazio ekipoak eskuratzea. Era berean, sinatzen duen udaleko Udaltzaingoa komunikazio sarean integratzeko, EAEko Administrazio Orokorrek, Segurtasun Sailaren bitartez, oinarritzko irrati bat emango dio Udalari.

Bestalde, udal sinatzaileak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Hura erabiltzeko langile egokiak izatea.
- Instalazioak eta mantentze lanek eragindako gastuak ordaintzea.
- Behar besteko segurtasun bermeekin gordetzea, eta lagatako ekipoa hondatzen, lapurtzen edo galtzen bada, ordeztu egingo da.
- Erabilera normalak, erruak edo zabarkeriak eragindako matxurak konpontzea.

Inplikaturako alderdiek konpromisoa hartzen dute hitzarmena behar bezala aplikatzen dela eta, azken batean, koordinazio eta lankidetzak polizialeko sistemak eraginkortasunez funtzionatzen duela bermatzeko beharrezkotzat jotzen diren proposamenak eta programak ezartzeko. Horretarako, Jarraipen Batzorde bat izendatzea erabakiko dute. Batzorde hori Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko ordezkari batek eta udal

sinatzaileko ordezkari batek osatuko dute. Batzorde hori arduratuko da interpretazioan sortzen diren zalantzak argitzeaz, gauzatzean sor daitezkeen desadostasunak konpontzeaz, hitzarmenaren bilakaera berrikustez eta, hala badagokio, hura hobetzeko proposamenak egiteaz. Batzordea alderdi sinatzaileetako batek eskatzen duen bakoitzean bilduko da, eta, gutxienez, urtean behin.

Era berean, Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistema osatzen duten instituzioak, erakundeak eta zerbitzuak Segurtasun Sailaren Irrati Komunikazioen Sare Digitalean sartuta daude. Ekipo finkoak eta terminal eramangarriak hedatzeak –aurrez ezarritako flota planen arabera programazioarekin– aukera ematen du informazioa trukatzeko hainbat erakunde eta/edo lurralde eremutako baliabideen eta SOS-Deiak Larrialdiak Koordinatzeko Zentroyen artean.

Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren erabiltzaile hauek irrati komunikazioen sarean txertatuta daude:

- Udaleko Larrialdi Sarea (REM). Udalak.
- Udalaren Babes Zibileko Borondatezko Taldeak.
- Industriako Larrialdi Sarea (SEVESO enpresak).
- Ertzaintza.
- Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiak, Vitoria-Gasteizko Udala, Donostiako Udala (SEIS).
- Foru aldundietako mendi zerbitzuak.
- Bide, portu eta aireportu azpiegiturak (RETRA).
- Larrialdietarako arreta zerbitzuaren sarea – Osakidetza.
- Segurtasun Sailarekin hitzartutako taldeak: Gurutze Gorria, DYA, Euskadiko Salbamendu Txakurren Taldea, Euskal Mendizale Federazioa, Euskal Espeleologuntza Taldea.
- Hondartzen sarea.
- Aginte sarea.

### III. ERANSKINA. ADIERAZLEAK

#### I. ERRONKA. SEGURTASUN INTEGRALAREN EREDUA

##### 1. ERRONKA. SEGURTASUN INTEGRALAREN EREDUA

EKIMENAK	EKINTZAK	ADIERAZLEAK
L1. EUSKADIKO SEGURTASUN INTEGRALAREN EREDUAREN ESPARRU ESTRATEGIKOA ETA ESKUMEN ESPARRUA EZARTZEA		
1.1 Euskadiko Segurtasun Publikoko 2025 Plana onartzea, segurtasunean esku hartzen duten guztien –publikoak zein pribatuak izan– zerbitzura egongo den gida bihurtzeko, non koordinazio mekanismoak definituko diren.	1.1.1 Euskadiko Segurtasun Publikoko 2020-2025 Plan Orokorra (ESPPO) egitea eta onartzea.	- 2020-2025 ESPPO egina eta onartua.
	1.1.2 2020-2025 ESPPOren segimendua eta ebaluazioa, bertan ezarritako kudeaketa ereduaren arabera.	- Egindako urteko ebaluazio txostenen kopurua.
1.2 Segurtasun arloan autogobernua sendotzea eta defendatzea.	1.2.1 Segurtasun Batzordeari bultzada berria.	- Segurtasun Batzordeak egindako bileren kopurua.
	1.2.2 Segurtasun Sailburuordetzaren eta Segurtasuneko Estatu Idazkaritzaren arteko interkomunikazio sistema operatiboa ezartzea.	- Koordinaziorako Batzorde Iraunkorraren bilera kopurua. - Koordinazio Polizialerako Batzorde Teknikoaren bilera kopurua. - Informazio, Polizia Judizial eta Koordinazio Operatiboko Azpibatzaordeen bileren kopurua.

## 1. ERRONKA. SEGURTASUN INTEGRALAREN EREDUA

EKIMENAK	EKINTZAK	ADIERAZLEAK
	1.2.3	<p>Itsas Salbamenduaren eskumen osoa eskualdatzea eta Meteorologiaren arloko transferentzia eskatzea.</p> <p>- Itsas Salbamenduaren eskumen osoa transferitu da. - Meteorologiako eskumena transferitu da.</p>
	1.2.4	<p>AEMETen estazio automatikoak Babes Zibileko Informazio eta Alerta Sarean sartzea.</p> <p>- AEMETen estazio automatikoak Babes Zibileko Informazio eta Alerta Sarean sartuta daude.</p>
1.3	1.3.1	<p>Euskadi/Basque Country 2030 Agendaren GIHa lerrokatzea/garatztea.</p> <p>Euskadi/BasqueCountry 2030 Agendaren 11. GIHa garatztea.</p> <p>- Gaueko segurtasunaren pertzepzioa 25.000 biztanletik gorako hirietan. Iturria: Euskadiko segurtasun publikoaren pertzepzioari eta biktimizazioari buruzko inkesta.</p>
	1.3.2	<p>Jasangarritasunerako Udalerrien Sarearen udal plan estrategikoetan laguntzea.</p> <p>- Trafiko istripuetan hildako pertsonen kopurua. - Trafiko istripuetan larri zauritutako pertsonen kopurua. - Udalsarea 2030 sarearen zenbat udal plan estrategikotan parte hartzen den.</p>

## L2. SEGURTASUN INTEGRALAREN EREDUA OSATZEN DUTEN ERAKUNDE GUZTIEN ARTEKO KOORDINAZIO ETA LANKIDETZA MEKANISMOAK SENDOTZEA

2.1	2.1.1	<p>Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen arteko koordinazio eta lankidetzaren mekanismoak indartzea, Euskal Autonomia Erkidegoko polizia erantzunkidea eta eraginkorra izan dadin.</p> <p>Euskal Poliziaren Koordinazio Sistema sendotzea (Ertzaintza eta Udaltzaingoa).</p> <p>- Sinatutako hitzarmen berrien kopurua. - Izendatutako segimendu batzordeen kopurua. - Sinatutako protokoloen kopurua.</p>
	2.1.2	<p>Tokiko, eskualdeko eta/edo lurraldeko segurtasun plan integral espezifikoak egitea, dauden arrisku guztiak kontuan hartuta eta eragindako lurraldearen ezaugarrietara egokituta.</p> <p>- Egindako tokiko segurtasun plan integralen kopurua. - Eskualdeko/udaletako segurtasun planen bidez estalitako EAEko biztanleriaren %.</p>

## 1. ERRONKA. SEGURTASUN INTEGRALAREN EREDUA

EKIMENAK	EKINTZAK	ADIERAZLEAK
		- Sinatutako protokoloen kopurua.
	2.1.3 Ertzaintzaren eta Euskadiko udaltzaingoen artean jarduteko protokolo bateratuen formalizazioa eta ezarpena orokortzea, udalerrri bakoitzaren errealitatera eta baliabideetara egokituta.	
	2.1.4 Salaketa sistema bateratua Ertzaintzarentzat eta udaltzaintzentzat.	- Sistema garatua eta operatiboa. - Sisteman oinarrituz izapidetutako salaketen kopurua.
	2.1.5 Udaltzainak Polizia Koordinatzeko Zentroetan sartzea ("Udaltzaingoa" polizia agentzia, 112 AKZren intzidente aplikazioetan).	- Definitutako eta/edo inplementatutako taktiken kopurua. - Sartutako udaltzaingoen kopurua.
	2.1.6 Jarraibideen, protokoloen, irizpideen, informazioaren eta abarren sistema eta mekanismo komunak eta partekatuak ezartzea, Ertzaintzak eta udaltzaingo guztiek erantzun homogenea eman diezaieten delitu, asistentzia eta kasuistika komunei: EI/GI (EBA Etxekoen eta Emakumeen Babesa proiektua), etxeetako lapurretak...	- Adostutako formularioak eta/edo prozedurak.
	2.1.7 Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen baterako deialdiak finkatzea.	- Deialdi kopurua.
	2.1.8 Udaltzaingoko zerbitzu agenteak baterako deialdietan sar daitezzen bultzatzea.	- Udaltzaingoko zerbitzu agenteen kopurua Ertzaintzaren eta udaltzaingoen urteko deialdi bateratuan.

## 1. ERRONKA. SEGURTASUN INTEGRALAREN EREDUA

EKIMENAK	EKINTZAK	ADIERAZLEAK
2.2 Segurtasun publikoko eta pribatuko esku hartzaileen arteko koordinazioa eta lankidetzaren indartzea.	2.2.1 Segurtasun publikoko eta pribatuko erakundeen arteko koordinazio eta lankidetzaren egituratu eta egonkorreko mekanismoak ezartzea.	- Egindako koordinazio bileren kopurua.
	2.2.2 Konexio teknikoaren inplementazioa eta protokoloak zehaztea, segurtasun integralaren ereduko erakunde publikoek erakunde pribatuen informazioa eta irudiak eskuratzeko aukera izan dezaten, behar izanez gero.	- Foru Aldundiekin eta autobideen kontzesiodunekin egindako lankidetzaren hitzarmenen kopurua.
2.3 Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren eta Larrialdietako Euskal Sistemaren (Babes Zibila) arteko koordinazioa eta lankidetzaren mekanismoak sendotzea.	2.3.1 Berariazko tokiko, eskualdeko eta/edo lurraldeko segurtasun plan integralak garatzea, dauden arrisku guztiak kontuan hartuta eta eragindako lurraldearen ezaugarrietara egokituta, larrialdien alorrean.	- Garatutako tokiko segurtasun plan integralen kopurua. - Egindako eta ezarritako eskualdeko/udaletako segurtasun planen bidez estalitako EAEko biztanleriaren %.
	2.3.2 Egungo koordinazio zentroak "Larrialdietako inteligentzia zentro" bihurtzea, esku hartzen duten zerbitzuei berehalako erantzunak emateko gai izango dena, datuen kudeaketa masiborako eta sare sozialen analisirako sistemak nahiz analisi eta informazioko operadoreen figurak (ANI) sartuz.	- Sartutako datuen kudeaketa masiborako eta sare sozialen analisirako sistemen kopurua. - Sartutako informazio analisiko operadoreen kopurua (ANI). - Esku hartzen duten zerbitzuei emandako berehalako erantzunen %.

## 1. ERRONKA. SEGURTASUN INTEGRALAREN EREDUA

EKIMENAK	EKINTZAK	ADIERAZLEAK
2.4 Informazio eta komunikazio sistemen integrazioa eta erabilera sustatzea segurtasun integralean aktiboki inplikaturik dauden erakunde eta agentzien artean.	2.4.1 segurtasun integralean aktiboki inplikaturik dauden erakunde eta agentzia guztien artean partekatzea informazioa azkarrago komunikatzeko aukera ematen duten garapen teknologikoak, larrialdi egoeren eta intzidentzien aurrean.	- Beste erakunde batzuen esku jarritako garapen teknologikoen kopurua. - Garapen teknologikoak darabiltzaten erakundearen kopurua.
	2.4.2 Informazio sistema polizialen eta judizialen arteko integrazioa prozedura transbertsalak ezartzeko.	- Inplementatutako prozedura transbertsalen kopurua.
2.5 Bide nagusien eta bigarren mailako errepideen erakunde titularrekiko koordinazioa eta lankidetzaren indartzea, bai eta tartean diren beste erakunde publiko eta pribatuekiko ere, trafikoaren eta bide segurtasunaren kudeaketa hobetzeko.	2.5.1 Hitzarmena sinatuz, bideen erakunde titularrekiko eta autobideen kudeatzaileekin datuen eta irudien trukea bultzatzea, hiriarteko trafikoa hobeto kudeatzeko aldera.	- Foru Aldundiekin eta autobideen kontzesiodunekin egindako lankidetzaren hitzarmenen kopurua. (2.2.2 PUNTUAN ERREPIKATUA).
	2.6 Euskadiko joko sistemaren ikuspegi integrala finkatzea, inplikaturik dauden erakunde publiko eta pribatu guztiak barne hartuko dituen.	2.6.1 Jokoak eragindako kolektiboekin lan egiten duten elkarteekiko lankidetzaren eta elkarrekiko ezagutza hobetzea: baliabideen mapa.
2.6.2 Operadore publikoekiko eta joko lokal pribatuekiko lankidetzaren hobetzea datu estatistikoak emateko eta sarbide kontrolak hobetzeko.		- GEBk jokoaren urteko estatistika egitea.



## 1. ERRONKA. SEGURTASUN INTEGRALAREN EREDUA

### EKIMENAK

### EKINTZAK

### ADIERAZLEAK

**2.6.3** Autonomia erkidegoko eta estatuko debekuen erregistroen arteko koordinazioa eta interoperabilitatea hobetzea, joko patologikoarekin lotutako arazo deklaratuak dituzten pertsonen edo erregistro honetan agertu nahi dutenek jokorako sarbide kontrolak izatea indartzeko.

- Autonomia erkidegoko eta estatuko debekuen erregistro elkarreragileak.  
- Estatuaren eta Euskadiren artean Debekatuen Erregistroen kudeaketari buruzko hitzarmena sinatzea.

**2.6.4** Joko eta ikuskizunen arloan indarrean dagoen araudia betetzen dela kontrolatzen lan egiten duten polizia agentzien arteko lankidetzak (JIU, Ertzaintzaren Herri Segurtasunerako Unitatea eta Udaltzaingoak).

- Joko eta ikuskizunen arloan indarrean dagoen araudia betetzea barne hartzen duten Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren arteko lankidetzak protokoloen kopurua.

## L 3. EUSKAL SEGURTASUN SISTEMAK BABES ZIBILEKO ETA LANKIDETZA POLIZIALEKO NAZIOARTEKO EREMU ETA AGENTZIETAN DUEN POSIZIOA INDARTZEA

**3.1** Hondamendietan Laguntzeko Unitateak sortzea, Euskadin nahiz Euskaditik kanpo azkar esku hartzeko gaitasuna dutenak.

**3.1.1** Euskadik probabilitate gutxiko baina inpaktu handiko egoera berezietan erantzuteko mekanismoak izan behar ditu, egoera berezi horietan erantzuna emango dieten kidego eta zerbitzu administratibo desberdinetako unitate integratuak eta prestatuak barnean hartuta. Talde horien azken helburua "Babes Zibileko Europako Mekanismoan" integratzea izango litzateke.

- Hondamendietan Laguntzeko Unitatea, sortua eta operatiboa.  
- Hondamendietan Laguntzeko Unitatea, "Babes Zibileko Europako Mekanismoan" integratua.

## 1. ERRONKA. SEGURTASUN INTEGRALAREN EREDUA

EKIMENAK	EKINTZAK	ADIERAZLEAK
3.2 Lurralde arteko jardute sistema arin bat egituratzea, eragindako lurralde bakoitzaren gaitasunak gainditzin dituzten intzidenteen aurrean modu bateratuan jardutea ahalbidetuko duena.	3.2.1 Baso sute handietan erakundeen arteko erabateko lankidetzaren beharrezkoak diren hitzarmenak egitea.	- Sinatutako erakundeen arteko lankidetzaren hitzarmenaren kopurua.
3.3 Europako erakundeekin segurtasunarekin zerikusia duten ikerketa proiektuetan parte hartzea.	3.3.1 European Emergency Number Association (EENA) erakundearen proiektuetan parte hartzea, 112 Zentro berriak sortze aldera.	- VS / LAEMZk parte hartzen duen proiektuen kopurua.
	3.3.2 Lankidetzaren osoa URBAN KLIMA 2050 proiektu europarrak sortzen dituen lanekin.	- VS / LAEMZk parte hartzen duen lanen kopurua.
	3.3.3 Ozeanografia operazionalerako sistemak hobetzeko Europako proiektuetan parte hartzea.	- VS / LAEMZk parte hartzen duen proiektuen kopurua.
3.4 Ertzaintzaren parte hartzea eta presentzia antolatzea nazioarteko lankidetzaren ingurune eta mekanismoetan eskumena duen agentzia gisa.	3.4.1 Nazioarteko lankidetzaren poliziaerako unitate bat sortzea.	- Nazioarteko lankidetzaren poliziaerako unitatearen sortua eta operatiboa.
	3.4.2 Ertzaintzak Europako interoperabilitate sistema berriaren estatuko SPOCean (Single Point of Contact) parte hartzea.	- CITCOren menpeko UNIPen (Bidaiarien Informazioari buruzko Unitate Nazionala) eta SPOCen (Single Point of Contact) dauden esteken kopurua.
	3.4.3 Ertzaintzak Europolen eta Interpolen lantaldeetan parte hartzea eta informazioa eta esperientziak trukatzeko.	- Ertzaintzak parte hartzen duen taldeen kopurua. - Ertzaintza bertan izandako lantaldeen kopurua.

## 1. ERRONKA. SEGURTASUN INTEGRALAREN EREDUA

EKIMENAK	EKINTZAK	ADIERAZLEAK
	3.4.4	Ertzaintzak EMPACT (European Multidisciplinary Platform Against Criminal Threats) proiektuaren proiektuak definitzeko lehentasunak ezartzen parte hartzea.
	3.4.5	Barne Segurtasunaren arloko Lankidetzeta Operatiboko Batzorde Iraunkorrea (COSI) parte hartzea.
3.5	3.5.1	Nazioarteko beste polizia estamentu batzuekin datu trukea sendotzea eta aurrera egitea, baldintza berdinetan.
	3.5.2	Ertzaintzak SIENAn (Europolen informazioa trukatzeko sistema) sartzea sustatzea, REDPOL sarearen bidez (sare zifratua).
	3.5.3	Ertzaintzak Bidaiarien Izenen Erregistroko (PNR) datuak eskuratu ahal izatea, Bidaiarien Informaziorako Bulego Nazionalaren (ONIP) bidez.

- Ertzaintzaren presentziarekin egindako bileren kopurua.

- VS/DE/DCSk COSIren zenbat bileratan parte hartu duen.

- Polizia kidego bakoitzeko urteko informazio trukeen kopurua.

- Ertzaintza Europolen eta Interpolen zenbat datu basetan sartzen den.

- Ertzaintzaren sarbidea gaituta dago PNRren datuak eskuratzeko.

## 1. ERRONKA. SEGURTASUN INTEGRALAREN EREDUA

### EKIMENAK

### EKINTZAK

### ADIERAZLEAK

3.5.4 Interkonexioa PRÜM Tratatuaren esparruan, hatz markei, DNA profilei eta ibilgailuen matrikulazio erregistroei buruzko datuak trukatzeko.

- Interkonexioa gaituta dago PRÜM Tratatuaren esparruan.

## L4. PREBENTZIO PROGRAMA ESPEZIFIKOAK EZARTZEA, SEGURTASUN ARRISKUEN AURREAN SENTIKORRAGOAK DIREN KOLEKTIBOekin JARDUTEKO

4.1 Batez ere gazteei zuzendutako programa espezifikoak garatzea, adikzioen, teknologia berrien erabilerari lotutako arriskuen, indarkeriazko portaeren eta aisialdiari eta kirolari lotutako intolerantzia jarreraren aurkako prebentzioari buruzkoak, inplikaturako erakunde eta organismo guztiekin lankidetzan.

4.1.1 Drogak eta alkohola kontsumitzeko arrisku gehien duten kolektiboei, bereziki gazteei, arreta, prestakuntza, kontrola eta informazioa emateko programa espezifiko bat lantzea, delitu egintzen eta arrisku jokabideen aurrean duten zaurgarritasuna saihestuz.

4.1.2 Prestakuntzako hezkuntza jarduketako plan bat garatzea, gazte indarkeria imitazio eredu gisa saihesteko, bai gazte taldeei dagokienez, bai arma zuriekin izandako borroka edo istiluetan parte hartzeari dagokienez.

- Programa landua eta operatiboa  
- Hedatutako zabalkunde ekintzen kopurua.  
- Hedatutako prestakuntza ekintzen kopurua.  
- Bultzatutako foroek kopurua.  
- Egindako koordinazio bileren kopurua.  
- Plana egina eta operatiboa.  
- Hedatutako zabalkunde ekintzen kopurua.  
- Hedatutako prestakuntza ekintzen kopurua.  
- Bultzatutako foroek kopurua.  
- Egindako koordinazio bileren kopurua.

## 1. ERRONKA. SEGURTASUN INTEGRALAREN EREDUA

EKIMENAK	EKINTZAK	ADIERAZLEAK	
	4.1.3	<p>Gazteek teknologia berriak erabiltzeari lotutako arriskuak prebenitzeko programa espezifiko bat garatzea: iruzurrak, jazarpena, bullyinga...</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Programa egina eta operatiboa.</li> <li>- Hedatutako zabalkunde ekintzen kopurua.</li> <li>- Hedatutako prestakuntza ekintzen kopurua.</li> <li>- Bultzatutako foroen kopurua.</li> <li>- Egindako koordinazio bileren kopurua.</li> </ul>
	4.1.4	<p>Kirolean, indarkeria, gorroto adierazpenak, arrazakeria, xenofobia eta, oro har, intolerantzia jarrera guztiak desagerrarazteko ekintzak garatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hedatutako zabalkunde ekintzen kopurua.</li> <li>- Hedatutako prestakuntza ekintzen kopurua.</li> <li>- Bultzatutako foroen kopurua.</li> <li>- Egindako koordinazio bileren kopurua.</li> <li>- Zehapen espedienteen kopurua.</li> </ul>
4.2	4.2.1	<p>Bizikidetzaren demokratikoari egin dakizkiokeen mehatxuei buruzko prebentzio eta inteligentzia programak sustatzea.</p> <p>Muturreko indarkeria islamista prebenitzeko programak sustatzea, hala nola PECIR, eta propaganda jihadistaren aurrean zaurgarrienak diren kolektiboetan sakontzea, Giza Eskubideen eta Bizikidetzaren Idazkaritzaren ADOS programarekin koordinatuta.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Erradikalizazioaren Aurkako Ikasgela Iraunkorrean prestatutako pertsonen kopurua.</li> <li>- Ertzaintzak meskitekkin izandako bisiten eta/edo kontaktuen kopurua.</li> <li>- ADOS Batzordearen bilera kopurua.</li> </ul>
	4.2.2	<p>Kezka soziala sor dezaketen, eta, azken batean, bizikidetzaren demokratikoan gorabeherak eragin ditzaketen gaiei buruzko inteligentzia jardura sustatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bizikidetzaren demokratikoaren asalduren %; horien gaia inteligentziak mehatxu potentzialtzat jo duenean.</li> <li>- Inteligentziak detektatu eta bizikidetzaren demokratikoan asaldura eragin duten mehatxu potentzialen %.</li> </ul>
4.3	4.3.1	<p>Emakumeen aurkako indarkeria eta emakumeen indarkeria prebenitzeko programei eustea eta programa horiek indartzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- EI/GI espedienteen kopurua.</li> <li>- EI/GI espedienteetako biktimen kopurua.</li> <li>- EI/GI espedienteetako emakume biktimen kopurua.</li> </ul>

## 1. ERRONKA. SEGURTASUN INTEGRALAREN EREDUA

EKIMENAK	EKINTZAK	ADIERAZLEAK	
esplotazioaren aurkako programak ezartzea, Emakunderekin batera eta eraginpeko taldeekin koordinatuta.	4.3.2	Sexu izaerako delituak prebenitzeko programak garatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Garatutako programen kopurua.</li> <li>- Espediente kopurua.</li> <li>- Espedienteetako biktimen kopurua.</li> <li>- Espedienteetako emakume biktimen kopurua.</li> </ul>
	4.3.3	Errealitate berriak aztertzea eta baloratzea: indarkeria bikarioa, teknologia berrietan edo teknologia berrien bidez egindako indarkeria, guraso eta seme-alaben arteko indarkeria...	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Espediente kopurua.</li> <li>- Espedienteetako biktimen kopurua.</li> <li>- Espedienteetako emakume biktimen kopurua.</li> </ul>
	4.3.4	Sexu esplotaziora bideratutako gizakien salerosketaren aurkako programa espezifikoak finkatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Espediente kopurua.</li> <li>- Espedienteetako biktimen kopurua.</li> <li>- Espedienteetako emakume biktimen kopurua.</li> </ul>
	4.3.5	Genero indarkeriako kasuetarako Jarraipen Integraleko Sistemaren interkonezioa.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- EBA – Emakumeen eta etxekoen babes: EI/GI kasuen tratamendurako euskal kudeaketa proiektua.</li> <li>- Baliabide teknologikoen kopurua (Bortxa aplikazioa + engaiatuak).</li> </ul>
	4.4	Basque Cybersecurity Centerrekin (BCSC) lankidetzan jarduteko programa espezifiko bat egitea, teknologia berriak modu	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Programa egina eta operatiboa.</li> <li>- Hedatutako ekintzen kopurua.</li> <li>- Bultzatutako foroen kopurua.</li> <li>- Egindako koordinazio bileren kopurua.</li> </ul>
	4.4.1	Erakunde eta enpresetan delitu informatikoak eta zibererasoak prebenitzeko programa.	

## 1. ERRONKA. SEGURTASUN INTEGRALAREN EREDUA

EKIMENAK	EKINTZAK	ADIERAZLEAK
